

Gure euskara batu behar badugu, batu behar ba'dugu ..., ba dugu arrazoirik asko, badugu arrazoirik asko, ba-dugu arrazoirik asko ... lehenengo ta behin ortografiatzko liburu bat argitaratzeko.

Hain zuzen ere, Koldo Mitxelena dioenez, "euskara idatziaz ari bagara ... eta ortografiatz ezin badugu ... nola arraio egingo dugu batasuna?".

Hona hemen, ba, euskal ortografiatzko lehenengo euskal liburua. Euskaltzaindiak adierazi dituen bideak urratuz moldatu du Mikel Zaratek euskal idazle, irakasle ta ikasleentzat.

Izan bedi lehenbiziko
liburua
beste hobeago askoren
sorburua.



BIZKAIKO AURREZKI KUTXA'ren
Kultur Ekintzaren laguntzaz

Mikel Zarate

Euskal Ortografia



e/31

EUSKAL ORTOGRAFIA

Euskal Biblioteka Labayru



1006310

· COLECCIONES / N. 295

Mikel Zarate

Euskal Ortografia

(Baturantz)



Liburu au argiteratzeko
BIZKAIKO AURREZKI KUTXA-k
lagundu dau bere kultur ekintzaren bidez;
orrela Euskalerrriaren kultur gintzari
bere lagundu-nai agertzen dau.



LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR
DURANGO

© MIKEL ZARATE
LEOPOLDO ZUGAZA, EDITOR
AVDA. DE MONTEVIDEO, 11 — DURANGO (Vizcaya)

Portada: De «Orthographia Practica» de Juan de Yciar

I. S. B. N. 84-7406-030-3

Depósito Legal: BI-522-1978

Impreso en La Editorial Vizcaína, S. A.
Carretera Bilbao a Galdácano, 20
Bolqueta — Bilbao - 4

*Imanol Lekuona
ta Koldo Mitxelena
amets berdezko begirunez*

«Ezin-bestekoa, hil-edo-bizikoa, dela
uste dugu euskera batasun-bidean jartzea»

(L. MITXELENA)

BI MAISUREN IRITZIAK

*Urte asko da elkarrizketa hau asmatu nuela. Hamar urte
izango dira laster.*

*Lekuona zaharrarekin eta Mitxelenarekin nengoen. Neure
gelan. Derion. Goizeko bederatzietan.*

*Grafemak, digramak eta euskal idazle mordo bat ere gu-
rekin zeuden. Geldi, baina urduri.*

— ... orduan, zer? Batasuna bai ala ez?— galdetu nion
Lekuonari.

— «Euskera biziko bada, batu egin bear da, beso-bakartu
egin bear, anka-bakartu egin bear... «bizitza dezan eta ugariago
dezan»; indartsuago dedin, alegia; errestuta, laburtuta, batuta,
geiagok eta geiagok mintza dezan...» (1).

— Ta zuk, Mitxelena, zer diozu?

— «Haur eta gazteei euskeraz irakasten baldin bazaie,
eta euskeraz irakatsi behar euskera biziko baldin bada, pre-
miazkoa da guzkiei batera edo bateratsu irakastea. Nahi eta
bear dugun batasun hori, lehen urratsetan behintzat, euskera
idatziarena, izkribuzkoarena, da. Eta, euskera idatziaren ba-
rrutian, irakaste-lanean dugu beharrenik batasun hori, irakur-
learen aiseginerako egiten den literatura «ederrean» baino
areago» (2).

(1) XIII. EUSKERA, Bilbao, 1968, 141. orr.

(2) *Ibidem*, 203. orr.

—Baina nola egin batasun hori? Ta nork egingo du? Euskaltzaindiak? Noiz?

—«Euskaltzaindiak euskeraren batasuna egin dezakeala uste izatea... uste ustela da. Zer egin dezake Euskaltzaindiak? Gidaritza edo... bideak erakutsi... zuzendaritza edo... batasun-ekintzak ortara jo dezan» (3).

—«Euskaltzaindiari, aurtan, bere 50^ogn. urte-betetzearen arlo ta zeregin berezi bezela, Euskeraren Batasuna eratu dezala eskatu zaio. Urte onen lenengo batzarrean izan zan. Bilbao'n. Orain 50 urteko Oñati'ko euskal-jaiak gogoratzean, urgazle Jaun batek egin zuan eske ori. Bilbao'ko Batzar artan, aurtan Oñati'n bertan jai berezi batzuek eratzea erabaki zan —jaiak ez baño estudio-egun batzuek obeto—; eta geroztiko gure Batzarretan batasunaren gai ori erabili da eten gabe. Aizkenik, Uztaillean, euskal-idazleen batzar bat egin da Ermua'n, batasunari dagokion zenbait gauza erabakitzeke; eta, an batzartu diran idazleak ere —geienak bederenik— eskabide bera egin-edo diote gure Euskaltzaindiari: batasuna eratu dezagula, alegia, batasuna eratzeko zeregiña gure gain artu dezagula. Bitarte ortan, gure illeroko Batzarretan, gai onen zenbait gauza obeto aztertu dira, eta aien artean au batez ere: batasuna nola «aditu» bear dan, noraño egin bear dan, zertan, zein salletan; eta guztion iritzia izan da batasuna idazleen artean, idazleentzat egin bear dala; idatzietan, ez izketan (itz, orain arte bezela, bakoitzak bere eran); idazleen artean, ez errian (erriak orain arte bezela); eta idazleak berak beren idazti errikoietan, ez goi-idaztietan (ez olerkietan, eta nobelistikan, adibidez; ortan idazleak aske gelditzen dirala, bakoitza bere erara). Itz bitan: batasuna bi gauza oietan: a) aldizkarietan («Zeruko Argian», «Anaitasunan», «Yakinen», «Jaunaren deian» etab., etab.; eta b) ikastoletan, ikastoletako liburuetan eta jolasketetan etab., etab.» (4).

—Konforme egongo zarela uste dut, Mitxelena, lekuonarekin. Baina nondik hasiko zinateke zu batasun hori ahalbañ arinen lortzeko?

—«Azaleko hauzietan lortu behar dugu aurrenik batasuna, mamiari dagoztenetan baino lehenago, errazago delako eta pre-

(3) *Ibidem*, 246. orr.

(4) *Ibidem*, 139. orr.

miazkoagoa gainera. Egia da hizkuntza bat sistema dela, eta sistema horren zatiak edo osagarriak ez direla deus sistemaz kanpora. Aitortu beharrean gera, ordea, mamira bagoaz, euskera ez dela oraingoz sistema bat, diasistema bat baizik, eta diasistema horren itxura batera eldu behar dugula, gero mamia batuko baldin badugu» (5).

—Ortografia bateratzea da, orduan, zure ustez, lehenbiziko egin beharra.

—«Euskera idatziaz ari bagera... eta ortografiatz ezin badegu..., nola arraio egingo degu batasuna?» (6).

Gogorki esan zituen Mitxelena azkenengo hitzok, eta grafemak eta digramak dardar jarri ziren... eta ikarazko dantza burrundadatsu bat egiten hasi... dantza nabarmen bat nire gelako liburu ta aldizkarietan. Euskal idazleek ere oihuka, elkar joka, hasi ziren berehalaxe. Hango zarata, iskanbila ta nahasteak ez zuen azkenik. Grafemak eta digramak beren lumetan sartu zituzten, halakoren batean, euskal idazleek; nahi ta nahi ezko tinta garratzua edan zuten grafemek eta digramek, eta zoratu egin ziren, eta...

—Geldi ta isilik, mesedez... faborez... otoi... arren...!— esan nien orduan nik guztiei, haserre bizitan.

—Zergaitik...?

—Hartu ta irakurri. Hona hemen euskal ortografiatz euskaraz egin den lehenengo liburua. Hartu ta irakurri. Gero jarraituko dugu elkarriketan.

Irakurtzen ari dira oraindik Lekuona, Mitxelena ta euskal idazleak. Grafemek eta digramek, ordea, udaberriko balet liluragarri bat egiten, bakuntzaren sinfonia lerdarenan pozetan.

(6) *Ibidem*, 204. orr.

(6) *Ibidem*, 248. orr.

SARRERA

«Badakit anhitzek miretsiko duela eta edirenen arrotz eta estraiño, ni lan huni lotzea. Zeren anhitz izan baita orainokoan, eta baita orai ere, ni ez bezelakorik, ni baiño hunetako gaiagorik, eta anzatsuagorik, ezpaitute guztiarekin ere, orainokoan, hunelako materiatan, hunela ausartziarik eta eskudantziarik hartu. Baitirudi ezen asko behar lizatekeiela arrazoin haur ene gibelatzeko eta geldi arazitzeko ere. Baiña ene kontra dela dirudien arrazoin hunek beronek, ni esportatzen eta aitzinatzen nau, hunek bihotz emaiten deraut, haur edireiten dut nik neure alde eta fabore, zeren enseiukarrear bezala egiten diren lehenbiziko obrek eta enseiuek, zenbait huts eta falta izanagatik ere, badirudi ezen, zeren lehenak diren, barkhakizun direla, eta bat bederat disimulatzeko, ez ikhusi iduri egiteko, eta are desenkusatzeko dituela.

Badakit halaber ezin heda naitekeiela euskarako minzatze molde guztietara. Zeren anhitz moldez eta diferentki minzaten baitira euskal herrian. Nafarroa garaian, Nafarroa behean, Zuberoan, Laphurdin, Bizkaian, Gipuzkoan, Alaba-herrian, eta bertze anhitz lekutan. Batak erraiten du *behatzea*, eta bertzeak *so egitea*. Batak *haserretzea* eta bertzeak *samurtzea*. Batak *ilkitzea*, bertzeak *ialgitea*. Batak *athea*, bertzeak *bortha*. Batak *erraita*, bertzeak *esatea*. Batak *irakurtzea*, bertzeak *leitzea*. Batak *liskartzea*, bertzeak *ahakartzea*. Batak *hauzoa*, bertzeak *barridea*. Batak *aitonen semea*, bertzeak *zalduna*. Finean bat bederat bere gisara, anzura eta moldera.

Eztitutze euskaldun guztiek legeak eta azturak bat, eta ez euskarazko minzatzea ere, zeren erresumak baititutze diferent.

Bada eskiribatzeaz denaz bezan batean ere ez naiz egiteko gabe. Zeren bada hunetan ere diferentzia. Batak eskiribatzen du *chehero*, bertzeak *gehero*. Batak *chedea*, bertzeak *gedea*. Batak *ichilik*, bertzeak *igilik*. Batak *lachoa*, bertzeak *lajoa*. Batak *choil*, bertzeak *joil*. Batak *kecho*, bertzeak *kejo*. Batak *chuchen*, bertzeak *jugen*. Eta hunela bada bertzerik ere zenbait hitz, batak eta bertzeak, nork bere herriko edo erresumako arauaz diferentki eskiribatzen baititutze» (P. Axular, *Gero*, 6. ed., Oñati, 1976, 13. orr.).

Axularren euskara eta gaurko euskara ez dira berdinak. Beste hizkuntza askoren antzera, aldatu egin da euskara ere mendeen joanean.

Axularren ortografia eta gaurko ortografia ere ez dira berdinak. Beste hizkuntza askok izan dituzten bezala, ortografiako aldaketa asko izan ditu euskarak ere mendeen joanean.

Hala ere, gauza bat ikusten da argi eta garbi: Beste hizkuntzek batasun bat lortu dute, koine ofizial literario bat dute; baina euskarak, euskerak, eskuerak ez du, ez dau, oraindino, oraindiño, horrelakorik, orrelakorik... Eta horixe da lotsagarriena eta penagarriena: Axularren hitzok oso egokiak direla gaur ere liburu honen sarreran jartzeko, oso egokiak direla, zoritxarrez, hirurehun urte garrenean ere.

Egia esan, eztabaidaka eta nahasteka-mahasteka, ahalegin handiak egin dituzte bätzuek gure euskal hizkuntza batzeko. Baina ahaleginak baino handiagoak izan dira eragozpenak eta batu gabe gelditu da euskara. Batu gabe azaleko gauzarik errezenetan ere, ortografiako batasuna ere ez bai dugu lortu oraindik. Ea oraingoan lortzen dugun, gaurko gazteen doinu berri bizi baten garrasiz.

«Herri bat, hizkuntza bat,
euskara batua da

oraingo eztabaida
bizi;
herri bat, hizkuntza bat,
euskara batua da
gazteen bultzakada
berri.

Hil egiten zaigu,
hil egiten dugu,
hil gure herri;
gure euskara
egin da
mila zati,
euskaldun gazteen
lotsagarri!

Bat euskal herriak,
bat euskalkiak,
bat denok beti;
batu dezagun
euskara
ta ikasi,
berritu dezagun
Euskal Herri».

Ahoz-ahozko hizketan erabiltzen dituen hotsak, nola edo hala, idatziz adieraztea izan da beti gizon kultoaren ardura, grafia batez edo bestez hitzen hotsak adieraztea. Eta hortatik sortu da ortografia, hau da, grafia zuzenak zuzen erabiltzeko araudia, idatz arauen arauera idatz dezaten idazleek (berdin edo berdintsu idatz dezaten) eta irakurle guztiek erreztasunez irakur dezaten.

Gizonari, bizitzari, hizketa biziari dagokion zer bat da ortografia eta, jakina, gizona, bizitza, hizketa bizia aldatzen den antzera aldatzen da ortografia ere. Baina, aldian aldiko ta aldakorra izan arren, gizona beti gizon, jokera berdintsuak beti gizonak, eta gizonaren antzera, ortografia ere, aldian aldiko ta aldakorra izan arren, berdintsu izaten da beti aldi bakoitzean. Izan ere, ortografia urterik urtera aldatzen ibiliez gero (begietatik sartzen baita), historiaren, batasunaren, ira-

kurleen ta hizkuntzaren bizitzaren kalterako izango litzateke.

Aldian aldiko izanik, ba, beharrezkoa dugu ortografia berdin edo berdintsu batez idaztea, euskara goimaila zabal landu batera jasotzeko ta euskaldun alfabetook kultura bideetatik ibil gaitzen.

«Para el individuo, el conocimiento de la escritura correcta es necesario, ante todo, como una base física, material y estable, que le represente la forma de las palabras; y también, porque la convivencia social, entre otras muchas uniformidades, exige esta uniformidad del escribir y descalifica a todo el que no se somete a esta disciplina. La Ortografía es, hoy en día, en todos los países, inseparable de la cultura». (R. Seco, *Manual de gramática española*, 9.ª ed., Madrid, 1973, p. 285).

Axularrekin hasi, Axularrekin bukatu, «aitzitik haur da nik nahi nukeien gauzatarik bat, ene enseiu aphur hunek kilika zinitzan eta gutizia, enseiu hobeago baten egitera eta ene hemengo falten ere erremediatzera. Zeren halatan, ez lizateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsi, nola munduak uste baitu, eta baitaduka, dela» (P. Axular, *Gero*, 6, ed., Oñati, 1976, 17. orr.).

ALFABETOA

Euskal alfabetoko letrak (grafemak eta digramak) hogeitabederatzi dira guztira (bost bokal eta hogeitalau kontsonante). Hona hemen zeintzuk diren:

A, a (*a*)
B, b (*be*)
D, d (*de*)
DD, dd (*dde*)
E, e (*e*)
F, f (*efe*)
G, g (*ge*)
H, h (*hatxe*)
I, i (*i*)
J, j (*jota*)
K, k (*ka*)
L, l (*ele*)
Li, ll (*elle*)
M, m (*eme*)
N, n (*ene*)
Ñ, ñ (*eñe*)
O, o (*o*)
P, p (*pe*)
R, r (*ere*)
RR, rr (*erre*)
S, s (*ese*)
T, t (*te*)
TS, ts (*tse*)
TT, tt (*tte*)
TX, tx (*txe*)
TZ, tz (*tze*)
U, u (*u*)
X, x (*xe*)
Z, z (*zeta*)

Erdal hitzak edo erderatikako hitz berriak idazten direnean, beste grafema ta digrama batzuk ere erabiltzen dira. Esate baterako: *c, q, v, w, y, ch, kh, ph*, etab.

BOKALEN IDATZ ARAUAK

-a itsatsia edo organikoa

«Gaurko gipuzkeraz batez ere, oso ohitura, handia dago hitzen azkeneko *-a*, nahiz hitzaren parte izanik (*-a* «organiko» edo itsatsia), artikulutzat jo eta kentzeko. Esate baterako: *gauz bat entzun daiteke, elizera joan, ez dago kabiirik, bi anaia gera*, eta abar (*gauza bat, elizara joan, ez dago kabiirik, bi anaia gera, esan beharrean*). Eta esan bezalaxe idatzi ohi dute bertako idazle batzuek» (Larresoro *Euskara batua zertan den*, Oinati, 1974, 93. orr.).

Hitz batek azken buruan *-a* berezkoa duen ala erantsia jakitea preminazkoa dugu, ba, egokiro ta zahaztasunez idazteko (batez ere deklinabide atzizkiak behar bezala ezartzeko), ahoz-ahozko hizketan «jan» egiten bai dugu sarri askotan *-a* hori.

1) Lehenengo ta behin, *-a* itsatsia dute *-(k)ada, -bera, -dura, (-tura), -(k)era, -(k)eta, -ezia, -gintza, -gura, (k)eria, -kuntza, -tza* eta *-tzia* atzizkien bidez sorturiko hitz elkartuak, konposatuak. Adibidez: *zaplada, kamioikada, minbera, hozpera, mindura, ohitura, esaera, jokera, azterketa, ahulezia, hirigintza, logura, gazteria, gizonkeria, aurrerakuntza, jendetza, probintzia* etab.

2) Erdaratikako hitz zahar eta berriak ere *-a* itsatsia dute, erderaz ere *-a* itsatsiaz idazten badira. Abididez: *fitxa, gramatika, zopa, esperantza, bezpera, pazientzia, erre-*

minta, bista, arrosa (larrosa), feria, fonema, geografía, trenka, doctrina, pelikula, txapuzá, polikopia, aberia, ekonomia, mania, politika, mekanika, paella, mapa, komunista, tortilla etab. Baina promes.

3) Gainera, -a itsatsia du beste hitz askok ere. Hona hemen behinen zerrenda:

abarka 'abarca'
ahizpa (aizta) 'hermana de mujer'
aita 'padre'
aitona (aitaita) 'abuelo'
aintzira 'laguna'
alaba 'hija'
aldapa 'cuesta'
alkandora (arkondara) 'camisa de hombre'
ama 'madre'
amona (amama) 'abuela'
anaia 'hermano de hombre'
animalia 'animal'
arima (anima) 'alma'
arbola 'árbol'
arantza 'espina'
arrantza 'rebuzno'
arnasa 'respiración'
ardura 'preocupación'
axola 'preocupación'
arrau(l)tza 'huevo'
atxakia (aitzakia) 'pretexto'
area 'arena'
aztarna 'huella'
aza 'berza'
arrosa (larrosa) 'rosa'
ausardia 'atrevimiento'
arriba 'hermana de hombre'
baba 'haba'
berba 'palabra'
birjina 'virgen'
bilduma 'colección'
bista 'vista'
burdina 'hierro'
dardara 'temblor'

denbora (denpora) 'tiempo'
dema 'apuesta'
egia 'verdad'
eliza 'iglesia'
erregina 'reina'
esamina 'examen'
eskola 'escuela'
ezkila 'campana'
familia 'familia'
gartzela (kartzela) 'cárcel'
gauza 'cosa'
gera (gerla) 'guerra'
gona 'saya'
gutizia 'codicia'
grina 'pasión'
gaztaina 'castaña'
garizuma 'cuaresma'
gaubela 'vela nocturna'
geriza 'sombra'
gela 'cuarto'
grazia 'gracia'
ginarra 'brezo, escoba'
horma 'hielo'
habia 'nido'
haizkorra 'hacha'
imajina 'imagen'
iskambila 'alboroto'
ikastola 'escuela vasca'
kabia 'nido'
kaiola 'jaula'
kopeta 'frente'
kutzatila 'cajita'
keriza 'cereza'
lotsa 'vergüenza'
makila 'bastón'
maila 'peldaño'
masaila (matraila) 'mejilla'
meza 'misa'
nahaspila 'revoltijo'
neska 'chica'
neskatila (neskatxa) 'muchacha'
neba 'hermano de mujer'

ordena 'orden'
orma 'pared'
osaba 'tío'
otzara 'canasta'
premi(n)a 'necesidad'
pezeta 'peseta'
ixabola 'chabola'
zalantza 'vacilación'
zarata 'ruido'

4) Hala ere, ba ditugu ezbaiko hitz banaka batzuk, bai alternantziagatik, bai hizketaren indarragatik:

a) *-a* / *-e* alternantzia dutenek: *anaia* / *anaie*; *lora* / *lore*; *larra* / *larre*; *sarda* / *sarde*; *jaka* / *jake*; *orrea* / *orroe*; *koilara* / *koilare*; *giharra* / *giharre*; *baratza* / *baratze*; *bela* / *bele*; *heriotza* / *heriotze*; *andra* / *andre* etab. Alternantzia horrek ez du inportantzia handirik hizkuntza osoaren barnean. Batasuna egiten ari garan bitartean, era biak onartuko nituzke nik, *-a* edo *-e* itsatsia ondo erabiltzea beharrezkoagoa delako.

b) *-a* itsatsi hori aspaldidanik galduta duten hitz arrunt banaka batzuk: *pizti(a)*, *giltz(a)*, *sakel(a)*, *sail(a)* *kate(a)*, *merkatalgo(a)* etab. Askozaz ere inportantzia gutxiago dute hitzok hizkuntza osoaren barnean eta oraingoz bietara idatzi daitezke.

d) *-a* itsatsi hori aspaldidanik galduta duten izen berezi batzuk, herrien izen batzuk, *-ia-z* eta *-ua-z* amaitzen direnak batez ere: *Aulesti(a)*, *Donosti(a)*, *Ermu(a)*, *Foru(a)*, *Arratzu(a)*. Etorkiz berena duten *-a* hori ta guzti idaztea da gaurko jokera: *Donostia*, *Ermua* etab. (1)

(1) *Donostia* izan da beti: «Iru damatxo *Donostiako*...»; «Quisiera ser alcalde *Donostiyakua*...». Eta orobat bi Getariak, hangoa (Guéthary) eta hemengoa. *Getaria* dira biak: «*Donostiarrak* ekarri dute / *Getariyatik* akerra...».

Leku izen propioetan ez dira bi mota, hiru baizik: 1) Sekula eta inon *-a-rik* izan ez dutenak: *Lapurdi*, (*H*)*ernani*, *Zamudio*... (eta deklinaturik: *Zamudion*, *Zamudioko*, *Zamudiotik*, *Zamudiora*...); 2) deklinabide osoan-*a* sartua dutenak: *Nafarroa*, *Gipuzkoa*, *Getaria*, *Donostia*... (eta deklinaturik: *Donostia*, *Donostian*, *Donostia-ko*, *Donostiatik*, *Donostia-ra*...); eta 3) zenbait kasutan baizik ez dutenak: *Zokoa*, *Pausua*, *Bizkaia*... (eta deklinaturik: *Bizkaia*, *Bizkaian*, *Bizkai-ko*, *Bizkai-tik*, *Bizkai-ra*...).

e) *-ia-z* bukatzen diren pertsona izenak: *Juli(a)*, *Antoni(a)*, *Luza(a)*, *Glori(a)*, *Mari(a)* etab. Hontan ez dago ezbairik. Bietara idatzi behar dira: etorkiz berena duten *-a* hori ta guzti batzutan eta *-a-rik* gabe beste batzutan, nortasun eta ohiturari dagokionez. Esate baterako, norbait *Maria* bada, *Maria* idatzi behar da (ez *Mari*) eta, alderantziz, norbait *Mari* bada, *Mari* idatzi behar da (ez *Maria*).

(5) Hitz konposatueta (elkartueta) eta deribatuetan (eratorrietan) galdu egiten da, sarri askotan, *-a* itsatsi hori: *gaztainondo*, *anaiorde*, *elizgizon*, *arnasots*, *egizale*, *makildantza*, *erreginorde*, *elizkizun* etab. Hitz elkartuaren osagarriak bereiz jartzen direnean ere bai: *anai maitasuna*, *arnas gaitzaldia*, *ekonomi arazoa*, *filosofi saila*, *eliz agintariak*, *kultur gaiak* etab. (2)

6) Deklinabideko atzizki batzurekin elkartzean ere galdu egiten da *-a* itsatsia:

a) *-a* atzizkiarekin elkartzean: *alaba* + *a* > *alaba* (B. *alabea*), *eskola* + *a* > *eskola* (B. *eskolea*), *gauza* + *a* > *gauza* (B. *gauzea*) etab.

b) *-ek* eta *-ok* atzizkiekin elkartzean, hau da, ergatibo pluraleko atzizkiekin elkartzean: *neskatilek* (egin

Donostia bezala deklinatzen da, besteak beste, Gipuzkoako eta Bizkaiko *Errenteria*. Entzun dudanez, berriz, *Ermu-an*, *Foru-an*, *Busturi-an* omen da; baina *Ermu-ko*, *Foru-ko*, *Busturi-ko*.

Zokoa, *Pausua*, *Bizkaia* etab. artikuludunak dira, erdarazko *El Burgo*, *La Población*, *Laguardia*, *Labastida* eta beste hainbesteren antzera.

Hiri eta eskualde izen horiek pertsonen izengoiti bezala erabiltzen direnean, ordea, *-a* gabe erabiltzen dira beti: *Donosti*, *Ondarrabi*, *Errenteri*, *Aspeiti*, *Arrati* etab.

(2) «Es frecuente la caída de la *a* orgánica de vocablos que entran en composición, como *burdina* (*burdintxafla*), *birjina* (*birjin-*), *makila* (*makil-*), etc. En este punto, en el euskera literario actual, queda practicamente como aceptado el hecho de la pérdida de la *a* final de vocablos técnicos como *pedagogia*, *filología*, *filosofía*, *geografía*, etc., cuando su presencia en el sintagma toma sentido *adjetival* (*pedagogi* = pedagógico, *filosofi* = filosófico, *geometri* = geométrico, etc.). Las voces que terminan en URA (*literatura*, *kultura*...), pierden la última vocal al adjetivarse (*literatur* = literario, *kultur* = cultural...). (Luis M.^u *Musica*, *Hiztegi Orokor-Teknikoa*, 2. *Euskara-Gaztelera*, Bilbao, 1977, 39. orr.).

dute), *alabek* (bota naute), *animaliek* (jan dituzte hezurak), *gauzok*, *burdinok* etab.

d) *-ei* eta *-oi* atzizkiekin elkartzean: *arbolei*, *erreginei*, *aldaketei*, *animalioi*, *arreboi*, *anaioi* etab.

dd) *-en* eta *-on* atzizkiekin elkartzean: *atzerakuntzen*, *erropen*, *eztabaiden*, *dendon*, *berriketon*, *banderon* etab.

e) *-ekin* (*-ekaz*) eta *-okin* (*-okaz*) atzizkiekin elkartzean: *ezkontzekin*, *errebistekin*, *egiekin*, *arrosokin*, *alabokin* etab.

f) *-entzat* eta *-ontzat* atzizkiekin elkartzean: *neskatzentzat*, *osabentzat*, *arimentzat*, *neskatilontzat*, *frakontzat*, etab.

g) *-ez* eta *-oz* atzizkiekin elkartzean: *azterketez*, *txabolez*, *burdinoz*, etab.

h) *-etan*, *-engan* eta *-otan*, *-ongan* atzizkiekin elkartzean: *erresumetan*, *ezpatetan*, *egituretan*, *alabengan*, *neskatilengan*, *ikastolotan*, *letrotan*, *arrebongan*, etab.

i) *-etatik*, *-etarik*, *-engandik* eta *-otatik*, *-otarik*, *-ongandik* atzizkiekin elkartzean: *fraketatik*, *denboretarik*, *neskatxengandik*, *frakotatik*, *osabongandik*, *neskatilongandik*, etab.

j) *-etara*, *-otara* eta *-engana*, *-ongana* atzizkiekin elkartzean: *abarketara*, *arboletara*, *erruedotara*, *aitonengana*, *alabongana*, etab.

k) *-etako*, *-otako* eta *-enganako*, *-onganako* atzizkiekin elkartzean: *azoketako*, *eskolotako*, *amonenganako*, *neskatxonganako*, etab.

l) *-etarantz*, *-otarantz* eta *-enganantz*, *-onganantz* atzizkiekin elkartzean: *arboletarantz*, *ormotarantz*, *osabenganantz*, *alabonganantz* etab.

ll) *-eteraino*, *-otaraino* eta *-enganaino*, *-onganaino* atzizkiekin elkartzean: *azoketaraino*, *arbolotaraino*, *neskatilengaino*, *neskongaino* etab.

i-ren idatz arauak

Hitz barnean eta amaieran, *i* grafema bakarrik erabiltzen da / *i* / eta / *y* / fonemen adigarritzat. Hitz

hasieran *j* erabiltzen da (ikus: *j-ren idatz arauak*). Adibidez: *jaio*, *arrazoia*, *ai!*, *jaiegun*, *pailazo* (*paiazo*), *maiatza*, *aldai*, *mahai*, *sustraia*, *goien*, *irratsaio*, *saio*, Baiona, Sagardui, Ezpeldo, Amaia, Zumaia etab. Baina erdaratik harturiko hitzetan (batez ere izen berezietan) *y* ere erabiltzen da: *Sidney*, *Geysler*, *Chomsky*, *Paraguay*, *Vianney*, *nylon* etab.

Zuberoako *i* ta *u*-ren arteko «*i* berezia» adierazteko, *ü* erabili izan ohi da: *gü*, *ütxüra*, *ürrats* etab.

Bokalen arteko alternantzia batzuk

1) *a* / *e* alternantzia dugu, lehenengo ta behin. «Una vibrante fuerte, intervocálica o implosiva, ha tenido, como en otras lenguas, la virtud de abrir una vocal precedente. La apertura se ha producido en contextos bastante bien determinados y la vocal más sensible a la acción de la consonante ha sido *e*, que se abrió en *a*». (L. Michelena, *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián, 1961, pág. 60).

Hona humen adibide batzuk: *berri* / *barri*, *beltz* / *baltz*, *arrazoi* / *errazoi*, *atera* / *atara*, *bazter* / *baztar*, *haserre* / *hasarre*, *gerri* / *garri*, *igerri* / *igarri*, *txerri* (*zerri*) / *txarri*, *erein* / *erain*, *arrenkura* / *errenkura*, *eztei* / *eztai* (*eztegu*), *berdin* / *bardin*, *bider* / *bidar*, *izter* / *iztar*, *esker* / *eskar*, *musker* / *muskar*, *pitxer* / *pitxar*, *igeri* / *igari* (*uger* / *uger* / *ugar*, *izerdi* / *izardi*, *geza* / *gaza*, *lore* / *lora* etab. Formarik jatorrenak lehenbizikoak dira.

Hitz azkenean *a* / *e* alternantzia duten hitzei buruz lehen esandakoa gogoratu. Ikus hortarako *a* itsatsiaz esandakoa.

2) *e* / *i* alternantzia hitz gutxiagotan agertzen da Adibidez: *iritzi* / *eretxi*, *eztei* (*eztegu*) / *eztai*, *ageri* / *agiri*, *beldur* / *bildur*, *bertute* / *birtute*, *izpiritu* / *espiritu*, *mediku* / *midiku* (*miriku*), *ispilu* / *espilu*, *izkutu* / *ezkutu* etab. Hemen ere lehenbizikoak ditugu formarik jatorrenak.

3) «Los ejemplos de permutación de *i* con *u* son abundantes y su clasificación por contextos, que permi-

tirfa acaso precisar las causas, no siempre fácil; los de *e* con *o*, por el contrario, aunque no faltan, se pueden atribuir por lo general a fenómenos de dilación. Entre los primeros han merecido siempre particular atención aquellos casos en que a *i-* inicial en los demás dialectos corresponde *u-* en vizcaíno, o al menos en algunas zonas vizcaínas, ya que las áreas no están determinadas con exactitud». (L. Michelena, *Fonética Histórica Vasca*, San Sebastián, 1961, pág. 73).

Hona hemen adibide batzuk: *igeri* / *uger*, *aitortu* / *autortu*, *guti*, *gutxi* / *gitxi*, *hiri* / *huri*, *irin* / *urun*, *irten* / *urten*, *iltze* / *untze*, *ile* / *ule*, *urrun* / *urrun*, *zulo* / *zilo* etab. Hizkuntza batuan lehenbiziko formak erabili ohi dira.

(4) Hitz azkenetako *o* / *u* alternantzia dugu, azkenez, alternantziarik nabarmenena. Erdararik harturiko hitzetan sortzen da, batez ere, alternantzia hori. Izan ere, bai hizketan eta bai idazkietan, *franko* / *franku*, *gusto* / *gustu*, *salto* / *salto* etab., bietara erabili ohi da. Baina batasun baterantz bagoaz, moztu ta zehaztu egin behar ditugu alternantziok.

Gaurko idazleen jokerak kontutan harturik, ba, hona hemen *-o* eta *-u* hitz amaieran erabiltzeko zehaztasun batzuk:

a) Hitz azkenean zein hitzek daraman *-u* jakiteko, euskara espainolaz konparatuz sorturiko erregela praktikoko bat jarriko dut, lehenbizi. Erdararikako hitzetan,

espainolez

-ado (llana)
-año (llana)
-eño (llana)
-ento (llana)
-ienso (llana)
-iento (llana)
-ierno (llana)
-ierto (llana)
-ulo (esdrújula)

euskaraz

-adu / -atu
-ainu
-einu
-entu / -endu
-entsu
-entu / endu
-ernu
-ertu
-ulu

Adibidez: *artikulu*, *atentatu*, *azertu*, *bainu*, *baliamentu*, *diseinu*, *diputatu*, *destakamentu*, *dokumentu*, *elementu*, *enpeinu*, *errekadu*, *estatu* (*estadu*), *eztainu*, *famatu*, *funtzionamentu*, *ganadu*, *gobernu*, *infernu*, *instrumentu*, *kainu*, *kalkulu*, *kanpamentu*, *kapitulu*, *kondizionamentu*, *kunplimentu* (*kunplimentu*), *kontzertu*, *linimentu*, *magistratu*, *mandatu*, *eskrupulu*, *momentu* (*mementu*), *merezimentu* (*merezimendu*), *merkatu*, *opuskulu*, *parlamentu*, *patibulu*, *pendulu*, *pentsamentu* (*pentsamendu*), *pentsu*, *pinakulu*, *planteamentu* (*planteamendu*), *sakramentu*, *sedimentu*, *senatu*, *sentimentu* (*sentimendu*), *tamainu*, *testamentu*, *titulu*, *tormentu*, *triangulu*, *zimendu*, *zirkulu* etab.

b) Hurrengo zerrenda hontan doazen hitzak ere, zenbait alternantzia oraingoz errezpetatuz, *-u-*az idatzi ohi dira: *abandonu*, *abusu*, *akabu*, *anpulu* (*anpulo*), *arku*, *arrimu*, *arrisku*, *asmu* 'mala idea' (*asmo* 'idea, intención, pretensión, invención'), *bandidu*, *banku*, *barku*, *basu* (*baso*), *bastu* 'grosero, poco fino' (*basto* 'serie de los naipes'), *bixigu*, *deabru*, *defuntu*, *desertu*, *disimulu* (*disimulo*), *dolu*, *enkantu*, *enkontru*, *enpatxu*, *erregalu*, *erregu*, *erreinu*, *errekadu*, *errekargu*, *erretratu*, *errezelu*, *errezu*, *eskandalu*, *eskarmentu*, *eukaliptu* (*eukalipto*), *exenplu*, *faltso*, *franku* (*franko*), *fruitu* (*frutu*), *ganadu*, *kardu*, *gradu*, *gustu* (*gusto*), *igeltsu* (*igeltsu*), *intsentsu* (*intsentsu*) *kargu*, *karu*, *kasu*, *kautxu*, *kitu* (*kito*), *kuadru* (*kuadro*), *komentu*, *kontrabisu*, *kontramaisu*, *kontratu*, *koru*, *kostu*, *lazu*, *lutu*, *mais*, *mamku*, *mazu*, *meritu*, *minutu*, *mirakulu*, *modu*, *numero* (*námeru*), *organu* (*organo*), *pagu* 'pago' (*pago* 'haya'), *palagu*, *papu* (*papo*), *partidu*, *pasadizu* (*pasadizo*), *pilotu* (*piloto*), *poxpolu* (*posporo*), *prestu*, *pulpitu*, *pultsu* (*pultso*), *salto* (*salto*), *kantu*, *mantu*, *santu*, *sentidu*, *siku*, *soltu*, *sosegu*, *tantu* 'tanto' (*tanto* 'gota'), *testigu*, *textu*, *tinu*, *tonu*, *tragu* (*trago*), *tramu*, *trapu*, *tratu*, *trisku*, *zaku*, etab.

d) Espainolez hitz azkenean *u* daramaten euskarazko hitz berriek ere *u* daramate: *grisu*, *tribu*, *xanpu*, *zulu* etab.

dd) Espainolez hitz azkenean *o* daramaten gaineko hitz berriek *o* daramate euskaraz ere. Nahiz eta *-ero*, *-iko*, *-ivo*, *-ismo* ta honelako atzizkiz bukatzen diren hitzak ahozkatzean *-eru*, *-iku*, *-ibu*, *-ismu* etab., esateko jokera nabari, oraingoz *-o* erabili ohi da gehienetan idazterakoan, espainolez *-au* esan («*parau*», «*fastidiau*») eta

-ado (*parado, fastidiado*) idazten den antzera. Adibidez: *ablatibo, absoluto, abstrakto, aerolito, aeroplano, akademiko, akusatibo, alienazio, aluminio, amianto, amoniako, analfabeto, analitiko, anglikanismo, antibiotiko, aparato, aplikazio, aposizio, apostrofo, artxibo, aseguro, asfalto, atomo, atrako, atributo, automatiko, autonomo, azento, azido, baltsamo, baritono, barroko, bertsu, bezero, bikario, bikarbonato, binomio, biologo, bizio, bokatibo, bokazio, bolero, boligrafo, bonbo, bontzo, borrero, boto, boxeo, bromuro, bufalo, kanpo, datibo, definizio, dekanu, diabetiko, diakono, dialektu, diametro, dibortzio, dimisio, diplomatiko, dogmatiko, domino, dinamo, ebano, ekilatero, ekuazio, elektrikoa, enboto, enpirismo, epiteto, erlatibo, erremedio, erromantiko, eskeleto, esperanto, estanku, estazio, etimo, fardo, folio, fresko, gameto, ganglio, genitibo, geranio, globo, hektometro, helikoptero, horoskopu, hibrido, hidrauliko, hidrogeno, idolo, igeltsero, indio, indizio, indulto, instituto, interjekzio, intuizio, ironiko, kalko, kaltzio, kalbinismo, kamino, kandidatu, kanguru, kapitalismo, kaputxino, karburu, karamelo, karbono, katarro, katalogo, katoliko, kimiko, kloro, kloroformo, kromo, kilo, kilometro, kimono, kirofano, klerikalismo, kobalto, komunismo, konklusio, kono, kontzilio, kontsumo, kultu, lexiko, likido, logaritmo, logiko, liriko, marko, mekaniko, mikrobio, mikrofono, mosaiko, motibo, museo, mistiko, mito, naturalismo, nazionalismo, nerbio, nuntzio, ofizio, oxido, oxigeno, ozono, palazio, pandero, panteismo, papero, parroko, partitibo, pasibo, patio, pedagogo, periodiko, fenomeno, fisiko, plastiko, plomo, pluralismo, neumatikoa, potasio, preposizio, preso, sikologo, semantiko, solido, soluzio, sindikatu, sozialismo, sulfato, superlatibo, silogismo, sinbolo, sinpatiko, sintetiko, telefono, tetano, teatro, teoriko, teologo, tomo, trafikoa, tradizio, traizio, trapezio, turko, tipo, txatarrero, pezero, txikitero, txurrero, uranio, zentimetro, zentro, zementu, zodiako, zianuro, ziklo, zilindro etab.*

e) Diminutiboko *-txo* morfema *-txu* bihurtu da Bizkaian. Baina idazterakoan, euskera batu baterantz joteko, *-txo* erabili behar genuke beti. Adibidez: *jauntxo, laburtxo, dagoentxo, dakarrentxo, Josetxo, Martintxo* etab.

Diptongoak

Sei diptongo mueta ditugu euskaraz: *ai, ei, oi, ui, au* eta *eu*. Adibidez: *bai, apain, sei, keinu, loi, bagoi, Uitzu, higuindu, lau, gau, neu, geure*.

-ai, -ei, -oi eta *-ui* diptongoz amaitzen diren hitzak bokalez amaitutako hitzen erara deklinatzen dira. Adibidez: *zelaiak, zelairi, zelairik, zelairen; hogeak, hogeian, hogeitik, hogeiraino; goian, goitik, goiko; uian, uirik* etab.

-au diptongoz amaitzen diren hitzak, ostera, konsonantez amaitzen diren hitzak bezala deklinatzen dira eta, jakina, *e* epentetiko bat hatzen dute kasu batzutan: *gauek, gauean, gauez; kopauek, kopauen, kopauek*.

Esanera idazteko ariketak

1) Arterketa hontan esacra zahar batzuk aztertuko ditugu.

Santukeria asko, baina santutasun gutxi du horrek. Torneroa zu?... Tornurik ikusi ote duzu inoiz? Katolikoak ez dira horiek, katilukoak baizik. Ohitura berri asko ditugu.

Hizkuntza guztiak dira interesgarriak niretzat. Aurrerakuntza handiak egin ditugu aspaldian ortografia aldetik.

Pazientziarik gabeko gizona zara zu.

Trenkaren bat erosiko zuen han Pellok.

Seme bat eta alaba bat ditut; euskaldunak biak.

Non erosi duzu alkandora polit hori?

Astronauta bat etorri zaigu gure herrira.

Aldaketen beldur al zara?

2) Bazter hortan duzu liburua.

Orduak egiten ditu ispiluaren aurrean.

Atxakia asko ta lanik ez: horixe da alperraren jokera.

Musker bat ekarri zuen pitxerraren barruan.

Zenbat bider esango dizut ez joateko hara?

Kanpoetatik ekarritako arbola batzuk landatu dituzte parkean.

Ez nekien hain aldapa handia zegoenik hemen.

Leku izkutua, benetan, hauxe!

Gerriko miña dut aspaldion.

Artikulu bat idatzi behar didazu «Zeruko Argia»rako.

Autogobernu bat behar dugu.

Hamabi t'erdiñetan izango da kontzertua.

3) Zirkulu bat egin zuen lorez.
Arrantza gehiegi egiten du haur horrek gauza
onerako.

Arnasa hartu ezinik gelditu nintzen orduan.
Zer moduz, txo?
Literatura asko ikasi dut zure arrimuan.
Nor ari da orain organua jotzen?
Unibertsitateko katedratiko bat da hori.
Aeroplanoan joan ginen Brasilera.
Berton dugu hemen alderdikeriari asko.
Animalia horiek izugarriak dira.
Analfabeto asko al dago zure herrian?
Katolikoa ote da hori?
Trafikoko poliziaren aurrean ikaratu egin zen.
Anakronismo asko ditu pelikula horrek.
Mikrofonoa hartu ta kantatzen hasi zen.
Karamelo pakete bat erregalatu zidan.
Aditz sintetiko gutxi dugu orain.

4) Prozesioa egiten ari dira txikiteroak.
Txatarrero bati saldu nion.
Oso gizon kulto ada hori.
Zenbat zentimetro dituela esan duzu?
Ba ote daki gero nazionalismoa zer den?
Gaztaina koloreko jantzia erosi du.
Grazia handirik ez dit egiten horrek niri.
Jauntxo asko ta jaun gutxi.
Nora zoaz Mikeltxo?
Burdina lodiagoa ekarri behar duzu.
Birjina bat dirudi.
Familia horren jokabidea ontzat hartzekoa da.
Pelikula polita ikusi dugu gaur.
Gauza asko ekarri dizkizut.
Nongoa da neskatila hori ba?
Inor ere ez dago txabola hortan.
Egiazko Jainkoagandik egiazko Jainko.

5) Lehenengo Ermura joan gara ta gero Donostiara.
Gaurko ekonomi arazoak harrigarriak dira.
Juliren arnasotsak ez zuen azkenik.
Etxetik kanpora bota naute alabek.
Oso politikak dira dendon izenak.
Nora zoaz errebistekin?

Andereño asko daude ikastolotan.
Fraketatik erori zaizu.
Alabongan dut nire uste osoa.
Goazen neskatilenganaino.
Bakiora joaten gara jaiegunetan.
Goien dago zure anaia.
Baionara joan da Ezpeldoi.
Chomsky hori nongoa dela esan duzu?
Beste teoria berri bat orain ere?

6) Erreka hegaletako haltz, sahas, lexar eta sasi
kirikolaztuak zoroen keinuak egiten ari dira haize hoz-
kirriaren besoetan. Keinu zoro ikaragarriak!

Ihauterietako mozzorroz jantzi ditu ur gaixoak,
goitikoz eta behetikoz, azkenengo euritearen ondorengo
goraldi bulartsuan.

Kosmetiko berri koloretsuz apaindurik dute zuhai-
tzek heuren berezko edertasun ederra, liraintasun kloro-
filatsua, gaurko neskatila lerdin pailazotuen antzera.

Zeintasun, zertasun eta nortasunik gabe, barrega-
rriak eta negargarriak erreka hegaletako zuhaitzok. Uda-
berriko jantzi dotore loretsuen ordeztuak ta ikatzez
egindako jantziak dituzte, buztin zatarrezko jantziak.
Eta edergailu asko (uraren ume galduak) belarri, papar,
esku ta hanketan, sorki zaharrez, plastikozko botilaz,
paperez eta gomaz egindako bitxi nabarmenak.

Ikusgarria benetan erreka hegaletako haltz, sahas,
lexar eta sasien kalejira itun eta geldi hau ur gaixoaren
ondoan!

KONTSONANTE BAKUNEN IDATZ ARAUAK

b-ren idatz arauak

Nahiz eta lehenago erabili, orain ez da *v*-rik erabiltzen euskaraz. Adibidez: *borondate, nobela, birjina, bertsolari, abendu, bokazio, ohebagoi, Bikandi, Etxeberria, Bizkaia, Araba* etab.

Aspaldidanik euskeraz erabili izan diren erdaratikoko pertsona-izenak ere *b*-az idazten dira: *Bitor, Bizente, Esteban, Balentin, Benantzio, Salvador* etab.

Hala ere, erderatikako izen propioetan, propietasun hori haintzakotzat harturik, *v* erabiltzen da: *Vietnam, Volga, Valladolid, Vendrell, Avila, Vancouver, Verona, Vossler, Voronov, Voltaire* etab.

Erderatikako izen arrunt berrietan ere erabiltzen da *v*: *vodka, voltio, volkan, vektore, vampiro, vals* etab. Baina ez da beti erreza izaten noiz den hitz berria ta noiz zaharra jakitea. Dena dela, hitz ezagunak direnean eta aspaldidanik ahoz-aho erabiliak, erdaratikako hitz berrietan ere hobe litzatekela uste dut *b* jartzea, Euskaltzaindiak berak egin duen bezala *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*-n (Ikus: EUSKERA, XX, 1975, Bilbao). Hona hemen, adibidez, hiztegi hortatik jaso dudan hitz mordoska bat: *abiadore, abioi, belodromo, benda, bitamina, bizio, boto, bozgorailu, zibil, adjetibo, nerbio, nibel, nobela, lokatibo, bolkan, bagoi, tranbia, dibisio*.

f-ren idatz arauak

«F, noski, ontzat hartzekoa da eta, erdaratikako hitzetan ez ezik (fede, faltso, etc.), baita ere bestelakoetan. Zuzenago dirudi, hain zuzen, *afari*, *alfer*, *Nafarroa* idazteak beste edozein idazkerak baino». (L. Mitxelena, *Ortografia*, XIII. EUSKERA'n, Bilbao, 1968, 205. orr.). Baina, gero gerokoak, oraingoz, hotsen hedadura kontutan harturik ta estuegiak izan gabe, *alfer* eta *alper*, *fraka* eta *praka*, *ifar* eta *ipar*, *ferratzaile* ta *perratzaile* ta hauen antzeko batzuk bietara onartu behar liratekela uste dut, espainolezko *gangrena* ta *cangrena*, *hierba* ta *yerba*, *mahonesa* ta *mayonesa* bezala.

Europako beste hizkuntza batzuen grafia harturik, *ph* digrama ere erabili izan da aspaldion *f*-ren hotsa adierazteko. Adibidez: *philosophia*, *photolithografia*, *photosynthesizatzaile* etab.

«Hitz horien itxuraz, ordea, bi iritzi dabilta gure artean: itxura hori, etorkizkoa alegia, gorde nahi lukete batzuek eginahalean, frantsesaren arabera edo, eta itxura aldatzea, xinpletzea, gogokoago dute bestek, gaztelaniaren arabera. Nik, egia esan, lehen bidea hartuko nuke arras ikasientzat ari bagina, baina ez da hori gertatzen. Xinpletasunera joko nuke areago, edo bide-erdira behintzat, *v*, *kh*, *th* (*psikhologia*, etc.), eta gisa horretako idazkerak baztertuaz. Horiek, noski, izen propioetan behintzat gorde behar lirake (orobat, *c*, *gu* eta antzekoak)» (L. Mitxelena, *Ortografia*, XIII. EUSKERA'n, Bilbao, 1968, 215. orr.).

Euskaltzaindiak ere xinpletasunera jo du eta *farmazia*, *alfabeta*, *fotogintza* etab., erabiliz, baztertu egin du *ph*. Ikus: *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*, EUSKERA, XX, 1975, Bilbao).

g-ren idatz arauak

Espainolak eta frantsesak *gue* eta *gui* erabiltzen dituzte oklusiba ozenaren hotsa adierazteko: *guerra*, *guía*, *guerre*, *guide*. Euskarak, ordea, *ge* eta *gi* erabili izan ohi

ditu: *gizon*, *gerri*, *agiri*, *agertu*, *gerra*, *gioi*, *Gernika*, *Gipuzkoa*, *Gerediaga*, *Gisasola*, *Egiluz*, *Ogeta* etab.

Erdaratik hartutako hitz zaharretan eta berrietan ere grafia berbera erabili izan ohi da euskaraz: *gidari*, *giñol*, *gitarra*, *gerla*, *gisa*, *ginda*, *geparde*, *drogeria*, etab. Izen berezietan *gue* eta *gui* ere erabiltzen dira: *Duguesclin*, *Guillaume*. Baina euskaraz, italieraz bezala (*guerra*, *guida*) edo espainolez *güe* ta *güi* bezala (*vergüenza*, *lingüística*), *gue* ta *gui* esatean *u* ere ahozkatzen denez gero, oztopobide bat izan daiteke *gue* eta *gui* erabiltzea. Eta, horregatik edo, *ge* ta *gi* erabiltzen da gehienetan izen propioetan ere: *Kirgizia*, *Gillermo*, *Ginea* etab.

Hala ere, aldakuntza bat egon da aspaldion erdaratik harturiko hitz berriak idaztean. «*logia* azken buruz dutenetan eta antzekoetan, *g* gordeko nuke, bakoitzak bere erara esan dezan: *jeologia*, etc., hobeak lirake beharriarentzat; ez, ordea, begientzat. Eta hizkuntza idatzia begiak jasotzen dute bestek baino lehenago» (L. Mitxelena, *Ortografia*, XIII. EUSKERA'n, 1968, Bilbao, 216. orr.).

Espainolez *je* ta *ji* ahozkatzen diren hitz arrunt berrietako *ge* ta *gi* horiek, ba, *ge* ta *gi* idazten dira euskaraz ere: *geologia*, *magistratu*, *kosmologia*, *gelatina*, *gerundio*, *agentzia*, *genitibo*, *filologia*, *geografia*, *geometria*, *gimnasia*, *higiene*, *liturgia*, *meningitis*, *oxigeno* etab. Baina *ebanjelio*, *birjina*, *imagina*, *jende*, *erlijio*, *farinje*, *sarjento* (*sarjant*), *jenereal*, *ijito*, *errejimendu*, *larinje* etab. Ikus: *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*, EUSKERA, XX, Bilbao, 1975.

Izen berezietan ere, jakina, *g* gorde ohi da: *Argentina*, *Niger*, *Genesis*, *Geyser*, *Orange*, *Gisbert*, *Gerona*, *Getafe*, *Origenes* etab.

h-ren idatz arauak

«H-ren hauzian, izan diren iritziak entzun ondoan, erdibide bat aukeratu da hasteko: alegia, begi onez ikusiko lukeala Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdin nahiz ezberdinen artean erabiltzen hastea.

Honek ez du esan nahi gorago jo nahi dutenen saioak ez direla ongi ikusiak izango» (*Literatura euskeraren batasunari buruz Euskaltzaindiaren agiria*, EUSKERA, XIII, Bilbao, 1968, 250. orr.).

Lehenengo ta behin, ba, bi bokal berdinen artean erabiltzen diren h-ak zeintzuk diren jakin behar dugu, erabili behar denean bakarrik erabiltzeko eta behar den lekuan jartzeko. Hain zuzen ere, gaizki legoke, esate baterako, *semehek*, *zorohok*, *atehetan* idaztea, deklinabidean ez delako erabiltzen.

Hona hemen, ba, bi bokal berdinen artean erabiltzen diren h-rik behinenak:

ahaide 'pariente'
ahal 'poder' (baina *ala* 'o' *hala(n)* 'asf')
ahalke 'vergüenza'
ahari 'carnero' (baina *ari* (izan) 'estar ocupado en, andar'; *hari* 'hilo' eta a 'aquel')
ahardi 'cerda' (baina *ardi* 'oveja' eta 'pulga')
aharrausi 'bostezo'
ahaztu (*ahantzi*) 'olvidar' (baina *aztu* 'adivino')
lahar 'zarza' (baina *lar* 'demasiado'; *larra* (*larre*) 'pastizal')
mahai 'mesa'
mahats 'uva'
nahastu (*nahasi*) 'mezclar, revolver'
sahats 'sauce' (baina *sats* 'estíercol')
zahagi (*zaragi*) 'odre'
zahar 'viejo' (*zahartu* 'envejecerse', baina *sartu* 'meter')
behe 'parte baja' (*beheratu* 'bajar, humillarse', baina *beratu* 'ablandar, poner a remojo')
lehen 'antes, anterior'
leher 'reventón'
mehe 'delgado, fino'
zehe (*xehe*) 'desmenuzado'
ihi 'junco' (baina *hi* 'tú')
ihintz 'rocío'
ihizi 'bestia, caza' (baina *izi* 'espanto')
mih(i)n 'lengua' (baina *min* 'dolor')
ohol 'tabla' (baina *ola* 'ferrería, fábrica')

ohore 'honor, honra' (baina *ore* 'masa')
zuhur 'prudente, despejado, atento' (baina *zur* 'madera'; *sudur* (B. *sur*) 'nariz')

Hitz eratorrietan ere, jakina, *h* erabiltzen da bi bokal berdinen artean. Adibidez: *ahaidetasun*, *ahalegin*, *ahaztuor*, *mahaikide*, *mahasti*, *nahastatzaile*, *beherantz*, *lehenbizi*, *lehenengo*, *zehatu*, *zuhurtasun*, *lehertu*, *ahalmen* etab. (3)†

Bigarren, ikus ditzagun bi bokal ezberdinen artean erabili ohi diren h-rik behinenak. Hona hemen:

bahe 'cedazo'
ahi 'papilla' (baina *ai!* '¡ay!')
ahitu 'agotar'
ahizpa (*ahizta*) 'hermana de mujer'
bahi 'prenda, empeño, hipoteca' (baina *bai* 'sí')
nahi 'deseo'
nahiz 'aunque' (baina *naiz* 'soy')
zahi 'salbado' (baina *zai(n)* 'esperando, cuidando'; *sai* 'buitre')
aho 'boca'
ahotz 'cascabillo' (baina *ahots* 'voz')
ahuntz 'cabra'
ahul 'débil'
ahur 'palma de la mano' (baina *haur* 'niño')
mahuka 'manga' (baina *mauka-mauka* 'a dos carrillos')
xahu 'limpio, aseado'
behar 'necesidad'
beharri (*belarri*) 'oreja'
behatz 'dedo'
behazun 'hiel'
mehar 'estrecho, ajustado'
sehaska 'cuna'
zehir 'por, a través de'
zeharo 'totalmente'
zehatz 'detalladamente, exactamente, totalmente'
behi 'vaca'
behin 'una vez'

(3) Hitz elkaartuetan, egiazki elkartuak eta aski zaharrak baldi badira ez da aspiraziorik egiten bigarren silaba baino aurrerago.

leiho 'ventana'
lehiatu 'empeñarse'
sehi 'siervo, criado' (baina *sei* 'seis')
eho 'moler'
behor 'yegua'
ehortzi 'enterrar'
lehoi 'león'
lehor 'seco'
ehun 'cien' eta 'lienzo' (baina *egun* 'día, hoy')
bihar 'mañana'
giharra (*giharre*) 'magro'
ihar 'seco, yerto' (baina *ilar* (*idar*) 'guisante')
ihardetsi 'replicar'
ihardun (*jardun*) 'ocuparse en, conservación'
ihaute (*ihauteri*) 'carnaval'
aihen 'sarmiento' (baina *aiene* 'lamento')
ihes 'huída' (baina *ihaz* (*iaz*) 'el año pasado')
bihotz 'corazón'
bihur 'retorcido, perverso'
bihurri 'rebelde'
mihura 'muérdago'
dohai (*dohe*) 'don'
ohar 'advertencia, nota'
ohe 'cama'
lehia 'prisa, afán'
lohi 'sucio, manchado'
ohi 'costumbre' (baina *oi!* '¡huy!')
zohi 'maduro' (baina *zoi* 'tepe, césped')
oihal 'pañó'
oihan 'bosque, selva'
oihartzun 'eco'
oihu 'grito'
uhal 'correa'
zuhaitz 'árbol'
suhi(n) 'yerno'
uholde 'inundación, dilubio'

Hitz eratorri batzuk: *eginbehar*, *behaztopa*, *haurgintza*, *zehaztugabe*, *ahoz-aho*, *zeharka*, *basabehi*, *behingoan*, *behintzat*, *lehorte*, *berrehun*, *biharamon*, *giharratsu*, *bihozkada*, *bihurgune*, *oharkabe*, *lohikeria*, *ohitura*, *suhi*(n) *gai* etab.

Hitz hastean ere, hirugarrenik, erabili ohi da *h*. Hona hemen zein hitzetan erabiltzen den:

a) Lehenengo ta behin, *hau*, *hori*, *hura* (*ha*), *honek*, *horrek* eta *hark* izenordeak eta hauetatik eratorritako hitz guztietan: *haatik*, *haugatik*, *h aiei*, *harengana*, *horiak*, *hauek*, *horregatik*, *hari*, *honi*, *horri*, *heuren*, *honentzat*, *hartaz*, *honen-gaino* etab.

b) *hemen*, *hor* eta *han* adizlagunak eta hauetatik eratorritako hitz guztietan: *hona*, *horra*, *hara*, *hemendik*, *hortik*, *handik*, *honaino*, *horraino*, *haraino*, *honantz*, *harantz* etab.

d) *hiru*, *hamar* eta *hoge* zenbakiak eta hauetatik eratorritako hitz guztietan: *hirurogei*, *hirurehun*, *hamaika*, *hamabi*, *hamahiru*, *hamalua*, *hamabost*, *hamasei*, *hamazazpi*, *hamazortzi*, *hemeretzi*, *hogeitabost*, (*hoge* ta *bost*), *hogeitamaika* (*hoge* ta *hamaika*) etab.

heren 'tercio, tercero' eta beronen deribatuak ere *h* dute hasieran: *herenegun* 'anteayer', *herensuge* 'dragón', *herengusu* 'primo tercero' etab.

dd) Gainera, beste hitz hauek ere *h* dute hasieran:
habaila 'honda'
habia (kabia) 'nido'
haga 'palo largo'
hagin 'diente' (baina *agin* 'agindu aditzaren sustrai infinitiboa')
hain 'tan' (baina *aina* 'tanto como')
haitz 'roca'
haize 'viento' (baina *aize* (*aisa*) 'fácil')
hartz 'aliso'
hats 'aliento, hedor'
hatz 'dedo'
hatzazal 'uña'
hamu 'anzuelo'
handi 'grande'
hanka 'pierna'
har 'gusano' (baina *ar* 'macho')
haragi 'carne'
haran 'valle' (baina *aran* 'ciruela')
hari 'hilo' (baina *ahari* 'carnero')

haro 'tempero, época'
harri 'piedra'
harro 'orgulloso' (baina *arro* 'cuenca'; *arroa* 'arroba')
hartu 'tomar'
hartz 'oso'
haserre 'enfado'
hasi 'comenzar'
hazi 'crecer, semilla'
haur 'niño' (baina *ahur* 'palma de la mano')
hausnar 'rumiando'
hautatu 'elegir'
hauts 'polvo'
hautsi 'romper'
hauzi 'pleito'
hauzo 'vencio, vecindad'
hebaïndu 'decaer, golpear'
hedatu 'extender'
hede 'correa'
hegal 'borde, ala'
hegazti 'ave'
hego 'ala, sur'
heldu 'llegar, madurar, agarrar'
herdoil 'herrumbre'
heriotza 'muerte'
herri 'pueblo'
hertsi 'estrecho, apretado'
hesi 'seto, valla'
heze 'húmedo, verde'
hezi 'adiestrar, domesticar, educar' (baina *hesi* 'seto, valla')
hezur 'hueso'
hi 'tú' (baina *ihi* 'junco')
hibai 'río'
higitu 'mover'
higuin 'repugnancia'
hil 'morir, matar, mes'
hildo 'surco'
hiri (*huri*) 'villa, ciudad'
hitz 'palabra' (baina *hits* 'triste, pálido')
hobe 'mejor'
hobi 'fosa, sepulcro'
hodei 'nube'

hondar (*hondakin*) 'residuo'
hondo 'fondo' (baina *ondo* 'bien')
hontz (*gauhontz*) 'buhó'
hordi 'borracho'
horma 'hielo' (baina *orma* 'pared')
hornitu 'proveer, completar'
hortz 'diente'
hosto 'hoja pequeña'
hots 'sonido, ruido, es decir'
hotz 'frío' (*hoztu* 'enfriar', baina *ahostu* 'robar')
hur (*hurbil*) 'cerca' (baina *ur* 'agua, avellana')
huts 'vacío'

Zerrenda hortan jarri ditugun hitzetatik deribatuak ere, jakina, *h*-az idatzi behar dira. adibidez: *hazila*, *heziketa*, *haustu*, *higidura*, *higuingarri*, *hobakuntza*, *hibabide*, *hirugarren*, *hegaztilari*, *hatzazal*, *hasiera*, *handiki* etab. Baina, deklinabideko atzizkiekin gertatzen den antzera, hitz konposatueta galdu egiten dute hasierako *h* hori bigarren hitza denean *h*-duna eta lehenengoa kontsonantez bukatzen denean (edo elkartzean azken bokala galtzen duenean), Adibidez: *larrogei* (*laroegi*), *hogeitamar* (baina *hoge* *ta hamar*), *arnasots*, *zahartzar*, *hilobi*, *bizkarrezur*, *ifarraize* (baina *hegohaize*, *sorgin-haize*), *giltzarri*, *mugarri* (*zedarri*), *gurtede*, *aberri*, *bostortzeko*,

Eta, azkenik, kasurik behinenak bakarrik gogotan hartuta, *h*-ren arazoa norainokoa den ikus dezagun, *h*-az idazten dira:

a) hikako aditz laguntzaile batuko forma batzuk: *haiz*, *hau*, *hintzen*, *hindudan*, *huen*, *hadi*, *haiteke*, *hinteke*, *hakion*, *bahu*, *bahindu*, *bahintz* etab. Ikus: *Aditz laguntzaile batua*, EUSKERA, XVIII, Bilbao, 1973.

b) erderatiko hitz berriak (erdaraz *h*-az idazten direnean, jakina): *alkohol*, *hektometro*, *helikoptero*, *higiene*, *Hawai*, *Dahomey*, *Sahara*, *Hoffmann* etab.

j-ren idatz arauak.

«J idatzi behar dugu, noski, beti bezala, oraingoz nork bere moldera ebakitzen duela: *jakin*, *jende*, *jo*, etc.

Halaber *birjina, ebanjelio*, etc.» (L. Mitxelena, *ortografia*, XIII. EUSKERAN, Bilbao, 1968, 208. orr.).

Hitz hasierako edo barneko *y-ren* edo *j-ten* hotsa adierazteko erabiltzen da, ba, lehenengo ta bat, *j*, hau da, bizkaitarren «yoan» edo gipuzkoarren «joan» adierazteko. Adibidez: *jabe, birjorra, judizio, jakin, jende, jo, joko, jaka, josi, jolas, jan, birjaio, Jabier, Jainzurria, Jurgi, Joseba, Josu* etab. Baina *yate, yoga, yeista, yod* etab., erderatikako hitz berrietan.

Bigarren, espainolezko *ge* eta *gi-ren* hots berdina duten erderatikako euskal hitz zaharretan: *ebanjelio, birjina, imajina, erlijio, ijito, jeinu, jela, jeneral, sarjento, errejimendu, jenero, jentil, jira, jirabira, kalejira, aje, jipoi, justu, Joxe, Justo, Anjel* etab. Baina hitz berrietan *g* erabiltzen da: *oxigeno, gimnasia, agentzia, liturgia, kosmologia* etab. Ikus: *g-ren* idatz arauak.

«Antzinako hotsa *x* denean (antzinako Euskalerrri osoan eta egungoa hainitz eskualdetan), *x-i* lotu behar gatzazkio, batasunera bagoaz: *axola, ez ajola*, etc. Adibidez: *laxatu, faxa | faxa, balixa, baxura, Xabier, Xemein* etab.

Eta, hirugarren, erdaraz *j* grafemaz idazten diren erderatikako hitz berrietan ere *j* erabiltzen da: *garaje, fuselaje, jauja, jefe, jubilatatu, Jung, Johnson, jirafa, jornal, Jamaika, Japon, Jespersen* etab. Baina erdaraz *-aje-z* amaitzen direnetan alternantzia bat dago: *burdinaje | burdinaia, zuraje | zuraia, pertsonaje | pertsonaia, fuselaje | fuselaia* etab.

k-ren idatz arauak

Erdaratik hartutako izen berezi batzutan izan ezik *k* grafema erabiltzen da beti euskaraz *|k|* fonemaren adigarritzat (espainolez *c, g*, eta *k* erabiltzen dira: *casa, queso,uitar, kilometro, color, cubo*). Adibidez: *kale, kendu, okertu, bildoski, kokolo, ikutu* etab.

Esan dugunez, ba, erderatikako izen arruntetan ere, zaharretan eta berrietan, *k* erabiltzen da: *praktikotasun, kolore, kasu, kablegrama, kontinente, parkatu, bake, katarro, klima, kintal, karrusel, kartoi, kirofano, kirurgia*,

karta, kono, konklusio, koronel, teknika, kilo, krausista, kimono, kirie, kantismo, kubo etab.

Izen berezietan, ordea, berezkuntza batzuk egin beharra dugu:

a) Erdaraz *k* grafemaz idazten direnak *k* grafemaz idazten dira euskaraz ere: *Kaaba, Sikoku, Kafka, Turkia, Kalahari, Kamchatka, Kominform, Kant, Klosteneuburg, Sikang, Kansas, Kierkegaard, Hong-Kong* etab.

b) Erdaraz *c* edo *q* grafemaz idazten diren pertsona izenak, abizenak, ezizenak eta kontinenteen izenak *k* grafemaz idazten dira euskaraz, aspaldidanik erabiliak badira: *Fakundo, Joakin, Katalin, Kosme, Kandido, Akilino, Ziriako, Eskolastika, Klaudio, Polikarpo, Eutikio, Frantzisko, Kitolis, Kintana, Akinoko Tomas, Kanpo, Afrika, Amerika ta abar.*

d) Atzerriko estatuen eta lurraldeen izenetan ere *k* grafema erabiltzen da gahienetan. Hain zuzen ere, «C-ren ordezkari erabiltzeak, alemanieraz aurreko bat badienez gero, hitzen irudia hainbeste alda dezakeenik ez dut uste» (X. Mendiguren, *Estatu izenak*, XX, EUSKERAN, Bilbao, 1975, 373. orr.). Adibidez: *Korea, Monako, Mexiko, Kanada, Kuba, Jamaika, Belgika, Martinika, Ekuador, Mozambike, Kamerun, Katalunia, Yukatan, Dominikar Errepublika* etab.

dd) Euskaraz gutxitan erabiliak izan diren erderatikako izen berezietan, ordea, *c* eta *q* ere erabiltzen dira: *Camoens, Calvo Sotelo, Quebec, Caravaggio, Quesney, Giacomo, Quincey, Cánovas del Castillo* etab.

l-ren idatz arauak

«Direlako hots bustiez, hau esan diteke: arras leku gutxi gelditzen zaiela, daramagun bidetik bagoaz. Bata-sunerako onenik, bide honi deritzat:

a) idatz dezagun, gutxienez, *ñ* eta *ill*, *ñ* eta *ll*-ren ordezkari, hitz adierazkor (*expressif*) horietakoak ez baldin badira, behintzat (*-ño* atzizkia daramatenak eta): *baiña*,

baño, oillo, etc., ez *baña, baño* eta *ollo*. Hitz azkenean, gainera, beti *-in, -il*: *gain, zail*.

b) Hobe, ordea, *il, in* idaztea soil-soilik, aski bait hitzake hori edozein ohar dedin *i* hori dela medio, bere euskalkian, hurrengo *l* ta *n* bustiak direla: giputzen artean, esaterako, *ibili, baina, gainetik, laino, min-ondo* idazten dena *ibilli, baiña, gainetik, laiño* (edota *baña, gañetik, laño, miñondo*) irakurri ohi dela» (L. Mitxelena, *Ortografia*, XIII. EUSKERAn, Bilbao, 1968, 208. orr.).

Adierazkorrak direnean bakarrik idatziko dira, ba, *ll*-az hots bustiak (palatalizatuak); bestelan, *l*-az beti. Labur esanda, hitz hastean, hitz barnean edo hitz azkenean *il* daramaten hitzak *l*-az idazten dira. Adibidez: *egile, musikagile, zapaltzaile, zabaltzaile, ibili, hilabete, hileta, hilobi, mailu, oilo, koilara | koilare, mutil, neskatila, trankil, habil, hil, soil, zail, sail(a), maila, azpil, akuilu (akulu), barrabil, biribil, bonbil(a), biluzik, jostailu, urtaril, doilor, mordoilo, motroilo, herdoil, erabili, habaila, fusil, fraile, gatilu (katilu), artile, iloba, ilun, isil, istil, kamamila, korapilo, kriseilu, kukula, lilura, makila, opil, zibil, ailegatu, gurpil, entzungailu, automobil, pilotu, proiektil, bilera, zurrunbilo, lore-zil, eskilara, adreilu, igogailu, gasoil, hurbil, moldatzaile, ortopedigailu* etab. Ikus Euskaltzaindiak egindako *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*.

Erderatikako hitzetan hiru berezkuntza egin behar ditugu:

a) Lehenengo ta behin, erderaz *ll*-az idazten diren hitzak ere *il* daramate euskaraz. Adibidez: *desarroilatu, metrailleta, mitrailusa (ametrailadora), kinkiladenda, punpuila, seilu, pantaila, milioi, detaile, bilioi, gaileta, dontzeila, baitaila* etab.

b) Hala ere, oraingoz, batez ere erderaz *ill* daramaten hitzak euskaraz jartzean, *ll* ere erabiltzen da: *artilleria, pastilla, bulla, tortilla, llama* (animalia), *kartilla, karretilla, paella* etab.

d) Erderatiko izen berezietan eta baita euskarazkoetan ere erabiltzen da *ll*: *Melilla, Llobregat, Valladolid, Mallabia, Apellaniz, Gallarta, Zamalloa, Zalla* etab.

Azkenez, ohar bezala, gure herria ere yeista bihurtzeko arriskuan dagoelarik, ba du bere garrantzia Mitxelena esanak, adierazkorrak ez diren hots buztiak *l*-az idazteko proposamenduak. Hain zuzen ere, mutiko ta neskato askok (euskaldunek, jakina) *mutiya, oyoa, iyuna* ta horrelakoak esaten dituztenez, hizkuntzaren osotasun ta batasunerako hobe da *mutila, oiloa, iluna* idaztea ta esatea.

m-ren idatz atauak

b ta *p*-ren aurretik ez da *m*-rik erabiltzen euskaraz, *n* baizik: *enbata, enbido, ganbara, gainbide, hainbat, hainbeste, txinbera, bonbila, enbrioi, zenbaki, denbora, minbera, Anboto, Kanbo, Zenborain, konpainia, kampo, konpondu, enpate, enperadore, inprimatzaile*, etab.

Hala ere, erdaratikako izen berezietan *m* ere erabiltzen da: *Ampere, Zambia* etab.

Hitz azkenean ere ez da erabiltzen *m*-rik euskaraz. Baina erdaratikako hitzetan bai: *album, ibidem, Adam, Grimm* etab.

n-ren idatz arauak

Adierazkorrak diren hots bustiak (palatalizatuak) bakarrik idatziko dira *ñ*-az (ikus *l*-ri buruz jarritako idatz arauak); gainerakoak, *n*-az beti; hau da, hitz has-tean, barnean edo azkenean *in* daramaten hitzak *n*-az idazten dira. Adibidez: *urdin, zain, ahalegin, burdina, ekin, egin, berdin, bezain, bikain, birjina, desegin, muino, lurrin, leinu, larrain, la(i)no, labain(a), keinu, koinatu, ipini, inurri, irin, imajina, erein, erregina, eskaini, hagin, ezin, ezpain, gaztaina, gordin, higuin, behin, baina, baino, arin, apain, aitzin, aina, ordain, gain, min, adin* etab.

Erderatikako hitzetan berezkuntza batzuk egin behar ditugu:

a) Lehenengo ta behin, erdaraz *ñ*-az idazten diren hitzak ere *in* daramate euskaraz: *bainu, koinak, maina*,

kainoi, batailoi, moko-painelu, konpainia, Espainia, seinale, eztainu etab.

b) Hala ere, oraingoz, batez ere erdaraz *ñ* dararmaten hitzak euskaraz jartzean, *ñ* ere erabiltzen da: *piña* (fruta), *morriña, maño, ñoñeria* etab.

d) Erdaratikako izan berezietan eta euskarazkoe-tan ere erabiltzen da *ñ*: *Mañaria, Azaña, Añorga, Ibañez, Iñaki, Riaño* etab.

ñ-ren idatz arauak

Hitz bati diminutiboko *-ño* morfema ezartzen zaio-nean erabiltzen da, lehenengo ta behin, *ñ* grafema. Adibidez: *iturriño, maitiño, andereño* (ez *andereino*), *bakarño, (t)xoriño* etab.

Bigarren, hitz adierazkorretan erabiltzen da, hau da, maitasunezko goxotasun edo xamurtasun amoltsu bat adierazi nahi denean, txikigarri, aringarri bezala. Expresio baliabide bat dugu, ba, bustidura hau. Adibidez: *ñimino* (nimiño), *ñabar* (nabar), *Iñazio* (Inazio), *Pauliña* (Paulina) etab.

Eta, azkenez, lehen aipatu ditugun erdaratikako hitz berri batzutan. Ikus *n*-ri buruz jarritako idatz arauak.

r-ren idatz arauak

Hitz barneko bi bokalen artean *r* grafema erabiltzen da */r/* fonemaren adigarritzat, hau da, hots xamurrez esaten denarentzat: *astiro, aukera, orain, landare, lore, buru, zoro, hiri, bere, gara, arazo* etab.

Hots gogorrez esaten den */rr/* fonemaren adigarritzat ere *r* grafema erabiltzen da bi bokalen erdian ez doanetan: *radar, rito, ruso, aker, lepra, kirkir, presa, broma, treta, drama, kraskada, gramu, sudur, eder, fruitu, obra, tronu, tornu, driblatu, okre, grazia, zifra, praxis, arpa, arbola, arku, zahar* etab.

Hitz amaieran *r* duten hitzik gehienek bikoiztu egiten dute *r* hori deklinabideko atzizki bat ezartzean, bi bokalen erdian doazen *rr* gogorrek direlako orduan (ikus *rr*-ren idatz arauak). Adibidez: *zahar*, baina *zaharra, zaharraren...*; *alper*, baina *alperrarentzat, alperrarena...*; *lur* baina *lurrari, lurrerako...*, etab. Hala ere, hitz batzuek ez dute bikoizketa lege hori betetzen: *ur* | *ura* 'el agua', *zer* | *zera*, *paper* | *papera*, *plater* | *platera* | *zur* | *zura* 'la madera', *nor* | *nora*, *ber* (aurrizkia) | *bera*, *ezer* | *ezerez* etab. Erdaratikako *-or* morfemaz bukatzen diren hitzetan ere jokera berdina nabari da: *eskultore, traidore, erradiadore, bapore, pintore* etab.

s-ren idatz arauak

«*Z* | *s* (*tz* | *ts*) bereizten ez dakitenek besterengandik ikasi behar dute, idazteko behintzat, berezikuntza zuzena» (L. Mitxelena, Ortografia, XIII. EUSKERAN, Bilbao, 1968, 206. orr.).

Hona hemen, ba, *s* moiz idatzi jakiteko argibide batzuk:

a) Euskarazko hitz zaharretan, gutxi dira hasieran *s* daramatenak. Hara behinenez zerrenda:

sabai 'techo, pajar'
sabel 'vientre, seno'
sagar 'manzana'
sagara 'consagración'
sagu 'ratón'
sahats 'sauce'
sai 'buitre' (baina *zai(n)* 'esperando')
saiatu 'intentar, esforzarse'
saihets 'costilla, lado, flanco'
sail(a) 'grupo, sección' (baina *zail* 'difícil')
saindu (santu) 'santo' (baina *zaindu* 'cuidar')
saio 'ensayo' (baina eman *zaiio* 'se le da dado')
sakabanatu 'esparcir, diseminar'
sakatu 'empujar, oprimir'
sakadiz 'en chancletas'
sakel(a) 'bolsillo'

sakon 'profundo, hondo'
sakramentu 'sacramento'
salatu 'denunciar, delatar, acusar'
salbuespen 'excepción, salvedad'
salda 'caldo'
saldu 'vender, traicionar'
saltsa 'salsa, jaleo'
sama 'cuello' (baina *zama* 'carga')
samar 'un poco, mota' (baina *zamar* 'vedija, pellico, frontal')
samin 'amargo'
samur 'tierno'
sapa 'frontal de los bueyes, hoja de mazorca'
sapaxto 'persona de pelo desgrefiado'
sarda (*sarde*) 'horquilla'
sare (*sara*) 'red'
sari 'premio, pago'
sargori 'bochorno'
sartu 'entrar, meter' (baina *zahartu* 'envejecer')
sarraila 'cerraña'
sarraski 'matanza, cadáver'
sarreira 'entrada'
sarri 'frecuentemente, enseguida'
sasi 'zarza, matorral, pseudo'
saski 'cesta'
saskil (*saskel*) 'persona sucia, desaseada'
sasoi 'época, sazón, edad'
sastada 'puñalada, punzada'
sastar 'basura, desperdicios'
sator 'topo'
sats 'estiercol'
sega 'guadaña'
sehaska 'cuna'
sei 'seis'
sein 'niño, infante' (baina *zein* 'cual')
sekula 'nunca, siempre'
seme 'hijo'
sen 'instinto, cordura, juicio' (baina *zen* 'era (verbo)')
senar 'marido'
sendo 'fuerte, grueso, mucho' (baina *zindo* 'sano')
senide 'pariente'
serora 'sacristana, ama del cura'

seta 'obstinación, porfía' (baina *zeta* 'zeda (letra)')
simaur 'abono, estiércol'
sinestu (*sinetsi*) 'creer' (baina *zineztu* 'jurar')
sits 'polilla'
so 'mirada'
sobera 'demasiado'
soil 'raso, puro, pelado'
soin 'cuerpo'
solas 'conversación, charla'
solomo 'lomo de cerdo', 'solomillo'
somatu 'observar, olfatear, sospechar'
sor 'torpe, indolente' (baina *zor* 'deuda')
sorbalda 'hombro'
sorgin 'bruja' (baina *zurgin* 'carpintero')
sorki 'rodete que se pone en la cabeza para llevar pesos'
soero (*solo*) 'heredad' (baina *zoro* 'loco')
sorta 'ramillete'
sortu 'concebir, crear, entorpecerse'
sos 'dinero'
su 'fuego' (baina *zu* 'tu')
sudur 'nariz'
suete (*sukalde*) 'cocina'
sugandila (*sugelandara*) 'lagartija'
suge 'culebra, serpiente'
subi (n) 'yerno'
sumatu 'barruntar, sumar'
sumin 'furor'
sunda 'olor'
suntsitu 'desaparecer, disipar'
susara 'celo de la vaca'
sustrai (*suster*) 'raíz'
sutegi 'fragua'
suzi 'tea'

Erdaratikako hitz zaharretan hasierako *s* hori *z* bilakatu izan ohi da gehienetan: *zapore*, *zapaburu*, *zapo* (apo), *zartagina*, *zerbitzari*, *zigilatu*, *zaku*, *zopa* etab. Baina hitz berrietan erdaraz bezala idazten da: *safari*, *salbatu*, *sandalia*, *sarjento*, *semantika*, *sodio*, *soldadu*, *sotana* etab.

b) Gutxiagotan erabili izan ohi da *s* oraindik hitz azkenean. Lehenengo ta behin, aditz batzuren *sustrai*

infinitiboetan: *ikas, ikus, irakas, erakus, has, egos, eros* etab. Eta, gainera, hitz banakaren batzutan: *arras, babes, baldres, deus, erromes, esames, ihes, jolas, kontrapas, lanabes, mus, nahas-mahas, solas, sos* etab. Erdaratikako hitz berrietan ere bai, jakina: *ekis, partxis, krisis, otitis* etab.

d) Azkenez, sarriagotan erabili ohi da *s* hitz barnean. Hona hemen noiz erabiltzen den:

1) Aurrizki ta atzizki batzuk ta hauen bitartez sorturiko hitzak *s*-az idazten dira beti-*des-*, *sasi-*, *-ska*, *-sko*, *-sto*, *-tasun*, *desberdin*, *desegin*, *desitxuratu*, *desohitu*, *desegoki*, *desbidetu*, *deskristautu*, *mordoska*, *bideska*, *mendiska*, *gorriska* | *gorrista*, *horiska* | *horista*, *zuriska* | *zurista*, *i(d)isko*, *oilasko*, *maitasun*, *anaitasun*, *berezkotasun*, *naturaltasun*, *prektikotasun*, *ofizialtasun*, *sasimaisu*, *sasiasmatzaile* etab.

2) Eta, gainera, hurrengo doazen hitzok:

adiskide 'amigo'
aharrausi 'bostezo'
aisa 'fácil' (baina *haiza* (tu) 'aventar')
arkakuso 'pulga'
arrakasta 'éxito'
arrisku 'riesgo' (baina *harrizko* 'pétreo')
arrosa (*larrosa*) (baina *arroza* 'el arroz')
asaldatu 'rebelarse' (baina *azaldu* 'explicar')
aska 'pesebre, abrevadero' (baina *hazka* 'rascándose')
askatu 'soltar, librar'
askatasun 'libertad'
aski 'bastante, suficiente'
asko 'mucho'
asmo 'intención, propósito, proyecto, idea'
asmu 'ingenio, maquinación'
ase (tu) 'saciarse, empaparse'
aspaldi 'hace tiempo'
aspertu 'aburrirse'
aste 'semana'
asti 'tiempo libre' (baina *azti* 'adivino, brujo')
asto 'burro'
astun 'pesado'
ausartu 'atreverse'
baso 'monte, bosque, vaso'

baserri 'aldea, caserío'
beso 'brazo'
beste (bertze) 'otro'
busti 'mojar' (baina *buztin* 'arcilla')
dastatu, *probar*, *gustar*
distira 'destello, brillo'
egosi 'cocer'
eresi 'elegia'
erosi 'comprar'
esan (erran) 'decir' (baina *izan* 'ser, tener')
eseri (*jezarri*) 'sentarse' (baina *azeri* 'zorro')
eskaini 'ofrecer'
eskola 'escuela'
esku 'mano'
eskui (n) (*eskuma*) 'mano derecha'
esker 'gracia' (baina *ezker* 'izquierda')
esne 'leche'
estali (*estaldu*) 'cubrir, ocultar'
este 'intestino'
euskara 'vascuence'
garesti 'caro'
garrasi 'grito'
gisa 'manera'
gorosti 'acebo'
gosari 'desayuno'
gose 'hambre'
guraso 'padre, madre'
haserre 'enfado'
hasi 'comenzar' (baina *hazi* 'crecer, semilla')
hausnar 'rumiando'
hauteskunde 'elección'
hesi 'seto, valla' (baina *hezi* 'educar, adiestrar')
hosto 'hoja'
ikasi 'aprender'
ikastola 'escuela vasca'
ikusi 'ver' (baina *iku* 'lavar')
isiltasun 'silencio'
istil 'charco'
isuri 'derramar'
itsaso 'mar'
itsatsi 'adherir'
itsusi 'feo'

jasan 'aguantar'
jaso 'levantar' (baina *jazo* 'suceder')
josi 'coser'
jostatu 'jugar'
jostailu 'juguete'
kaskar 'cráneo, pequeñajo'
kiskali (*kiskaldu*) 'abrasar'
koska 'muesca, mella'
kraskatu 'quebrar'
kriseilu 'candil, lamparilla'
kuluska 'cabezada de sueño'
laster 'pronto'
lasai (*nasai*) 'tranquilo, cómodo'
lasto 'paja, paja de maíz'
lehengusu 'primo'
lehengusina 'prima'
musker 'lagarto'
musu (*mosu*) 'beso, rostro, labio'
nagusi 'superior, amo, jefe'
neska 'chica, moza'
osaba 'tío'
osin 'pozo'
oso 'entero'
ospel 'sabañón'
ostatu 'posada'
ostegun 'jueves'
ostiral(e) 'viernes'
ostiko 'patada'
pospolin (*galeper*), codorniz'
puska 'pedazo' (baina *pizka* 'poco')
tolestu 'plegar'
tresna 'utensilio, trabajo de cocina'
uso 'paloma'
uste 'creencia'
ustel 'podrido' (baina *eztul* 'tos')
usai(n) 'olor'

Erdaratik hartutako hitz zaharretan, hitz hasierako *s* soila, «s líquida», *es*, *iz* bihurtu da euskaraz: *scholam* eskola; *spiritum* *izpiritu*; *stuppam* *iztupa* etab.

Gaur *es* bilakatzen da gehienetan: *estandar*, *esprinatatu*, *esnobismo*, *eslogan*, *espeleologia*, *espermatozoide*, *esfera*,

espora, *estalaktita*, *estereo*, *estrategia* etab. Baina hitz teknikoetan eta berezietan *s* soila ere erabiltzen da: *Smith*, *Stanley*, *stop*, *stand* etab.

x-ren idatz arauak

/S/ fonemaren adigarritzat erabiltzen dugu *x* grafema, alemanez *sch*, frantsesez *ch* ta inglesezt *sh* erabiltzen diren bezala.

-*xe* atzikia daramaten hitzetan erabiltzen da lehenengo ta bat: *hauxe*, *horixe*, *berehalaxe*, *horrelaxe*, *halaxe*, *halakoxe*, *aitaxe*, *amaxe* etab. Baina *oraintxe*, *hementxe*, *hortxe*, *hantxe*, *orduantxe*.

Bigarren, adierazkorak diren hitzetan ere erabiltzen da *s*, *z*, *tz* eta *tx*-ren ordez, hau da, *s*, *z*, *tz* eta *tx*-ren bustidura adierazteko (ikus *ñ*-ren idatz arauetan hots busti adierazkorrez jarritakoa). Adibidez: *xamar* (samar), *xamur* (samur), *xoxa* (sosa), *xirimiri* (zirimiri), *xoxo* (zozo), *goxo* (gozo), *xintxo* (zintzo), *xapel* (txapel), *Joxe* (Jose) etab.

Hirugarren, *j*-ren arauetan esandakoa gogora dezagun, hau da, antzinako hotsa *x* denean, *x* honi lotu behar gatzazkiola batasunera bagoaz. Adibidez: *axola*, *laxatu*, *paxa* | *faxa*, *balixa*, *exenplu*, *baxura*, *xaboi*, *Xabier*, *Xemein* etab.

Erdaratikako hitz berrietan, hitz berri teknikoetan eta berezietan batez ere, espainolezko *x*-ek (*ekis*-ek) duen hotsa adierazteko ere erabiltzen da; *oxigeno*, *sexualtasun*, *exodo*, *extasis*, *praxis*, *extraofizialtasun*, *xenofobia*, *lexema*, *Alexandre*, *Zeuxis* etab.

z-ren idatz arauak

Baturako aditz laguntzaileetan, lehenengo ta behin, beti erabiltzen da *z*. Adibidez: *naiz*, *haiz*, *zara*, *zarete*, *gaitezen*, *zaitetze*, *bazina*, *bitez*, *zaitetz*, *zaitzue*, *zakizkidan*, *duzue*, *gaitzue*, *nazazuen*, *dizu*, *diezaitzuen*, *ziezaien* etab.



ez-, ezin-, -ez, (e)z, -erazi (-arazi), -ezia, -kizun, -zain, -zale eta -zio hizkien bitartez sorturiko hitzak ere z daramate beti. Adibidez: *ezbehar, ezjakin, ezordu, ezohitu, ezizen, ezinbestez, ezinegon, ezinikusi, ezerez, ondoez, gauzaez, buruz, oinez, harrizko, negarrez, adierazi, sarrerazi, kantarazi, ahulezia, malezia, baliakizun, etorkizun, ezinkizun, atezain, artxibozain, aduanazain, ezizale, esnezale, neskazale, amorrazio, burutazio* etab.

Gainera, z daramate hurrengo doazen hitzok ere: *bazkari, aza, azal, biluztu, bizi, bizar, buztan, buztin, emazte, ezarri, ezker* 'mano izquierda (baina *esker* 'gracia'), *ezkondu, ezkur, ezpain, eztarri, eztei, ezten, ezti, eztul, gazi, gazta (gazna), gauza, gazte, geriza, gezur, gizen, gizon, gozo, hauzo, hezur, irabazi, izan* 'sex' (baina *esan* 'decir'), *izar, izen, izeba, izorra, izotz, izpi, izter, izurri, lizar, maiz, orrazi, ozen, uzta, uztarri (buztarri), zahar, zabal, zabar, zabor(ra), zail, zain, zakar, zakur, zaldar, zaldi, zale, zama* 'carga' (baina *sama* 'cuello'), *zango, zati, zauri, zazpi, zehar, zehatz, zehatu, zeken, zekor, zelai, zerga, zerri, zerraldo, zezen, zidor, zigor, zikin, zilar, zimel, ziraun, zital, zoko, zor, zori, zoro, zorri, zorro, zorrotz, zoritzi, zotin, zotz, zozo, zuhaitz, zubi, zulo, zume, zuri, zurrun, zurrunga, zurtz, zutik, zuhur, zuzen, zuzi.*

Lehen esanda daukagunez, hitz azkenean ere z erabiltzen da gehienetan. Ikus s-ren arauak.

Erdaratikako hitzei buruz berezkuntza batzuk egin behar ditugu:

a) Erdaraz z daramaten hitzak, z daramate euskaraz ere: *azuzena, bazoka, puzzle, zapata, ozono, baza* etab.

b) Erdaraz s zeramaten hitz zaharrak ere z daramate sarri askotan euskaraz. Adibidez: *abuztu, bezpera, ezkila, ezpata, eztainu, gaztelu, gaztigu, gaztaina, izkutu (ezkutu), izpiritu, iztupa, maizter, meza, mezu, mizpira, pezeta, zerbitzari, zentzu, zerra, zaku, zapata, zapo, zorte, zigilu, zuku, zopa* etab.

d) Erdaraz *ce, ci* daramaten hitzak *ze, zi* bilakatzen dira euskaraz: *pazientzia, zezina, bazilo, koziente, zelula, zelibato, zirku, zirkunferentzia, zikloi, zine, azido, azeleratu* etab. Baina izen berezietan *ce eta ci* ere erabiltzen dira: *Cid, Cervantes* etab.

Esanera idazteko ariketak

1) Etna bolkan bat da.
Nerbioetatik hondatuta nago aspaldi hontan.
Izan al zara inoiz zu Valladolid-en?
Egingo ote dute santu Balentin Berriotxoak?
Vietnam-go gerratea bukatu zen.
Avilakoa izan zen santa Teresa.
Kale hortan ikusi dut lehen Bitor.
Hibaira erori dira bagoi bi.
Adjeto edo izenlagun, berdin da.
Oso interesgarria da zure nobela berri hori.
Bokazioa behar da hortarako, ez duzu uste?
Gaur ez dabil tranbierik Bilbon.
Pozik ibiliko nintzateke belodromo hortan.
Zenbat dibisio egin behar ditugu, ba?
Xalbador bertsolari haundi bat izan zen.

2) Azterketa hau bukatu ondoren, afari eder bat egingo dugu.
Izan al zarete inoiz Nafarroan?
Farmazia hortan izango dituzu botikak.
Alfabetatze on baten beharizana duzu zuk.
Nork asmatu du pelikula horren gioia?
Gifolak daude gaur telebisioan.
Drogeria baten erosiko ditut.
Durangoko Gerediaga Elkarteak antolatu du.
Nork nahi ditu gindak?
Hori zela ta, entzute handikoa egin zen Duguesclin.
Non dago Kirgizia?
Ihes hil zen Gillermo Antonagarrenekoa.
Lodiagi zaude; gimnasia egin behar duzu.
Nondik ekarri duzue imajina hori?

3) *Genesis* liburuan dator hori.
Jende asko etorri da gaur mitinera ezta?
Belarriondoko bat eman zidan, orduan, sarjentoak.
Bigoterre asko daude gure errejimenduan.
Geologia ikasten ari naiz.
Agentzia batean konponduko duzu hori berehalaxe.
Zergatik joan zara Geronaraino filosofia ikastera?
Meningitis du nire seme gazteak.
Datiboa ala genitiboa dela esan duzu?

Berrogei urtetan egon naiz Argentinan.
Ahari bat erosi dut gaur goizean ferian.
Logura da antza, aharrausika ari baita.
Ekarri mahats gehiago mahaira.
Nahastatzaile bat da hori, besterik ez.
Guztiok batean egiten gara zahar.
Lehen sarritan egoten nintzen hemen.
Ahaztu egin zaizu ala?
Han behean dago Zeanuri.
Min dut mihinean.

4) Ohorezko euskaltzain egin dute.
Ohol baten gainean jarri zuten orduan.
Oso mutil zuhurra da hori.
Sudur luzea duelako?
Ahaleginak egin ditugu, baina alperrik.
Zihurtasun bat behar dugu horretarako.
Ez ahal da etorri zure ahizpa?
Ahokada bat ke bota zion aurpegira.
Ahuntza bezalakoa zara zu.
Mindurik ditut behatz puntak.
Basabehirik ez dago gaur Gaztelumendin.
Ireki ezazu, mesedez, leiho hori.
Behingoan ekarriko didazu.
Ehun eta ehun berrehun dira.
Ihes egin zuen handik.
Ohar bat jarri behar dut hemen.
Oihuka ari da hor.

5) Ugaria da gure ahoz-ahozko literatura.
Nik ez dakit, bahintzat.
Haurgintza minetan dago mundua.
Berehalaxe heldu ginen haraino.
Hirurogei urte inguru ditu.
Irabazi dugu, hogeitamaika dut eskutik eta.
Herenegun esan zidan.
Hain pozgarria izan zen izan ere!
Aisa egingo dugu hori.
Ken hadi nire ondotik, harro hori!
Har ezazu holako bat ere.
Orratzak baino luzeagoak izan behar du hariak.
Katuak ez du hausnarririk egiten.
Hara: *oso* euskaraz *hartz* da eta *lobo, otso*.

Harri handi bi behar ditugu hemen.
Euskal Herrian herri asko daude.
Hautsez bete da.
Laster izango dira hauteskondeak.
Hego Ameriketatik etorri da.

6) Hargin zahar bik egin dute harresia.
Hegaztilari bihurtu al zara?
Urte bi garrenean heldu zitzaigun.
Hezi, hezi ikasleak, irakasle.
Hamar bakarrik bizi dira hauzune hortan.
Kaletar bat hautatu dute.
Haserre al zaude?
Hezurrik ez dut nahi nik, haragia baizik.
Hortarako hobe hauxe.
Santu santen artean, orma lodia bitartean.
Zein da hiri hontako alkatea?
Higuindu egin al zarete?
Hi ta ni hi, hire amak titi bi.
Kanpai hotsa da; nor hil ote da?
Hur eta *hurbil*-ek esanahi berdina dute.
Hutsik dago botila hau.

7) Beti izaten da hotza ifarraizea.
Hi ere etorri hinteke, ez?
Heu haiz hi, heu, mozolorik asko, txatxar buruhandi
hori!
Alkohol pizka batek bizkortu egiten gaitu.
Ba al dakizu non dagoen Dahomey?
Helikoptero batean joan ziren Saharako desertura.
Joxe, Anjelen anaia izan zen, hain juxtu, hori egin
zuena.
Troka izugarri hartan birjaio nintzen.
Oxigenoa behar du honek.
Xemeingoa da Xabier.
Yate berri bat erosi du.
Egun guztietan egiten duzu yoga?
Haurrik gehienek ditugu yeistak.
Jespersen filosofo bat da.
Nobela hontako pertsonaia guztiak aztertu ditut.
Kirofanora eraman zutenerako, hilda zegoen.
Erantzi, mesedez, kimono nabarmen hori!
Pelikulak egiteko leku egokia omen da Hong-Kong.

Iraultzaile bat izan dugu Kant filosofian.
Praktikotasun bat behar dugu gauza guztietan.

8) Fidel Castro al dago oraindik Kuban agintari bezala?

Italiako pintore bat izan zen Caravaggio.
Nongoa da musikagile hori?
Trankil-trankil gaude hemen.
Egia biribila da.
Zure euskara mordoiloak mindu egiten dizkit be-
larriak.

Jostailu berriak erosi dizkidate gurasoek.
Mailukadaka apurtu zuen.
Automobilean joan ginen.
Isilik egon ginen ilunetan.
Melillan egin nuen soldadutza, artillerian.
Gallartakoa da Zamarra.
Kanboko inprimatzaile batek esan zidan.
Txinbera bat hartu, ta mendira joan zen.
Norena da album hori?

9) Hagin bat atera dut.

Lekeitiara goaz, bainu bat hartzera.
Iluntzean heldu zen erregina Donostiara.
Zein imajina saldu duzu?
Gordinik nahiago ditut sagarrak.
Baina ze (r) ordutan ikusi dute ovni ikusgarri hori, ba?
Mahai gainean utzi duzu boligrafoa.
Zuk aina ba daki honek ere.
Bere zegoen itsaso urdina.
Bare zegoen itsaso urdina.
Beti izan naiz ni gaztainazalea.
Hori ahal da Iñakiren koinatua?
Seinale txarra da hau.
Zuk baino habeto egingo du Ibañezek.
Piña hartuko dugu postretzat ezta?
Mañarian bizi da hoge urteotan maño hori.
Hango kainoi hotsak ez zuen azkenik.
Algortako ikastola batean nago ni andereño.
Iturriño bat zegoen pir-pir etxe aurrean.
Nora zoaz gero, ba, Iñazio?
Pintore gazte on asko dugu gaur.

10) Sabaian ditugu sagarrak.
Berehalaxe arrapatu genuen xagua.
Saihets bat kendu didate.
Sakadiz ez da inor joaten batzarrerara.
Merke samar saldu zuten solomoa.
Sarritan sartu naiz horra nire senarrarekin.
Sekula ere ez dut zure semea ikusi hemen.
Sitsak jan dit nikia.
Sei sega erosi ditu ferian.
Tomasi eman diote lehenengo saria.
Sasi artetik sartu zen.
Suge bat erakutsi zion sorginak.
Baldres bat zara zu, horixe, entzun duzu?
Ehun pezeta irabazi genituen musean.
Jolaserako prest beti ezta?

11) Zer da hau: askatasuna ala askakeria?
Aspertu egin gara aste osoan baserrian adiskideekin.
Gizonarentzat eta astoarentzat ere astun dago hau.
Lotsatu ez zara egiten han?
Eskerrak ezkerre ondo dudana.
Gurasoak haserre daude ta garrasika.
Etorri, Alazne; eman musu bat lehengusinari.
Ostegunetan ez da zabalik egoten ostatu hau.
Gerriko paxa laxatu egin zaio seinari.
Extasisean zaude ala?
Xoxo bat ekarriko dio aitak menditik gure seintxoari.
Haren ezizena *Ezordu* zen.
Hauzoko gizona gizona da.
Horixe adierazi zidan, ba dakizu?
Ezkundu zen, ezialdia pasatzera joan da.
Zazpi gaude haren zain.
Bezperan etorri zen maizterra.
Zaku batean ekarriko duzu eztainua.
Esku ezkerre erre zuen azidoaz fundizioan.

12) Bakarleku batean dago Ekidazuko *Sorgin-koba*,
Olazahartik kilometro batetara edo hola, Haitzmendiko
artadian.

Sarrerako «ate hutsa» estu samarra du; baina ba-
rrura sartutakoan, mila lagun lasai egoteko lekua du.
Santuz beterik dagoen eliza bat dirudi barrutik. Izan

ere, urak eta kareak eta haizeak landutako sorgin-imaginaz beterik ditu alboetako ormak eta haitz-negarrak egindako orratzez apaindurik dago goia, sabaia.

Ur bedeinkatu ontzi itzel baten antzeko haitz mokor bat ageri da bazter batean, eta ur beltz hotz zikin geldia lo dago haren altzoan.

Toki iluna eta ituna, benetan, eta larria hemengo bakea.

13) Oraintsu eraikitako herri bat da Gezala. Herri berri liluragarria. Paradisu txikitxo bat.

Ekidazuarrek *Zazpiki* esanten diote Gezalari. Hain zuzen ere, zazpi kale luze ta zabal, zazpi plaza eder, zazpi parke apain, zazpi diru-etxe boteretsu, zazpi jolas-toki atsegingarri, zazpi kafeteria lasai ta zazpi hotel ikusgarri ditu herriaren sabelean.

Zazpiki bai baina, handikien zazpikia da Gezala. Eta, ba dakizu, txikikien bederatzikiak baino ederragoak, osasuntsuagoak eta majoagoak izaten dira handikien zazpikiak.

Sabelaren ingurua, txalet eta apartamentu ederrez loraturik dago. Harrizkoak dira txaletik gehienak, baserri itxurakoak, oso politak. Eskudo harro bana dute beren kopetaren erdian. Harri dotore horietan, uste handiz gordetzen dute gezalatarrek asaben izen eta gomuta.

Gezala neguan Gezala izaten da. Udan, berriz, herri unibersala, turista asko joaten baita hara.

Neguan hizkuntza bat entzuten da Gezalan: espainola. Udan, ordea, anitz hizkuntza: frantsesa, alemana, inglesa, italianoa, holandesa, espainola...

Herri baketsua da neguan. Udaldian, ostera, hara atsedena hartzera etortzen direnek ez dute baketan uzten.

14) Egunsentia zen. Udako egunsentia.

Basoaren handiko aldean, oso nagi zegoen eguna, erdi lotan. Eta, erdi lotan, basoko erreka baten ondoko

iluna urratzen hasi zen, estiro-astiro, gogo handirik gabe, aharrausika. Baina oraindino ez zen ezer ere ikusten, ura bera ere ez.

Azkenengo uluekin isiltasuna eten eta aresti batean sartu zen hontza. Saguzahar bat ere haraxe sartu zen, zizt-zazt, hegazkada oker eta bizkorrez.

Errekako uraren murmur isil gozo batzuk entzun ziren. Sasiarteko belarpetan zegoen erbiak bi begiak zabaldu zituen.

Eguna erdi lotan zegoen baina, haizea bizkor zebilen, harantz ta honantz, gau lotiaren altzoan. Erreka hegaleto belar moltzoak iratzartu nahirik zebilen. Bizkarean jotzen zituen, kontuz-kontuz, ikaraturik esnatu ez zitezen.

Loguratu egin zen gaua eta, isil-isilik, lotarantz joan zen.

Han, urrunean, kantatzen hasi ziren txori goiztar batzuk. Errekarantz zetozten beste batzuk, arin etorri ere. Baina aurrerantz joan ziren, baserri bateko sorotarantz.

Txatxangorriaren kantu apalak eraginda, honen kabia utzi ta erreka ertzerantz etorri zen kukua ere ta bertan gelditu, leizar baten adarrean, egunaren zain.

Ba zetorren etorri ere eguna, ba zetorren, nagiak atera ta pozik eta arineketan zetorren errekarantz, argiz eta berotasunez jantzirik.

Hura zen benetan bat-bateko bizitasun eta apaindurazko ikuskizun harrigarria, miragarria, liluragarria!

KONTSONANTE BIKUNEN IDATZ ARAUAK

dd-ren idatz arauak

d eta *r*-ren bustidura adierazteko erabiltzen da, hitz adierazkorretan bakarrik. Ikus *ñ*-ri buruzko idatz arauak.

Adibidez: *bilddots* (bildots), *inddar* (indar), *edder* (eder), *Maddalen* (Madalen), *Kolddo* (Koldo), *Maddi* (Mari) etab.

ll-ren idatz arauak

l, *r* ta *rr*-ren bustidura adierazteko erabiltzen da, hitz adierazkorretan bakarrik. Ikus *l*-ri buruz jarririko idatz arauak.

Adibidez: *llabur* (labur), *pollit* (polit), *Pello* (Pedro), *holli* (hori) etab.

rr-ren idatz arauak

Hitz hastean eta azkenean ez da erabiltzen *rr*-rik. Hitz barneko bi bokalen artean bakarrik erabiltzen da: *barru*, *erre*, *gabarra*, *amorratu*, *zorro*, *zaborra*, *gerrate*, *burruka*, *borragoma*, *Arrizabalaga*, *Zorrotza* etab.

Orain arte, erdaratikako hitzetan, hots gogorrez esaten izan den hitz hasierako *r*-ari *a*- edo *e*- ezartzen izan zaio beti euskaraz: *arratoi*, *arrazoi*, *arrosa*, *arrazin* (*erre(t)xin*), *arropa* (*erropa*), *arroka*, *arrisku*, *erreinu*, *errota*, *erregu*, *erlatibo*, *errege*, *erregina*, *errepublikak*, *errosario*, *errejimendu*, *erresinul*, *errezeta*, *erlijio*, *erradiadore*, *errefugio*, *errealitate*, *erreboluzio*, *erregela*, *Errase*, *Erramon*, *Erramun*, *Erroma* etab. Baina gaur, zenbait kasutan (hitz berri arrunt eta berezietan) aurreko bokalik gabe ere esaten eta idazten da: *radar*, *rally*, *repris*, *restaurant*, *rito*, *robot*, *ruso*, *Rodesia*, *Rusia*, *Raul* etab.

ts-ren idatz arauak

Hitz astean ez da *ts*-rik erabiltzen (*tse-tse euli* edo horrelako hitz tekniko banakaren batean izan ezik).

Hitz barnean erabiltzen diren *ts*-rik behinenak hauek dira:

a) Lehenengo ta behin, *etsi* aditzaren bitartez sorturiko aditz guztiak: *onetsi*, *gaitzetsi*, *handietsi*, *gutietsi*, *sinetsi*, *miretsi*, *hautetsi*, *opetsi*, *berantetsi*, *jauretsi*, *birretsi* etab.

b) *-tsu* atzizkiaren bitartez sorturiko hitz eratorri guztiak: *euritsu*, *osasuntsu*, *garrantzitsu*, *oraintsu*, *berdintsu*, *menditsu*, *arduratsu*, *indartsu*, *borondatetsu*, *doatsu*, *bizartsu* etab. Baina *batzu(k)*, *bitzu(k)*, *hirutzu(k)*, *nortzu(k)*, *zeintzu(k)*, *zertzu(k)* etab.

d) Eta, gainera, hurrengo zerrendan doazenak ere bai: *antsi(a)*, *atseden*, *atsegin*, *atsekabe*, *atso* 'anciana' (baina *atzo* 'ayer'), *erakutsi*, *erantsi* 'añadir' (baina *erantzi* 'quitar, despojar'), *erautsi*, *erauntsi*, *etsai*, *eutsi*, *hautsi*, *hertsi*, *irentsi* (*iruntsi*), *itsaso*, *itsu*, *itsatsi*, *itsusi*, *jaitsi*, *ihardetsi*, *kutsu*, *lotsa*, *otso*, *suntsitu*.

dd) Erdaratik harturiko hitzetan ere erabiltzen da, azkenik, *ts* hitz barnean. Hain zuzen ere, erdaraz *ns*, *ls* ta *rs* daramaten hitzak *nts*, *lts* eta *rts* bihurtzen dira euskaraz: *faltsete*, *kontserbadore*, *kontserba*, *kontsolatu*, *kontsul*, *kontsulta*, *prentsa*, *pentsa*, *pentsu*, *pentsatu*, *deskantsu*, *pentsio*, *mantso*, *baltsa*, *faltso*, *saltsa*, *boltsa*, *baltsamo*, *faltzifikatu*,

igeltseru, *bertso*, *jertse*, *pertsona*, *pertsiana*, *kurtsiba* etab. Hala ere, gaur ez da beti betetzen lege hori; eta alternantzia bat nabari da kasu askotan: *peninsula* | *penintsula*, *insignia* | *insignia*, *falsete* | *faltsete*, *supersoniko*, *korse* | *kortse*, *korsiar* etab.

Hitz azkenean *ts* daramaten hitzik behinenak hauek dira: *aberats*, *amets*, *arrats*, *bildots*, *bits*, *fits*, *funts*, *hats* 'aliento, hedor' (baina *hatz* 'dedo, huella'), *hauts*, *hits* 'pálido, triste' (baina *hitz* 'palabra'), *isats*, *kamuts*, *kirats*, *kokots*, *mahats*, *hots* 'sonido' (baina *hotz* 'frío'), *mingots*, *pats*, *sahats*, *saihets*, *sats*, *trakets*, *urrats*, *huts*. Baina hitz konposatu edo deribaturik gehienetan, lehenbiziko hitza zerrenda hortan doanetarikoren bat bada, *ts* hori *s* bihurtzen da: *aberastasun*, *ameslari*, *arrasti*, *bildoski*, *haustu*, *mahasparra*, *saiheski*, *hustu* etab.

tt-ren idatz arauak

t-ren bustidura adierazteko erabiltzen da, eta hitz adierazkorretan bakarrik: *aitta* (aita), *aittona* (aitona), *ttantta* (tanta), *ttaka-ttaka* (taka-taka), *itto* (ito), *ttonttor* (tontor), *ttipitto* (tipito) etab.

tx-ren idatz arauak

«Por lo general, no se emplean digramas al principio de palabra. Pero esta regla tiene una excepción y ella parcial, pues afecta al país vasco peninsular: es el empleo de la *tx* inicial: *tximisti*, *txapel*, etc. El paralelismo parece postular el empleo de *x* en principio de la palabra, conforme al cuadro siguiente:

<i>s</i> -	<i>-ts</i> '	<i>-ts</i>
	<i>-s</i> -	
<i>z</i> -	<i>-tz</i> -	<i>-tz</i>
	<i>-z</i> -	
luego		
<i>x</i> -	<i>-tx</i> -	<i>-tx</i>
	<i>-x</i> -	

(L. Villasante, *Hacia la lengua literaria común*, Oñate (Guipúzcoa), 1970, pág. 57).

Hala ere, paralelismoak eskatu arren, logikak eskatu arren, hizkuntza bizi aldakorra ere kontutan hartu behar da eta, nahi ta nahi ez, berezkuntza batzuk egin beharra dugu:

a) Lehengo ta behin, hots-hitzetan erabiltzen da *tx* hitz hastean: *txilin-txalan*, *txin*, *txintxin*, *txio*, *txirritxirri*, *txirritxori*, *txist*, *txistada*, *txitean-pitean*, *txipli-txapla*, *txitxili-patxala*, *txorrotxio*, *txirritxio*, *txut*, *txutxu-mutxu*, *txilin* etab.

b) *d*, *s*, *tt*, *tz* eta *z*-ren bustidura bezala ere erabiltzen da hitz adierazkorretan: *txanbolin* (danbolin), *txastatu* (dastatu), *Txomin*, (Domingo), *Matxalen* (Magdalena), *txardina* (sardina), *Txanton* (José Antón), *Textxu* (Josetxu), *Txema* (José Mari), *Txemi* (José Miguel), *Txutxi* (Jesusín), *txontxor* (tontor), *txapa-txapa* (tapa-tapa, zapa-zapa), *txipi-txapa* (tipi-tapa, zipi zapa), *txintxo* (zintzo), *txintx* (zintz), *txotx* (zotz), *txulo* (zulo) etab.

d) Beste hitz askotan ere *tx* erabiltzen da beti hitz hastean edo *tx* / *t*, *tx* / *x*, *tx* / *z*-ren alternantzia sortzen da, behinik behin: *txahal*, *txabola*, *txairo*, *txakolin*, *txalaparta*, *txaldan*, *txalo* 'aplauso, bofetada' (baina *xalo* 'candoroso'), *txakur* / *zakur* (bustidura adierazkorrez: *xakur*), *txalupa*, *txamarra* (bustidura adierazkorrez: *xamarra*), *txamilotxa*, *txanda*, *txanela*, *txakil* / *zakil*, *txangurro*, *txanka*, *txano*, *txanpon*, *txantel*, *txantxa*, *txantxadura*, *txan-txangorri*, *txaparrote* / *zaparrote*, *txapel* (bustidura adierazkorrez: *xapel*), *txapin*, *txar*, *txaramel*, *txarrantxa*, *txartel* / *xartel*, *txatarra*, *txatxala*, *txatxamur*, *txatxar*, *txepetx*, *txera txerri* (*txarri*) / *zerri* (bustidura adierazkorrez: *xerri*), *txiribita*, *txikar*, *txiki* / *tiki* (bustidura adierazkorrez: *tiki*), *txilibitu* / *xilibitu*, *tximino*, *tximitxa*, *tximist* / *ximist*, *txinbera*, *txinbo*, *txindor*, *tximel* / *zimel* (bustidura adierazkorrez: *ximel*), *tximur* / *zimur* (bustidura adierazkorrez: *ximur*), *txingar*, *txingor*, *txinpart*, *txipristin*, *txirla* / *xirla*, *txirlora*, *txiro*, *txirribita* / *xirribita*, *txirula* / *xirula*, *txirritxori*, *txita*, *txito*, *txitxi*, *txitxiburduntzi*, *txiz*, *txoko*, *txokor*, *txolarte*, *txolin*, *txolindu*, *txominbelar*, *txonbo*, *txondor*, *txonta*, *txordo*, *txori* / *xori*, *txorokil*, *txorta* / *sorta* (bustidura adierazkorrez: *xorta*),

txosna, *txosten*, *txoto*, *txotxatu*, *txotxo*, *txotxolo*, *txukun*, *txunditu*, *txutxu*.

dd) Erderatikako hitz berrietan ere erabiltzen da: *txabeta*, *txalet*, *txeke*, *txulo*, *txinatar*, *txarol*, *txuleta*, *txokolate* / *xokolate*, *txasis*, *txintxeta*, *txunga*, *txoke*, *txorizo*, *txapa*, *Txile*, *Txina*, etab. Baina *ch* ere erabiltzen da izen berezietan: *Chesterton*, *Chihuahua*, *Champagne* etab.

Hitz barnean *tx* noiz idatzi behar den jakitea erreza da, hotsari dagokionez idazten baita, espainolezko *ch* bezala. Hala ere, hona hemen argibide batzuk:

a) *-txa*, *-txe* (ikus *x*-ren idatz arauak) eta *-txo* atzizkia daramaten hitz guztiak. Adibidez: *neskatxa*, *bigantxa*, *kakotxa*, *kokotxa*, *tripotxa*, *argaltxa*, *makaltxa*, *zorotxa*, *hementxe*, *hortxe*, *hantxe*, *orduantxe*, *oraintxe*, *harritxo*, *zabaltxo*, *loditxo*, *zerbaitxo*, *Josetxo*, *Xabierto* etab.

b) Eta, gainera: *amabitxi*, *aitabitxi*, *altxatu*, *atxakia*, *baratzuri*, *batxe*, *bortxatu*, *bitxi*, *intxaur*, *itxi*, *gutxi*, *katxarro*, *kautxu*, *klitxe*, *kotxe*, *kutxa*, *martxo*, *patxada*, *altxor*, *potxolo*, *potxongo*, *kantxa*, *metxa*, *dutxa*, *Patxi*, *Artxanda*, *Getxo* etab.

Hitz azkenean *tz* daramaten hitzen bustidura adierazkor legez erabiltzen da, batez ere, *tx* hitz azkenean: *beltx* (beltz), *txotx* (zotz), *txorrotx* (zorrotz), *xurtx* (zurtz) etab.

Euskalki batzutan erabiltzen den hitz azkeneko *tx* jatorriz *itz* da eta, batasunera joatekotan, berezko *itz* hori zaindu egin behar da, *bakotz* (ez *bakotx*), *gaitz* (ez *gatx*), *haitz* (ez *hatx*) etab. idatziz.

tz-ren idatz arauak

Hitz hastean ez da *tz*-rik erabiltzen.

Hitz barneko *tz*-rik behinenak hauek dira:

a) Lehenengo ta behin, *-antza*, *-gintza*, *-kuntza*, *-tza*, *-tze*, *-tzen*, *-tzia*, *-tzar*, *-tzaile*, *-tzapen*, *-tzat*, *-tzako*, *-tzu* eta *-zale* (*-tzale*) atzizkia daramaten hitz guztiak. Adibidez: *enparantza*, *frogantza*, *fidantza*, *harmagintza*, *hiri-*

gintza, burdingintza, zapatagintza, atzerakuntza, hizkuntza, errakuntza, bilakuntza, salakuntza, dirutza, jendetza, askotza, bizitza, iraultza, jakintza, egintza, idazkaritza, baratze, sartze, apurtze, saltzen, zabaltzen, zapaltzen, salbatzen, zuhurtzia, ausartzia, edukatzaile, iraultzaile, inprimatzaile, kontatzaile, itzultzaile, laguntzaile, oroitzapen, gizontzat, semetzat, zuretzat, zuretzako, aitarentzako, batzu(k), zertzu(k), nortzu(k), euskaltzale, arrantzale, abertzale, etab.

b) Beste hauek ere bai, gainera: *aditz, antza, ahantzi, ahotz* 'cascarilla de trigo' (baina *ahots* 'voz'), *aitzin, antzina, aintzira, altzairu, antzu, arantza, arrantza, artzain, bederatz, behintzat, egotzi, ehortzi, eragotzi, erantzi* 'despojar, quitar' (baina *erantsi* 'añadir, adosar'), *espartzu, etzan, etzi* 'pasado mañana' (baina *etsi* 'desesperar'), *eultzi, ezkaratz, haitzur, hatzamar, hatzapar, hemeretzi, iritzi* 'opiniön' (baina *iritzi* 'conseguir, llegar'), *galtzak, galtzarbe, gantzutu, gartzela, giltzurri, goraintzi, gurutze, iltze (untze), jantzi, eltzaur (intxaur), intziri(na), iratzarri, irrintzi(na), itzuli, legatz, maltzur, multzo, ontza, putzu, ontzi, utzi, zentzatu, zentzu, zerbizari, zirtzil, zintzarri, zintzur, zortzi* etab.

d) Erdaratik harturiko hitzetan ere erabiltzen da, azkenez, *tz* hitz barnean. Hain zuzen ere, erdaraz *nc, lc* ta *rc* daramaten hitzak *ntz, ltz* eta *rtz* bihurtzen dira euskaraz: *balantza, dantza, esperantza, kontzientzia, seguranitza, bentzutu, galtzak, kaltze, kalizio, gartzela, kontzilio, galtzada, inertzia* etab.

Hitz azkenean *tz* daramaten hitzik behinenak hauek dira:

a) Lehenengo ta bat, *-antz, -gaitz* eta *-koitz* atzikia daramaten hitzak. Adibidez: *Bilborantz, exerantz, gerorantz, ulergaitz, kontentagaitz, aldakaitz, moldakaitz, kalkulagaitz, bikoitz, hirukoitz, laukoitz, anizkoitz* etab.

b) Eta, gainera: *ahuntz, ametz* 'quejido' (baina *amets* 'sueño, quimera'), *anitz, arrotz, beltz, bihotz, putz, ekaitz, ertz, garratz, gatz, giltz(a), gorotz, gorpitz, gurbitz, haitz, haltz, haitzur, haritz, harotz, hotz* 'frio' (baina *hots* 'sonido'), *hortz, hontz, huntz, hitz, hartz, ihintz, ikatz, izotz, laratz, latz, maiatz, motz, murritz, oioitz, ugatz, orratz, zintz, zikoitz, zotz, zuhaitz, zimitz, zurtz* etab. Baina hitz kon-

posatu edo deribaturik gehienetan, lehenbiziko hitza zerrenda hortan doanetarikoren bat bada, *tz* hori z bilakatzen da: *bihozkada, puztu, garratasun, gazbako, gorpuzki, hizlari, ugazama, ikazgin, oioizleku, orraztoki, zozketa, laztasun* etab.

Esanera idazteko ariketak

- 1) Etorri hona, Pello, gure ttipitto pollit hori!
Maite zaitut, Maddalen.
Bilddotsak datoz, Josetxo.
Arrazoia duzu, bai, ba dakit.
Errefugio berri bat egin dute.
Non utzi dituzu errezetak, ba?
Errepublika denboratan ere ez zen holakorik ikusi.
Erregea ta erregina ez dira Bilbora etorri.
Non jarriko dugu erradiadore hau?
Erramon Erromara joan da.
Ikaragarriko reprisa du kotxe honek.
Hementxe dago restaurant bat.
Rito berri asko daude oraingo liturgian.
Arropa zaharra, ugari dago hemen, horixe bai.
- 2) Euskaltzaindiak birretsi du.
Onetsi egin du, bai, liburu hau.
Haize osasuntsua dago hemen, benetan.
Bizarduna eta bizartsua zara zu.
Lehen indartsua izan zoan Urtain ere. Baina gaur...
Oraintsu egin du hori.
Hemen dago orain ere, atzo etorri zen atso zaharra.
Itsasoan suntsitu ziren.
-a itsatsia du *erregina* hitzak.
Itsu hori oso itsusia da.
Etsaiak asko izan arren, eutsi, mutil.
Zer ihardetsi zion?
Eman, Jauna, betiko atsedena.
Atsegingarria izan genuen.
Erantzi, mesedez, jertse hori.
Ez diot erakutsi.
Zortzirak baino lehenago egon naiz kontsultan.
Kontsulari bota zion orduan bertso bat bertsolariak.

3) Pertsona gaiztorik ez dut nahi nik laguntzat.
Berrogei urtera helduez gero, nor ez da kontserbadoroa?

Otso asko dabil, bai, bildots larraz jantzirik.
Taloi hau faltsifikatua al da?
Arantza bat sartu zaio Arantzari hankan.
Harantzean ala honantzean?
Ez al dakizu faltsetean kantatzen?
Ametsak amets izaten dira beti.
Bildoski hau gozo dago.
Hustu egin gaituzte, hustu.
Mahats pizka bat hartuko dugu postretzat.
Funtsean horixe da dena.
Saiheskia behar du porrusaldak egoki egoteko.
Hala, ttaka-ttaka aittonarekin!
Arratsalde guztian han, aspertu egin ginen azkenerako
Noiztik hona duzue mahasparra etxe aurrean, ba?

4) Txiritxirriak harrapatzen ari gara.
Txipli-txapla ibiltzen zen mutikoa uretan.
Hur dago Txemaren etxea, ezta?
Txontxor hortan egon nintzen ordu hartan ni.
Horko txilin hotsak ez du azkenik ala?
Goazen zipi-zapa!
Baina nora doa, ba, gure Matxalen txintxoak?
Txantxetan ari naizela uste duzu ala?
Txonta bat eta bi txindor harrapatu ditugu.
Ea, jo dezagun txalaparta!
Nor bizi da txabola hortan?
Saldu egin dut hemen egon den txatarra.
Txibiritaz bete da gure etxe aurreko landa.
Tximino bat dirudizu.
Jo txilibitua!
Txinbera hitza *txinbo*-tik eratorria da.
Hartu al dituzue txartelak?
Txipristinez bete ninduen kotxeak.
Txandaka sartzen ginen.

5) Ardo pizka bat edan dut eta txolindu egin naiz.
Txosna bat jarriko dugu hor bazterrean.
Ximurtu egin zaizu kopeta.
Xamur-xamur erantzun zion.

Txantxadura gabeko ogia da hori.
Txokolatea ta txurroak jan ditugu.
Noiz ekarriko dituzu tripotxak, ba?
Zerbaitxo egin beharko dut nik ere.
Goxoak dira kokotxak, gero!
Intxaurrak eman dizkit amabitxik.
Orduantxe ailegatu zen Txutxi ere.
Gauza onerako atxakia asko dituzu zuk.
Martxoan joan zen Patxi Ameriketara.
Bakoitzak berak nahi duena egin dezala.
Kontuz joan, potxongo asko dago bidean eta.

6) Ez du esperantzarik, antza.
Askotzarik ez duzu ekarri.
Euskaltzale asko ta burrukalari gehiago.
Zazpi errakuntza dituzu hemen.
Ez dut ukatzen, ez; zapaltzailea ere izan da, baina
zabaltzailea ta salbatzailea ere bai.
Aditz laguntzailea zer den ez omen daki.
Antzina altzairuzkoak izaten ziren horiek.
Etzi joango natzaizu ezkaratza zuritzera.
Jesus, hau da jendetza!
Goraintziak!
Txokolate ontza bat eman dit zuretzat.
Desiltzatu zutenean hilda zegoen.
Zertarako erosi dituzu hamar haitzur?
Zortzi sartu dituzte gartzelara.
Bost ardi ditu antzu artzainak.
Legatza jan genuen.
Putzura erori zen.
Zentzatu ordua duzu.
Kaltzioaren premia nuela ta, indizio bat eman dit.
Berehalaxe iritsi ziren.

7) Ulergaitzak dira ikasgaiok.
Orraztu egin behar da pizka bat hiztegi hau.
Elurra egin du ta hotz dago.
Izotza maiatzean? Zer da hau?
Orain ba al dago ikazginik?
Haltz artean sartu zen hontza.
Hartz bat ta bi otso zeuden zirkuan.
Bizikletan joan da harotza.

Anitz jende arrotz dugu gure telebisionean.
Bihotz-bihotzez maite zaitut.
Hemeretzi zauri zituen gorputzean.
Ugazama ez da agertu.
Kalerik kale ibili dira arrantzaleak.
Umezurtz gixaxoak nagarrari eman zion.
Latz dago ohol hau.
Bihotz beltza duzu zuk, zihoitz horrek.

8) Urtero erosten du kotxe berri bat Txemak.
Hain zuzen ere, kilometro asko egin beharra izaten du
kotxean egunero biajantetzan.

Urtero erosten du kotxe berri bat eta kolore ber-
dinekoa beti: zuria.

Aurten ere erosi du. Baina erdi zoraturik erabili
dute Txema beronen adiskide batzuek.

Etorri da bere herrira, harro-harro, kotxe zuri berri
dizditzsuarekin..., ta, berehalaxe, bedeinkatzera eraman
du, eliza alderantz.

—Zer, Txema? Beltza aurten...? Zer, ba? Ohiturak
aldatu? Beltza baino...— esan dio irriparez apaizak.

—Beltza? Ez horixe! Ez dut ohiturarik aldatzen nik.

—Ba..., oker ez banago, beltza da hau.

—Beti brometarako gogoia berorrek!

—Ez, egia da.

Bedeinkatu ondoren, tabernara joan dira Txema
ta apaiza, zertxobait edatera.

—Beltza aurten, e? Zergaitik beltza?— esaten dio
Txemari adiskide batek, tabernara sartuaz batean.

—Beltz-beltza, gainera— beste batek.

—Ondo egin duzu kolorea aldatzeaz. Aspertu egiten
du bat kolore berdina— hirugarren batek.

—Oso polita da hori ere izan, baina gorria edo...,
politagoa izango zen, ez?— tabernako ugazaba-andreak.

—Bueno, baina..., zoraturik al zaudete gaur
guztiok, beltza dela ta beltza dela? Zuria erosi dut aurten
ere, zuria— Txemak, pizka bat haserreturik ta urduri.

—Benetan ez duzu hori esango baina?— taberna
ondoko garajetik etorri den mekaniko batek.

—Norena da kotxe beltz berri hau? Autobusa atera
behar dugu garajetik era, estorbu egiten du— garajetik
jetik etorri den pintxe batek.

Kotxe berrian sartu ta etxerantz joan da Txema.
Hauzoko Krispin etorri zaio, etxe aurrera helduaz batean.

—Polita, benetan! Baina zer dela ta beltza orain-
goan?— galdetu dio Krispinek.

—Zu ere adarra joten, Krispin?

—Adarra jotzen ez, mutil. Ez al duk beltza?

Etxera sartu da Txema arineketan. Ikaratu egin da
emaztea haren aurpegi larria ikusirik.

—Zer? Ondo al zaude?

—Bai. Zer, ba?

—Zuri-zuri duzu aurpegia...

—Nik?

—Ez duzu ekarri kotxe berria ala?

—Baai!

—Zuria?

—Zuria edo beltza, hor dago, etxe aurrean. Joan
ta ikusi.

9) Hasi da partidua. erdiko aurrelariak du baloia.
Ingles ile luze bat doakio arineketan. baina espainiarrek
ezkerretarantz jaurtikitzen du baloia. Han dago ezke-
rreko aurrelaria, zain; ta ederki hartzen du baloia bere
paparrean, inglesen atzelari bat hurbiltzen zaion bitar-
tean. Baloia hanka tartean hartu ta arineketan hasi da
espainiarra. Ba doa, tximista bezala doa aurrerantz,

kanparen ertz ertzetik. Ailegatu da korner ondora, inglesen atzelaria atzean duelarik. Gelditu egin da bat-batean. Hiru-lau keinu ikusgarri egin dizkio inglesari, driblatu egin du, ta erdirantz, inglesen porteria aurretantz, botatzen du baloia bere hanka ezkeraz. Bost espainiar ta zortzi ingles daude han, eta, baloia hartzean, bultzakada bat eman ta lurrera bota du ingles batek espainiar bat.

Jendea txistuka hasi da. Arbitroak ez omen du ezer ikusi, edo ez ikusi egin du. Baloia kanpora joan da.

—Penalti izan duk hori!— batek.

—Bai, bai, penalti izan da!— besteek.

—Horretarako ez dago deretxorik!— gehienek.

—Penalti! Penalti! Penalti!— guztiek.

—Nor da penalti?— Josepak.

MAIUSKULEN IDATZ ARAUAK

Maiuskula edo letra handien idatz arauak aldakaitzak izan dira oraintsura arte; baina aspaldion aldatu egin dira idatz arau klasikoak. Hain zuzen ere, lehen beti maiuskulaz idatzi izan ohi diren hitzak minuskulaz ere idazten dira orain, minuskulazaletu egin baitira abangoardiako idazleak.

Dena dela, gaur ere gehienetan orain arteko idatz arauak betetzen direnez gero, hauek jartzera noa jarraian, gaurko berrikuntzak ere salbuespen bezala erantsiz. Hona hemen:

1) Lehenengo ta behin, *tt* eta *tx* digramen lehenengo letra bakarrik idazten da maiuskulaz eta *ch* ta *ll*-ren lehenengo letra bakarrik erdaratikako hitzetan. Adibidez:

Esan «Ttuntun» esaten diote batzuek; «Ttonttor» ere bai, beste batzuek; baina ez dakit nola duen izena.

Txomin eta Txema Donostiarantz joan omen dira.

Zenbat kilometro daudela esan duzu Txiletik Txinara?

Llobregat inguruan jaio zen Llorente.

Ez al dakizu non dagoen Chihuahua?

2) Laburdura edo abrebiaturen eta garren adierazteko erabiltzen den puntuaren ondoren izan ezik (ikus puntuaren idatz arauak), idazki bateko lehenengo hitza eta puntu baten ondoren doana, maiuskulaz hasten dira beti. Adibidez:

Emekiro agertu du muturra ilargiak laino beltz baten ostetik, Kaleetako ur potxongo guztietara sartu da berehalaxe. Dardar dago.

Muturra agertu du ilargiak eta Botxoa, hiriburu entzuetetsua, egunez eta gauzez argitan dagoen hiri zahar berritua, argiagotu egin du bere argi motelez.

3) Kartetako agurraren jarraian jartzen diren bi puntuen ondoren doan hitza eta bi punturen jarraian norbaitek esandako edo idatzitako zerbait hitzez-hitzez edo letraz-letra jarri ohi dena ere, maiuskulaz hasten dira. Adibidez:

Nire lagun maite hori: Atzo goizean hartu nuen zure eskutitza eta pozgarria izan zitzaidan. Hain zuzen...

Orduan hauxe galdetu zion Xabierrek:

—Zer dela ta zaude horren itun?

Ba dakizu zer esaten zuten lehenagokoek: «Zer ikusi, hura ikasi».

4) Izen bereziak ere maiuskulaz hasten dira. Hala ere, minuskulaz ere idazten dira gaur. Adibidez:

Kepa, Garbiñe, Sondika, Arrasate, Donapaleu, Ebro, Zaragoza, Azkue, Platon, Aresti, Pekin, Mikelats, Jainko, Kristo etab.

5) Jainkoaren atributuak, titulu ta duintasunezko izenak, norbait izendatzeko erabiltzen diren izenak edo ezizenak eta erakundeen izenak ere maiuskulaz idatzi ohi dira. Adibidez:

Salbatzaile, Aita Santu, Osunako Duke, Pedro Handi, Lapiko, Tomas Asto, Aranakukutxo, Euskaltzaindi, Seminario-Ikastetxe etab.

6) Orain arte, maiuskulaz hasi izan da beti edozein idazlanen izenburua. Baita edozein aldizkari ta egunkariren izena ere. Eta hasi bakarrik ezezik, sustantibo ta adjetibo guztiak ere maiuskulaz hasten izan dira sarri askotan. Gehiago oraindik: maiuskula hutsez ere idatzi izan ohi dira. Gaur, oster, minuskula hutsez ere idazten dira. Adibidez:

Euskal ortografia | Euskal Ortografia | EUSKAL ORTOGRAFIA.

Higidura berdez | Higidura Berdez | HIGIDURA BERDEZ.

Ahoz-ahozko euskal literaturaren historia | Ahoz-ahozko Euskal Literaturaren Historia | AHOZ-AHOZKO EUSKAL LITERATURAREN HISTORIA.

sustrai bila

hiztegi modernoa

gaurko euskaldun gazteen ortografiatzko iraultza

Zeruko Argia | zeruko ARGIA

Agur.

7) Siglak maiuskula hutsez idazten dira. Adibidez:

PNV (Partido Nacionalista Vasco).

ESB (Euskal Sozialista Biltzarrea)

IAM (Ikasle Abertzaleen Mugimendua)

FBI (Federal Bureau of Investigation)

BUP (Bachillerato Unificado Polivalente)

8) Erromatar zenbakiak ere, azkenik, maiuskulaz idazten dira. Adibidez:

Artikulu hori XIV. EUSKERAn agertu zen.

XX. mendea.

Zein kapitulutan agertzen dela esan duzu? XIII. ean?

Juan XXIII. a santu bat izan zen.

Esanera idazteko ariketak

Txabi ala Xabi zara zu?

Espainolez Llodio esaten da, baina euskaraz, Laudio. Zallara joan da Txetxu.

Txakolina garratza izaten da.

Iker eta Imanol Pakistanera joan dira.

Mari lehenagoko euskaldunen jainkosa bat izan zen.

Gure Jaun eta Salbatzaide hori, erruki zakizkigu! Pedro Handi misiolari egon zolan Ameriketan.

Telesioan agertu duk Artobero.

Paulo VI.a, Aita Santua, Erroman bizi da.

«Zeruko Argia»n irakurri nuen.

Zeruko Argia-n irakurri nuen.
EGB-ko ikasleak dira.
PNV eta ESB banan ari dira.
Zein EUSKERAtan agertu zen artikulu hori?

2) Han menditxo baten gainean, haitz artean dago nire etxe ttipitto aitzin zuria, armiarma langileek egindako sarez apaindua, mila txori ezberdinen kantu gozoz alegeretua, haize ederrez inguratua... Nire kabia maitea, munduko kabiarik baketsuena, askatasun paradisua...! Nabukodonosor, Kleopatra, Neron, Karlomagno, Espainiako Felipe II.a, Frantziako Luis XVI.a, Napoleon, Rusiako zar handiak, Txinako emperadore ta mandarinak, Bramaputrako sultanak, mauruen emir eta kalifak, Rothschild, Rockefeller, Onassis ta gainerako handiki, aberats, jauntxo ta ahaltzu guztiak ni baino guleria gehiagorekin bizi izango ziren edo biziko dira; nire koba zulo hau baino jauregi ederrago ta dotoreagoen jaun eta jabe izango ziren edo izango dira; nik baino zerbitzari leial gehiago izango zituzten edo izango dituzte; baina, hala ere, beldur gutxiagorik eta askatasun gehiagorik ez, ez horixe.

PUNTUAZIO MARKAK

Komaren idatz arauak

1) Lotura hizkirik gabe elkaturik doazen hitzen edo hitz moltzoen ondoren jarri ohi da, lehenengo ta behin, koma. Adibidez:

Bat, bi, hiru eta lau.

Kepa, Zorione, Txomin, Tomas eta Maite etorri dira.

Zapaltzen, apurtzen eta hondatzen ari da.

Lehenengo astean argitaratu zen liburu bat, hiru-lau boligrafo, rotuladore bat, apunteak hartzeko blok handi bat, bi kuaderno ta borragoma bat erosi ditut.

2) Koma tartean joan ohi dira bokatiboak ere. Adibidez:

Zer, ene laztana?

Etor zaitetz hona, Mikel, mesedez.

Ikus, teleikusleok, nola heldu zen gizona ilargira.

Erruki, Jauna, erruki.

Ken zaitetz nire ondotik, kokolo hori!

3) Esaldiaren haria une batez eten egiten denean ere, komaz adierazten da etenaldi hori. Adibidez:

Hori, nire lagun batek esaten duenez, jebokeria bat da.

Zirkua, nahiz eta berdintsua izan beti, atsegingarria izaten zaigu.

Ezin daitekeela, uste duzu, ohitura hori aldatu?
Bai, «arnari» hitz hau, ene uste apalez, errakuntza bat dugu.

4) *Hain zuzen, hain zuzen ere, izan ere, hala ere, hala ta guztiz ere, adibidez, esaterako, esate baterako, lehenengo ta bat, lehenengo ta behin, lehenbizi, mesedez, otoi, faborez, dena den, dena dela, azkenez, azkenik, egia esan, alegia, ba(da), berriz, ordea, ostera, haatik eta holako esaerak ere koma tartean idatzi ohi dira. Adibidez:*

Horixe baita, izan ere, egiazko abertzalearen jokabidea.
Bueno; dena dela, goazen ta kito.
Bi ekarri ditu Jexuxek? Zuk, ordea, bat ere ez.
Nik, egia esan, ez dakit euskararik.
Eta, azkenik, agurra.

5) *Esaldi nagusi baten aurretik doan esaldi menperatuaren ondoren ere koma jartzen da. Adibidez:*

Zuk ezetz esan arren, egia da.
Aita datorrenean, esan, mesedez.
Hara heldu ginenean, afaldu egin genuen.
Dagoenik eta onena ematen badidazu ere, ez dizut hartuko.

6) *Aposizioak eta azalpen adierazgarri bezala jartzen den hitza edo hitz moltzoa ere koma tartean idazten da. Adibidez:*

Hortxe, bai, kajoian, ezkerreko aldean daude betaurrekoak.
Gorka, gure irakaslea, jakituna da.
Heu haiz hi, heu, mozolorik asko txatxar buru handi hori!
Kosme, Fakundoren semea, ez da etorri.

7) *Aditz baten ordeaz ere erabiltzen da, azkenik, koma; alegia, bi esaldik aditz berdina daramatenean. Koma gehiegi ez moltzotzeko, puntu ta komaz banatzen dira esaldiak kasu hontan. Adibidez:*

Ni matematikak ikasten ari naiz; nire anaia, filosofia.
Zazpi etorri ziren Lapurditik; Arabatik, bost; Gipuzkoatik, hamar eta Bizkaitik, sei.
Ugazabek baitetz erantzun dute; langileek, ezetz.

Puntu ta komaren idatz arauak

1) *Komak baino geldialdi handiagoa adierazten du puntu ta komak. Esaldien zati luzeen ondoren jarri ohi da edo oso elkarturik dauden esaldien ondoren. Adibidez:*

Hatzezale amorratuak dira idazle batzuk; beste batzuk, ez dute hatzerik ikusi ere nahi; beste idazle talde batek, ordea, erdibide batetik joan nahi du.

Ahaleginik egin gabe euskara batu nahi dutenek; beren gisara bakarrik, nahi ta nahi ez, ultradiktadore batzuek bezala, batu nahi dutenek; herria ta herri-herriko euskara kontutan harturik gabe batu nahi dutenek; ezjakineriaren kontrakeriaren kontrakeriaz batu nahi dutenek, euskalkiak eta euskalkien diakronia ta sinkronia gogotan harturik gabe euskara batu nahi dutenek, ez dute Euskal Herria maite.

2) *Aurkakoak edo adbersatiboak diren esaldi luzeak banatzeko ere erabiltzen da puntu ta koma. Esaldi laburrak direnean, aski da koma bat jartzea. Adibidez:*

Argi ta garbi irakasten digute euskara gure irakasleek Hizkuntz Eskola Ofizialean; hala ere, ez dugu guk ezer ere ikasten.

Behar-beharrezkoak ditugu, bai, euskarazko hiztegi ta gramatika berriak; baina nork egingo ditu?

Zuhurra da hori, baina alperra.
Etorriko da, baina berandu.

3) *Ikus komaren idatz arauetako zazpigarren puntua*

Puntuaren idatz arauak

1) *Luze samarrak diren esaldi osoak banatzeko erabili izan ohi da puntua. Hala ere, gaur, esaldiak arintzeko ta ulerterrezago egiteko, aldatu egin da jokera hori ta lehenago baino puntu gehiago jartzen dira, esaldi luzeak zatikatuz. Adibidez:*

Iluntzean hotelera heldu ginenean, telegrama bat eman zigun berehalaxe porteruak; eta, dardaraz ta arinetan irakurri

ondoren telegrama, harriturik gelditu ginen. Estuaren estuaz, bertan behera utzi genituen maleta eta gainerako gauza guztiak eta estaziorantz abiatu ginen arrapaladan. Baina ez zegoen trenik eta taxi hartu bat genuen.

Iluntzean heldu ginen hotelera. Telegrama bat eman zigun berehalaxe porteruak. Dardaraz eta arineketa irakurri genuen telegrama. Harriturik galdu ginen. Estuaren estuaz, bertan behera utzi genituen maleta eta gainerako gauza guztiak. Estaziorantz abiatu ginen arrapaladan. Baina ez zegoen trenik. Taxi bat hartu genuen.

2) Laburdura edo abrebiaturen ondoren ere puntua jartzen da. Adibidez:

K. Manterola (Kepa Manterola)

I. O. (Iñaki Orbe)

B. (Bizkaiera)

eusk. (euskara)

etab. (eta abar, eta beste)

orr. (orrialdea)

G. B. (Goian Bego)

3) Zenbakiekin erabiltzen den *-garren* atzizkiaren adierazpide bezala ere erabiltzen da puntua (Ikus zenbakien idatz arauak). Adibidez:

XX. mendean gaude.

Aurten de 200. urteburua.

4) Pentsamendu bat adierazteko multzokatzen diren esaldiak (bata bestearen jarraian jarririk), puntuen bitartez banatzen dira (*Puntu ta aurrera*). Baina pentsamendua aldatzen denean, puntua jarri ta hurrengo lerroan hasi behar da idazten (*puntu ta aparte*). Adibidez:

Kanta kantari, loari deika ari izan da, lehentxoago, Erroturreko Matxalen, besartean euki duen seinak lo egin zezan.

Hainbeste ordutan lorik egin gabe, begiak erreta ditut nik ere. Eztarria ere bai, hainbeste mahats aihen erre ondoren.

Santi indianoaren txaletaren ondoan nago. Oraintxe bertan pasatu dira nire ondotik Don Trifonen zerbitzari talde bi.

5) Beharrezkoa da puntu ta aparte pertsonaia baten hitzak, hitzez-hitz, edo elkarrizketa bat textu batean sartzen direnean ere. Adibidez:

Emekiro hurreratu zitzaion Gotzone.

—*Zer nahi duzu?* —*esan zion maitekiro— Zer, laztan horrek?*

—*Ezer ere ez* —*erantzun zion garrazki Koldok.*

Agure bat etorri zen arnasoska haien ondora.

—*Ikusi al duzue astorik hemendik?* —*galdetu zion bikoteari.*

—*Ez* —*erantzun zion Koldok.*

Baina pertsonaia baten hitzen edo elkarrizketaren aurreko esaldian *esan, erantzun, ihardetsi, galdetu* eta horrelako aditzen bat doanean, bi puntu jarri behar dira ta puntu ta aparterik gabe ere idatz daiteke orduan. Adibidez:

Emekiro hurreratu zitzaion Gotzone ta maitekiro esan zion:

—*Zer nahi duzu?* *Zer, laztan horrek?*

Koldok garrazki erantzun zion:

—*Ezer ere ez.*

Emekiro hurreratu zitzaion Gotzone ta maitekiro esan zion: «Zer nahi duzu? Zer, laztan horrek?» Koldok garrazki erantzun zion: «Ezer ere ez».

Ikus bi puntu ta komatxoaren idatz arauak.

Bi punturen idatz arauak

1) Norbaiten hitzak hitzez-hitz jartzen direla iragartzeko erabiltzen dira, lehenengo ta behin, bi puntu. Adibidez:

Luisek orduan oihuka: «Gora Euskadi askatuta!».

Josebaren erantzuna zein izango den ba dakizu: «Nik ez dakit ezer».

Zer dion hemen diozu? Entzun, txo: «Dagoenean dagoen txoa, ene enetxoa!».

Hala ere, lehen ikusi dugunez, nobela, kontu, ipuin, alegietan eta abar, aparte ere idazten da bi punturen ondotik eta komatxorik gabe. Adibidez:

*Lusek orduan oihuka:
—Gora Euskadi eskatuta!*

2) Zenbaketa bat iragartzeko ere erabiltzen dira bi puntu. Adibidez:

Bost izen ditu nire aitak: Patxi, Patxiko, Patxikote, Asto-patxikote ta aita.

Bi gauzagatik ez noa hitzaldi hori entzutera: berandu delako eta gai aldetik interesgarria ez delako.

Hiru euskalki bakarrik ezagutzen ditut ondo: gipuzkera, lapurtera eta bizkaiera.

3) Esandakoaren konklusio bezala edo zergaitia azaltzeko jartzen den esaldi baten aurretik ere jartzen dira bi puntu. Adibidez:

Higuingarria, azkena da mozkorra: tximinotu egiten du gizona.

Berandu ere ba zela ta, urrun ere ba geundela ta, logura ere ba ginela ta...: zinera ez joatea erabaki genuen.

Bi punturik gabe ere jarri daitezke, jarri, esaldiok. Begira nola jarri daitezkeen:

Higuingarria, azkena da mozkorra, tximinotu egiten baitu gizona.

Berandu ere ba zela ta, urrun ere ba geundela ta, logura ere ba ginela ta..., zinera ez joatea erabaki genuen.

(4) Liburu hontan hainbeste aldiz ikusi izan dugunez, adibideen aurretik ere bi puntu jarri ohi dira. adibidez:

Zein den h-dun hitz bat? Esate baterako: «zaharra».

Hona hemen, adibidez, euskal errefrau bat: «Garean gareana legez».

5) Kartetako agurraren ondoren ere, azkenez, bi puntu jarri ohi dira. Adibidez:

Itziar bihotzkoa: Hemen natorkizu berriz ere...

Nire guraso maiteok: Ameriketara etorri nintzenetik eta hona hiru urte igaro dira eta...

Etendura puntuen idatz arauak

1) Entzule edo irakurlearen gogoia ta arreta bizkortzeko egiten den etendura bat adierazteko erabili ohi dira, lehenengo ta behin, jarraian jartzen diren hiru puntuak. Baita esalearen edo idazlearen beldurra edo zalantza adierazteko ere. Adibidez:

Ez al dakizue nor etorri den gaur gure herrira?... Go-tzain berria.

«Txomin Agirre» nobela saria irabazi duena... zeu zara.

Aita hil zaiola esan behar diot?... Nik ez dut barrurik hortarako; esan... esango nioke, baina zeuk esan, mesedez.

2) Esaldi bat amaitu gabe gelditu dela edo mintzolanen batek eten duela adierazteko ere erabiltzen dira etendura puntuok. Adibidez:

Bueno, nik... Ba dakizu... Nik nahi dudana... Ez dakit nola esan baina... Nik nahi dudana...

—Abestu dezagun, lehenbizi, gure kantu...

—Isilik!!!

3) Zenbaketa bat nahi beste luzatu daitekeela adierazteko ere erabili ohi dira etendura puntuok. Adibidez:

Bizkaiko herririk gehienetakoak zeuden han: bermeotarrak, mundakarrak, bilbotarrak, lezamarrak, markinarrak, malla-bitarrak, getxotarrak, arratiarrak...

Gorriak, zuriak, berdeak..., denetarikoak ekarri ditu.

4) Textu bat aipatzerakoan, zatiren bat jarri gabe utzi dela adierazteko ere erabiltzen dira etendura puntuok. Baina holako kasuetan kortxeteen barruan jarri ohi dira. Adibidez:

«Gure Herria, horra gure xedea, bireuskaldun nahi genuke osorik —gero eta gehiagok, dirudinez—, izenezko eta alegiazko Euskal herria egiazko Euskal herri bilaka dadin [...]. Lana gaitza da eta ez genituzke eragozpenak gutietsi behar». (K. Mitxelena).

5) Aurretik ere gorta daiteke etendura. Adibidez: [...] eta beste zazpi ere bai.

[...] etxe ondoan zegoen; baina ez zuen inork ere han zegoenik jakin.

Harridura eta galdera marken idatz arauak

«Harridura eta galdera markak esaldien hasieran eta bukaeran jarri behar ote dira, ala bukaeran bakarrik? Gaztelaniak lehenbiziko bidea segitzen du, frantsesak bigarrena. Kontu honetan euskeraz, gaurko egunez, idazlerik gehientsuenek bigarren bidea harturik daukate, hau segitzen bait dute gaztelaniak ez, beste hizkuntza guztiek. Euskaltzaindiak ohitura edo joera hau ontzat ematen du. Beraz, *Erregela*: Harridura eta galdera ezaugarriak esaldiaren bukaeran bakarrik jarriko dira» (Euskaltzaindia, *Idatz arauak (Separata)*, XVI. EUSKERAN, Bilbao, 1971). Adibidez:

Denda hori Bidebarrieta kalean dagoena ba dakigu: baina zein lekutan ote dago? Hasieran ala azkenean?

Zein egunetan izango dugu batzarre hori?

Nor da?

Hau poza!

Isilik, mesedez!

Heu haiz hi, heu, mozolorik asko, txatxar buruhandi aspergarri hori!

Bi ta hiru harridura marka ere jartzen dira batzutan, expresio bide bezala, harridura hobeki adierazteko:

Oso merkea duzu. Zenbat balio duen?... Zazpi pezeta bakarrik!!!

Jesus!!!

Gora gu ta gutarrak!!!

Kontuz!!!

Eup!!

Parentesisaren idatz arauak

1) Esaldi baten osotasunerako beharrezkoa ez den azalpen bat jartzeko erabiltzen da, lehenengo ta behin, parentesisa. Adibidez:

Trenez joan zen Donostiara Katalin (kotxea aberiatuta bai zuen) eta mareatu egin zen.

«Ez da frogaketan ari beharrik, eskola ofizialaz jabetuko bagara (eta eskola ofizialaren bitartez adierazi nahi nuke kontrol ofizialaren azpian dagokeen edozein irakastegi), irakasle euskaldun eta euskaltzaleen beharrean gaudela erakusteko». (K. Mitxelena).

2) Hitez-hitz harturiko textu bat jartzerakoan ere, norena den edo nondik hartu den esaterakoan, parentesis barruan jartzen da. Dibulgazio liburuetan, egilearen izena bakarrik jartzen da, gehienetan, hor goiko bigarren adibide hortan ikusten dugunez. Beste adibide batzuk:

«Dagoenean bonbon, ez dagoenean, egon» (Herri esaera).

«Euskera idatziaz ari bagera... eta ortografiaz ezin bagodegu..., nola arraio egingo degu batasuna?» (K. Mitxelena).

«Inork ulertzen ez dituen gauza hauek esaten zizkiguten haur nintzenean, eta hitz nahasi horietan ezkutatzen zituzten nere gurasoek nituen zalantzen erantzunak. Oraindik ere oso gutxi atsegin zait gurasokerietan jarduten den gizona». (A. Lertxundi).

Goimailako lanetan, ikerlanetan etab., zehaztasun gehiagoz jarri behar dira datoak. Hona hemen adibide batzuk:

«Literatura proletarioari buruzko solasak kultura proletarioaren arazo barruan du bere lekua. Eta prolektultura hitzak ez du besterik adierazi nahi». (J. Azurmendi, *Kultura proletarioaz*, Jakin, Aranzazu, Oinarti (Gipuzkoa), 1973, 41. orr.).

3) Teatro-lanetako mintzologunen texto barruan doazen oharrak ere parenthesis tartean jartzen dira. Adibidez:

Krispinek: (Mariari dei eginez.) Maria! Nora sartu da neska hau, ba! Maria!... (Ba dator Maria). Non egon zara, ba? Zoaz arin estankora ta ekarri Jean pakete bat. Mariak: Bai, oraintxe bertan ekarriko dizut. (Ba doa Maria).

4) Zenbaketa bateko letren edo zenbakien ondoren ere erabiltzen da parenthesis, liburu hontan sarri askotan ikusi dugunez. Adibidez:

Hiru gauza hartu behar ditugu kontutan: 1) izenordeak, 2) izenlagunak eta 3) adizlagunak.

Lau hitz mueta aztertuko ditugu orain:

- a) bokalez amaitutako hitzak.
- b) kontsonantez amaitutako hitzak.
- d) -a itsastria duten hitzak.
- dd) eztabaidako hitz batzuk.

5) Arraia edo marra ere erabiltzen da parenthesisaren ordez. Ikus arraia edo marraren idatz arauak.

Komatxoan idatz arauak

1) Norbaitek esandakoa edo idatzirikoa hitzez--hitz jartzen denean, komatxo bikunen tartean idazten da. Adibidez:

«Ez naiz hara joango», esan zuen. Baina joan egin zen gero.

Apai z zahar batek esan zidana esango dizut: «Ikasi asko, txo, ikasi asko pixka bat jakiteko; gutxi ikasten baduzu, ez bai duzu ezer jakingo».

«Ez jakin galanta izan behar da benetan Euskara Idatziaeren korapilo bakarra eta nagusia». (Larresoro).

Baina bi punturen idatz arauetan ikusi dugunez, nobela, kontu, ipuin, alegietan eta abar, ez da komatxokik jartzen eta hurengo lerroan jartzen da norbaitek hitzez-hitz esana. Adibidez:

Pedro haserretu egin zen.

—Ez naiz joango hara —esan zuen.

Hala ere, joan egin zen azkenean. Eta...

2) Idazlanen tituluak eta aldizkarien, erakundeen, barkuen, kotxeen, abioien, zineen... izenak aipatzean ere komatxo bikunen tartean jartzen dira. Baina gero, azpimarraren idatz arauetan, ikusiko dugunez, azpimarraturik (eskuidatzietan) edo kurtsibaz ere jarri daitezke. Adibidez:

Nik ez dut ikusi zure «Zeruko Argia»rik.

Mitxelenaeren «Idazlan autatuak» irakurtzen ari naiz.

«Zazpi neska ta gizon bat» oso pelikula polita da.

Nik «Seat 600» bat nuen orduan.

«Canarias»en joan nintzen Ameriketara.

(3) Erdal hitzak, idazleak ironiaz asmatuikoak eta sentzu normala ez dutenek ere, koma bikunen tartean joan ohi dira, errakuntza bat ez dela, idazleak beren-beregi jarri dituela adierazteko. Adibidez:

Jesus, Maria ta Jose! Goizaldeko hiruretara arte egon zineten «boite» delako hortan?

Oso «eskuzabala» da... hartzeko.

Gure eskubideak eta «hankabideak» eskatuta ere, alperrik izango delakotan nago.

Bai, «arineketa» joan da, bai, alper hori, bi ordu eman ditu bidean eta.

4) Hitz baten esanahia, azkenik, koma bakunen tartean jarri ohi da. Adibidez:

*ardura 'axola'
iritsi 'heldu, ailegatu'
lar 'gehiegi, sobera'
jausi 'erori'*

Arraia edo marraren idatz arauak

1) Teatro-lanetan izan ezik, alkarrizketetan erabili ohi da, lehenengo ta behin, arraia edo marra. Adibidez:

Orduan maisuak hauxe esan zidan: —«Nola duzu izena?» —«Gorka Gerrikaetxebarria», erantzun nion, —«Nongoa zara?» —«Usurbilgoa, jauna». —«Zein etxetakoa?» —«Heldu ta bertakoa».

*Orduan maisuak hauxe esan zidan:
—Nola duzu izena?
—Gorka Gerrikaetxebarria —erantzun nion.
—Nongoa zara?
—Usurbilgoa, jauna.
—Zein etxetakoa?
—Heldu ta bertakoa.*

2) Parentesisa bezala ere erabiltzen da. (Ikus parentesिसaren idatz arauak). Adibidez:

Euskara ez da —eta beti gauza berdina esaten ez gara ibiliko— beste edozein hizkuntza baino zailagoa.

*Lau hitz mueta aztertuko ditugu orain:
— bokalez amaitutako hitzak
— kontsonantez amaitutako hitzak
— -a itsatsia duten hitzak
— eztabaidako hitz batzuk*

Gioi edo marratxoaren idatz arauak

1) Lerro baten azkenean hitz bat osorik jartzeko lekurik ez dagoenean, gioiaren bitartez zatitu behar da hitz hori. Baina berezkuntza batzuk egin behar ditugu:

a) Lerroaren azkenean hitz bat osorik jarri ezin daitekeenean, silabaka zatitu behar da. Silabak heurak ezin daitezke inoiz ere zatitu; osorik jarri behar dira beti. Adibidez:

*...zaz-
pi behi ta idi bi daude gure etxean.
...gaiz-
toa zara zu.*

b) Diptongoak ere ezin daitezke zatitu. Adibidez:
*... hemen gau-
de, itxaroten (ez hemen ga-).
...higui-
na ematen dit (ez higu-).*

d) Kontsonante bakunez edo bikunez bukatzen diren hitzak, deklinabide atzizki bat ezartzerakoan, hitz soil oso bat bezala zatitu behar dira. Adibidez:

*...zure antze-
koa da zure semea ere (ez zure antz-).
...lurre-
ra erori zitzaion (ez lur-).
...Eiba-
rren daude (ez Eibar-).*

dd) Kontsonante bakunez edo bikunez bukatzen diren hitzak, beste alde batetik, bokalez hasten den hitz eratorriak sortzeko atzizki bat ezartzerakoan ere, hitz soil oso bat bezala erabiltzen badira, hitz soil oso bezala zatitu behar dira. Adibidez:

*...gorputzal-
di txarra dut gaur (ez gorputz-).
...ezerez-
tu egin zuen (ez ezer-).
...ahule-
zia izugarria du (ez ahul-).*

e) Kontsonantez bukatzen diren aurrizkiak, bokalez hasten den hitz batekin elkartzean, hitz oso bezala erabiltzen badira, hitz oso bezala zatitu behar dira. Adibidez:

...*dese-*
ginda nago (ez *des-*).
...*ezor-*
duetan etortzen da beti (ez *ez-*).
...*birre-*
tsi egin du Euskaltzaindiak (ez *bir-*).

f) Hitz konposatuetan ere, hitz oso bezala erabiltzen badira, hitz oso bezala zatitu beharra dugu. Adibidez:

...*afalos-*
tean joango natzaizu (ez *afal-*).
...*arnaso-*
tsaren estua (ez *arnas-*).

Baina bi hitzak bereiz jartzen direnean:

...*afal-*
ostean joango natzaizu.
...*eliz*
aurrean dago.

g) Zatitu behar den hitz bat bokalez hasten denean, ez da konbeni lerroaren ezkenean jartzea bokal hori. Alderantziz, bokal batez bukatzen denean ere ez da konbeni hurrengo lerroaren hasieran jartzea. Adibidez:

...*ari*
marik ere ez zegoen kalean (ez *a-*).
...*egia*
esan dizut (ez *egi-* ta hurrengo lerroan *a*).

2) Hitz batean dauden lexemak eta morfemak banatzeko ere erabiltzen da gioia. Adibidez:

des-egin-da
ez-berdin-tasun-a
sudur-luze-a-k

3) Silabak eta letrak banatzeko ere gioia erabiltzen da. Adibidez:

z-e-k-e-n-k-e-r-i-a
gor-pu-tzal-di

4) Aurrizkia, artizkia eta atzizkia soilik (metahizkuntzaz) aipatzen direnean ere marratxoa jartzen da aurrizkiaren atzetik, atzizkiaren aurretik eta artizkiaren aurretik eta atzetik. Adibidez:

ber-, anti-, des- eta meta, aurrizkiak dira.
-ra- hori artizki bat da.
-tasun, ordea, atzizki bat da.

5) «Marratxoa da, zubi antzo, lokarria adierazteko erabiltzen den marra txiki. Bi hitzen artean edo hitzaren eta atzizkiaren artean jartzen da. Ez ordea beti. Adigarri honetzaz euskera idatzia gehiegi zama ez dezagun, kasu beharrezkoenetan bakarrik jarri behar dela uste dugu. Kasu hoietaz landara, bat ere markarik ez erabiltzea hobe». (Euskaltzaindia, *Idatz arauak (Separata)*, XVI. EUSKERAN, Bilbao, 1971, 12. orr.).

Horrexegatik, bada, berezkuntza hauek egin behar ditugu:

a) Pertsona edo toki izen berezien ondoren, aldizkari ta liburu izenen ondoren eta erdarazko hitzen ondoren doan atzizkia, izenok arrotzak, ezezagunak edo gutxi ezagutuak direnean bakarrik banatu ohi da marratxoaz. Adibidez:

Zoragarria da twist-aren ritmoa.
Ez dut western-spaghetti-rik ikusi gura.
Geyser-en filosofi teoriak.
Ez al zen hori Hitler-en burutazio bat izan?
Van Dick-en kuadru bat da.
Georgetown-era joan da, abioian.
Ba al dakizu zuk non dagoen Stavanger-ko portua?
Gero-ren 8. orrialdean.
Bai, Anaitasuna-n irakurri dut.

Baina izenok komatxoan tartean edo maiuskula hutsez idazten direnean, marratxorik gabe jarri ohi da atzizkia jarraian. Adibidez:

Ez dut «Anaitasuna»rik irakurtzen.

Zure «Euskal deklinabidea»n agertzen da hori, ezta?

«Gora Euskadi!»ka etorri zitzaigun.

PCkoen mitin batetik gatoz.

Azkenengo EUSKERAn ez da agertzen, behintzat.

MAGEFESAko langileak dira.

b) Hitz elkarteetan ere erabili ohi da gioia edo marratxoa: bigarren hitza lehenbizikoaren oihartzuna edo oihartzun bezela denean, bikote bat adierazten denean eta marratxorik gabe hitz elkarte den ala ez garbi ageri ez denean. Adibidez:

Goazen zapa-zapa Zamudiora.

On-ona da mutil hori.

Gorri-gorri-gorri egin zen neskatoaren aurrean.

Isil-misilka ari dira.

Kalerik-kale ibili ginen.

Berandu heldu ziren aita-semeak.

Zure izen-abizenak, mesedez.

Joan-etorri asko egin dut hara aspaldion.

Etxean zeuden senar-emazteak.

Kandela-argi batez aurkitu nuen liburua bibliotekan (baina kandela argia motela izaten da).

«Aurreko hitzak bilketan letraren bat galdu baldin badu, eta aurreko zein atzeko hitza laburra baldin bada, biak baturik idaztea hobe; bestela, herriz, bereiz banan. Luzea bezala jotzen da bi silabatik gora duen hitza. Adibidez: *abendats, arnasots, elizgizon, gizabide, gizalan, gizatalde, itsasertz*. Baina: *anai maitasuna, arnas gaitzaldia, ekonomi arazoa, eliz agintariak, filosofi saila, giza eskubideak, kultur gaiak, euskal kantari, literatur irakaskintza*. Baina bilketa egitean, bi hots, euskeraz elkartzen ez diren hoietakoak, elkar joko baluteke, hori gerta ez dedin, kasu horretan, hitzok bereiz idatziko dira. Adibidez:

eliz zerga, itsas xori» (Euskaltzaindia, Idatz arauak (Separata), XVI. EUSKERAn, Bilbao, 1971, 17. orr.).

6) Azkenez, metahizkuntza darabilgunean, hau da, hizkuntza hizkuntzaz hitz egieko daabilgunean ere marratxoaren bitartez eta azpimarraz bereizten dugu metahizkuntza (ikus azpimarraren idatz arauak). Gramatiketan erabili ohi da, batez ere, metahizkuntza. Adibidez:

Esaterako, *garbi-ri (garbi hitzari) -tu* atzizkia jarrietz gero, *garbitu* aditza sortzen da.

Z-ren ordez *s* jarri duzu.

Zenbat dira, guztiz ere, *h*-dun hitzak, ba?

Zenbaki guztiak ekarri dituzula korrikalarientzat esan duzu; baina *16*-rik eta *30*-ik ez dut hemen ikusten nik.

Kortxeteen idatz arauak

1) Textu bat hitzez hitz aipatzerakoan, zerbait jarri gabe uzten denean, etendura puntuak kortxeteen barruan jarritz adierazten da. Adibidez:

«Gure Herria, horra gure xedea, birreuskaldundu nahi genuke osorik —gero eta gehiagok, dirudienez—, izenezko eta alegiazko Euskal herria egiazko Euskal herri bilaka dadin [...] Lana gaitza da eta ez genituzke eragozpenak gutietsi behar». (K. Mitxelena).

2) Kodize ta inskripzioen kopietan ere, orijinalcan falta dena adierazteko, etendura puntuak jarri ohi dira kortxeteen barruan. Hala izango zela uste izanik, kopia-tzaileak bere kontura erasten duena ere kortxeteen barruan jartzen da. Adibidez:

[G] aldidila Vncueta ta Vergara.

[C] aldibarrec bere partea debala.

[Ar] amayo, suac erre açala.

[T] a sumi a [...] la Gurayarra,

5 Cerren ceuren jauna eznenca empara.

(3) Hotsak, ahozkatzen diren hotsak adierazteko ere kortxeteak erabili ohi dira. Adibidez:

Idatzi *jo* idazten da, baina esan [xo] / [yo] esaten da.

Barraren idatz arauak

1) Hitz biren alternantzia, hau da, bi modutara erabiltzen direla adierazteko erabili ohi da, lehengo ta behin, barra. Adibidez:

Hitzen amaierako *o* / *u* alternantzia.

2) Olerki textu bat hitzez-hitz aipatzen denean, lerroak bereiz idatzi gabe, jarraian, zuzen idazten badira, barraz banatzen da olerki lerro bakoitza. Adibidez:

«*Nonbaitetik abiatu nintzen / eta nombaitera noa. / Nondik nora / bideak daki / bideak bait narama*». (Gorka Trintxerpe, *Zorian baten zainak*, Bilbao, 1972, 173. orr.).

3) Fonemak ere barra tartean jarri ohi dira. Adibidez:

/k/ fonema oklusiba belare gorra da.

Apostrofoaren idatz arauak

«Apostrofua noiz erabili behar da? Honetan ohitura bat baino gehiago izan da eta da oraindik euskeraz idaztekoan. Adigarri honen zeregina eta marratxoarena ongi mugatu eta berezi behar dira bata bestetik, bakoitzari bere balio eta esanahi jakifia ezarriz. Berezketa hori egin nahiz, eta gaur idazlerik gehienek harturik duten bidea onartuz, Euskaltzaindiak erregela hau proposatzen du: hitz batean letra bat edo beste *jan* dela adierazi nahi denean, orduan jarriko da apostrofua. Esate beterako: *Bederatzi t'erdia*. Arrazoia: Hau da inguruko hizkuntzetan marka honi ematen zaion balioa edo esanahia. Gure artean ere franko ugariak dira bide honi jarriak direnak, eta marratxoaren eta apostrofuaren zereginak ongi be-

rezteko, bide hau hartu eta finkatu behar dela dirudi. Beraz, *Erregela*: Hitz batean hotsen bat ezabatu dela adierazi nahi denean, apostrofuaz aditzera eman bedi. Hontaz, ordea, oharpen bat egin beharra dago: benetazko premiarik ez denean (zerbait berezi adierazteko edo), horrelako *jate* hoiek ez direla iskribuz adierazi behar. Beraz, hitzak osorik idaztea gomendatzen du Euskaltzaindiak». (Euskaltzaindia, *Idatz arauak (Separata)*, XVII. EUSKERAN, Bilbao, 1971, 12. orr.).

Azpimarraren idatz arauak

Hitz bat edo hitz moltzo bat besteengandik bereiztu nahi denean, beste kolore batez, kurtsibaz, azpimarratzen eta abar idatzi ohi da inprimategietan. Eskuidaztietan azpimarratu egiten da.

1) Lehenbizi, komatxoaren ordez erabiltzen da azpimarra (ikus komatxoaren 2) eta 3) idatz arauak. Baina marratxoa ere jarri behar izaten da orduan kasu batzutan (ikus marratxoaren idatz arauak). Hona hemen adibide batzuk:

Nik ez dut ikusi zure *Zeruko Argia*-rik.

Bai, *boite* delako hortan egon ginen.

Hitz batean letra bat edo beste *jan* dela adierazi nahi denean...

Canarias-en joan nintzen Ameriketara.

Hori *Garoa*-n ere ba dakar.

2) Azpimarratzen bereizten dugu metahizkuntza ere (ikus 6) giori edo marratxoaren idatz arauetan). Adibidez:

Hona hemen *h*-dun hitz batzuk: *zahar, hartu, bihotz...*

Zeintzuk dira *b*-ren idatz arauak?

Ikus: *gizon*-i *-keria* atzizkia jarriaz *gero, gizonkeria*, hitza sortzen da.

«Ongi deritzat, erabat harturik behintzat, Baionan izenaren gainean erabaki zutenari. Dudakoenak, neure

ustez, hauek dira: *mendietatik* pluralean, *-tarik* aipatu gabe; bizidunetan, *-gan-ek baitan* (askaturik idatzia) behar luke aldamenean (*-gandik, baitarik*, eta abar), biak zilegi direlarik. Bizkaieraz, jakina, *-gaz* arras legezkoa da, beste eskualdeetako *-rekin-en* ordezko. (K. Mitxelena).

Esanera idazteko idatz arauak

1) Zer, Josetxo? Zer uste duzu zuk?

Zertan ari zara, asto hori!

Oraintxe, entzuleok, entzungo dituzue entzutekoak.

Kontuz, Iñaki! *zahar* eta *mahats h-rik* gabe jarri dituzu.

Bat, bi, hiru eta lau, mozkorrak hondatu nau.

Dena dela, egin egin behar dugu.

Zuk, ordea, ez dakizu hau.

Nik, egia esan, ez dakit zer jazo den.

Hauxe, bai, hauxe ekarri duzu zuk; orain ez esan ezetzik.

Gure maisua, Don Atilano, erdalduna da.

Fermin Bartzelonara joan da; Braulio, Melillara.

Kanpotarra da, baina euskaltzalea.

2) Hauxe esango diozu zure anaiari: ez dudala ekarri eskatu zidan liburua.

«Bai, jauna!», esan zuen; baina ez zuen ezer egin.

Ikasteko libururik ere ez nuen eta, gaia ere oso gaitza zen eta, gogo handirik ere ez nuen eta...: ez nintzen azterketetara joan.

Lau hizkuntza dakizkit: Euskara, espainera, italiera eta frantsesa.

hau, hori ta *hura* izenordeak dira.

Adiskide maite hori: Hemen natorkizu berriz ere zugana kartaz.

Nor etorri den ba dakizu?... Julio.

Orduan..., hara: lehenbizi... Gero esango dizut.

Kanpora!

Eup!!!

Zamudiokoak, Lezamakoak, Deriokoak...; Barakaldokoak, Getxokoak, Durangokoak, Gernikakoak...; Elantxobekoak, Markinakoak, Ermukoak... leku guztietarikoak etorri dira.

3) Hau (esan beharrik ba ote dago?) ba dakizue non egon den: espetxean.

Gure errefrau zahar batek dionez, «joan eta etorri, kapela gorri».

Hiru gauza azaldu behar ditut lehenbizi: 1) Napoleoneon non jaio zen, 2) noiz eta 3) noren semea izan zen.

Nik ez dut hartu zure *Garaia-rik*.

«Zeruko Argia»tik jaso dut.

Pelikula polita benetan «Amets morea».

Irakurri al duzu Saizarbitoriaren *Egunero hasten de lako?*

Western-spaghetti-rik ikustera ez noa ni.

Bai, gizona, *lar-ek* 'gehiegi' esan nahi du.

Hau ez da —eta beti gauza bat esaten ez gara ibiliko— txantxetako gauza bat.

EAJ ala ESKkoa zara du?

4) Zuri-zuri gelditu zen.

Hago isilik, buruhandi hori?

Zeru-lurrak Jainkoak egin zituen.

Tarteka-marteka idatzi dut liburu hau.

Gaixorik daude ama-alabok.

Batzarre-agiri bat eman didate batzarre agiri hortan.

Oso zaila da teologi gai hau.

Hori da gizataldea!

Hau da larriaren larria!

b-ren ordez *p* jarri duzu.

Aurrizkirik behinenak *ber-* (*bir-*) eta *des-* dira.

Oso hitz polita da *erakunde*.

Adibidez: *luze-ri -pen* atzizkia erasten bazaio...

Baiezko eta badaezpadako *ba* (*bai, ba da | baldin bada*) bitara idatzi behar ote genituzke, gaztelaniazko *solo* eta *sólo*-ren gisan?

Bost et'erdietan heldu ginen.

5) Denbora aurrera doa. Noizetik noizera, arteka-marteka, denbora aurrera doa; aurrera beti, erreka bateko ura bezala.

Lehen, orain, gero, atzo, gaur, bihar, ihaz, aurtan, datorren urtean...

Atzorik hona, egun bat gutxiago. Egun bat gutxiago ala egun bat gehiago? Egun luzea batzuentzat; laburra, beste batzuentzat. Gaua-eguna-gaua, haientzat; eguna-gaua-eguna, haientzat.

Anitz aurpegi dituen denbora aurrera doa beti, ba doa, ba doa, ba doa... beti berdin ta ezberdin. Denbora, aldia, astia... Baina zer da denbora? Denbora al da doana ala neu ote naiz noana?...

6) Ijitoek ez dute erlojurik, ez autorik, ez trenik, ez abioirik. Izadia da haien erloju hutsezina eta beren oinak eta astoak eta zaldiak eta karroak dira haien auto, tren eta abioiak.

Ijitoek ez dute telebisorik, ez zinerik. Sua, ipuinak eta elkarrizketak eta kantuak dira haien telebisio ta zinea.

Ijitoek ez dute elektrodomestikorik, ez butaka ta ohe ederrik. Ez dute usai gozorik, ez *whisky* ta Montecristorik. Gaurko teknika ta zibilizazioak ekarri dituen beste gauza on asko ere ez. Euskal abizen ederrik ere ez.

Ijitoek ez dakite idazten eta irakurtzen. Ez dakite zer gertatu zen Nagasaki ta Hiroshima-n. Ez dakite non dagoen Vietnam; Burundi eta Harlem ere ez.

Ijitoek ez dakite nortzuk diren Idi Amin, Mahoma, Kant, Marx, Carter, Iribar, Merckx... Ez dituzte egun-

daino entzun *weltanschauung, engagement, standard, long play, euskaranto...* ta horrelako hitzak.

Hala ere, guk galdu egin ditugun gauza on asko dituzte «ijito zikinok». Ba dituzte, bai, zorionez.

Askatasuna dute, lehenbizi...

7) Iluntzeko bi argi horiak bizturik, ba doa Zaldibi. Ba doa nonbaitera arineketan, itsu-mutsuka, zibuka, bozina hotsean, ketan... Estu ta larri doa.

Goienkale, Eskoikale, Erdikale, Ezkerkale, Barrenkale..., bizkor doa Zaldibi kalerik-kale. Hona eta hara, ba doa nonora. Baina nora?

Osasunmendiko haizezko karatula bat darama aurpegian arnasa hartzeko; haize garbizko karatula bat, haize usteldu hartatik ibiltzeko. Altzairuzko aterkin bat darama eskuetan, hauts-auria baita mara-mara. Kotoizko tapotz batzuk daramazki belarrietan, zarataren zarataz gortu ez dadin.

NAHASTESA, KASKOLA, URPINGI, ERREBE-SA, HITZONTZIO..., abidan doa Zaldibi anuntziorik anuntzio. Norantz ote doa?

Euria ta kea dantzan ari dira haize ustelduaren altzoan, ilunaren mozorroz jantzirik, *boite* izugarri hartan. Hiriburuko argi koloretsuak ere dantzan ari dira, sorginkiro, diru-etxeetan, jantokietan, dantza lekuetan, zineetan, dendetan...

GOZOTOKI, ARNOTXOKO, DROGAKABIA, EUSKARAHITZEGITENDA..., ximista bezala doa Zaldibi dendarik-denda. Nora?

—Zaldibi! Zaldibi!!! Zaldibi!!! —deika ari zaio adiskide bat.

—Zaldibi! Zaldibi!! Zaldibi!!! —deika ari zaio etsai bat ere.

—Agur! Agur! —erantzuten die Zaldibik.

Ez du, izan ere, gelditzeko astirik, lasai egoteko gogorik, ezer gogoratzeko girorik...

Fiat, Seat, Ford, Simca, Ferrari..., presaka doa Zaldibi berebil errekan igari.

Edonoiz? Edonora? Edozelan?... Joan doa Zaldibi, joan ta joan, arineketa, arrapaladan... Joan, bai, baina... nora?

Gelditu egin da. Aurrez-aurre jo du norbait.

Mercedes jo du ta min egin dio, antza, haserre baitago.

Eztabaidaka hasi dira orain biak. Eztabaidaka eta garrasika... burrukan, burruka gogorrean.

Hau da burdinotsa! Laster azpiratuko du Zaldibi Mercedesek. Zahar egin da egin ere Zaldibi ta!

Seat Txiki datorkio laguntzera Zaldibiri. Berehalaxe azpiratu dute orain Mercedes bien artean ta erdi itsuturik utzi diote hari begi bat...; baina Tanke erraldoi itsusia agertu da, bere adiskide Iskilorekin. Ene! Ene bada ta ni! Iskilo eta Tankek astindu-astindu egingo dituzte Zaldibi ta Seat Txiki.

Irrintzi kirrinkari samingarriak egiten ditu Seat Txikik Tankeren hankapetan. Mailatu egiten du honek. Hil egingo du...

Irribarrezka dago orain Mercedes burrukalarien ondoan, izerdia sikatzen, begiko zauria osatzen.

Zaldibik ihesari eman dio, purrustaka ta arnasoska. Kale arterik kale arte, han doa Zaldibi, karatularik gabe orain, alda-maldaka, kulunkan, zalantzan, aurrera ta aurrera... Baina nora?

Nork jakin nora doan?... Berak baleki!...

ZENBAKIEN IDATZ ARAUAK

«a) *Ehuneko hainbeste* adierazteko marka, zenbakiaren aurretik jar bedi. Adibidez: % = ehuneko bost. Arrazoia: euskeraren izakerak ordena hau eskatzen bait du.

b) *Ordinalak*: Erromatar zenbakiz idazten direnean, zenbakiaren ondoan puntua jarriko da ordinala adierazteko. Adibidez: X. mendea (Hamargarren mendea). Deklinazio kasua jarri behar denean, puntuaren ondoan atzizki soila jartzea aski da. Esate baterako: XX.ean (Hogeigarrenean), X.aren (Hamargarrenaren).

Zilegi bedi, ordea, honako beste era hau ere: *garren* beti osorik idaztea, zenbakitik tarte batez aldendua. Adibidez: X garren, XX garrenean.

Arabitar zenbakiz idazten direnean, puntu soila jarriko da azken zenbakiaren ondoan, ordinala adierazteko. Adibidez: 200. urteburua (Berrehungarren urteburua). Eta deklinazioan, berdin: puntuaren ondoan atzizki soila jartzea aski da. Esate baterako, *berrehungarrenean* era hontara idaz ditekete: 200.ean (edo CC.ean). Hala ere, ez da baztertzan beste era: *garren* osorik idaztea, zenbakitik tarte batez aldendua: 17 garren, 17 garrenaren. *Bat-i* dagokion ordinala *lehen* da eta, ahal dela, letraz idaz bedi.

d) *Kardinalak*. Nahiz eta zenbakiaren ondoren atzizkiren bat etorri, zilegi izan bedi tartean ezertxo ere ez jartzea. Adibidez: 8an (zortzian), 5ean (bostean). Arra-

zoia: Simpletasuna eta premiarik eza». (Euskaltzaindia, *Idatz arauak*, XVI. EUSKERAKo *Separata*, Bilbao, 1971, 11. orr.).

Fetxa idazteko arauak

Modu askotara idatzi izan da fetxa orain arte. Baina gaur gehien erabiltzen diren erak hauek dira:

a) Herriaren izena ta *-(e)n* atzizkia, koma bat ondoren, urtea eta *.eko* (garreneko), hila ta *-aren* atzizkia eta eguna ta *-(e)an* atzizkia. Adibidez:

Donostian, 1977.eko irailaren 8an.

Eibarren, 1943.eko urtarrilaren 10ean.

Bilbon, 1839.eko apirilaren 19an.

b) Herriaren izena ta *-(e)n* atzizkia, koma, urtea, hila ta *-ak* atzizkia ta eguna. Adibidez:

Markinan, 1964, otsailak 29.

Baionan, 1934, abenduak 5.

Zarautzen, 1965, urriak 12.

d) Herriaren izena ta *-(e)n* atzizkia, koma, urtea, koma, hila, eguna ta *-a* atzizkia (*-a-az* bukatzen direnak izan ezik). Adibidez:

Lezaman, 1953, uztaila, 25a.

Irunen, 1970, maiatza, 31.

Derion, 1977, Azaroa, 2a.

dd) Laburturik idazten denean fetxa, espainolez bezala idazten dute batzuk (2 - 8 - 77). Baina euskararen izakerak eskatzen duen ordena hau da: (19)77 - 8 - 2, edo (19)77 - VIII - 2.

Esanera idazteko ariketak

- 1) Ez dago txarto dirua % 10ean.
Poliki-poliki, ba doa XX. mendea ere.

Paulo VI.a da gure Aita Santua.

Atzo 20. orrialdetik 97. eraino irakurri nuen.

1545etik 1563ra bitartean izan zen hori.

Textu hau 18. orrialdean duzu.

Hirugarrenean aprobatu zuen.

Bai, 28 garren orrialdean dago.

Araban ere egiten zen euskera XVII. mendean.

Abenduaren 17an heldu ginen.

2. mailako ikasketak egiten ari da.

Datorren hilaren 15ean izango dugu batzarrea.

Landuchio-ren hiztegia XVI. mendean egina da.

Hirugarrenez irabazi du saria.

Bidebarrieta kalean bizi naiz, 13an.

Zenbakarren orrialdean dago hori?

2) «Bilbon argitaratu zen lehen liburua, Julio Urki-xoren iritziz, Matias Mares inprimatzaileak eman zuena da, G. Osorio portugesak latinez idatzi zuen *De Gloria Nobilitate*, 1578. urtean. Baina Bilbon euskaraz argitaratu zen lehen liburua Ostolazaren *Doctrina* izan zen, Cole de Ibarra-ren inprimategian 1796an. Eta Baionan argitaratu zen lehenengo euskarazkoa Bovrdot inprimatzaileak 1642an argitaratu zuen *Tresora*. XVII mendearen erdialdetik hasten dira euskarazko liburuak ugaritzen, ordura artekoak, asko ez direlarik ere, herbestean argitaratuak dira gehienak.

Ikus dezakegunez, euskal literatuak ere Pizkunde garaian agertzen ditu bere lehen kimuak, literatura landua bezala, zeren herri literatura, ahozkoa, aintzinagokoa dugu. 1512an hegoaldeko Nafarroa Gaztelak menderatu zuen, eta ifarraldean oraindik gelditzen zitzaioan errasuma xipi hartan ematen zuen literatura landuak bere hasera. Hau da, Nafarroa librean sortzen da literatura lantze hau. Ordukoa da Etxepareren *Linguae Vasconum primitiae*, 1545ean Bordelen argitaratua». (L. Villasante).

LOTURIK ETA BEREIZ (BANAN) IDATZI OHI DIREN HITZAK

«Euskeraz idaztean bada nahikoa zalantza eta istilu hitz eta hizki batzuekin. Hitz eta hizki hoietako batzuk, zenbaitetan, hurrengo edo aurreko hitzari loturik idazten dira, beste batzuetan bereiz, eta beste batzuetan, azkenik, marratxo batez aurreko edo atzeko hitzari elkarturik.

Hona hemen («Ez», «Bait» eta «Ba»ren hauzia beste batetarako utziz), maizenik gertatzen diren kasuak: 1) Hitz elkartek edo bilketak. 2) «Gabe» atzizkia. 3) «Baitan», «baitara», «baitarik»... deklinazioko kasuak. 4) «Arazi» / «Erazi», esanahi eragilea duen aditza. 5) «Ta» /, aditz ondoko atzizkia. 6) Hitz eta aditz ondoko «Edo». 7) Eta azkenik, duda sortzen duen beste zenbait hitz: «Omen», «Ote», «Ahal», «Bide», «Antza»... (Euskaltzaindia, *Idatz arauak*, XVI. EUSKERAN (Separata), Bilbao, 1971, 16.orr.).

Marratxo batez aurreko edo atzeko hitzari loturik idazten diren hitzak eta gainerako hitz elkartek lehen ikusi ditugunez gero (ikus marratxoaren idatz arauak), goazen loturik eta banan idazten diren gainerako hitzen idatz arauak jartzera.

ba-ren eta ez-en idatz arauak

Baiezko eta baldintzazko edo badaezpadako *ba* eta honen aurkako parekide den *ez* modu askotara idatzi

izan ohi dira. Adibidez: *ba nator* / *ba-nator* / *banator...* '(sí, ya) vengo'; *ez nator* / *enator* 'no vengo'; *banator* / *ba'nator* / *baldin banator...* 'si vengo...'; *ez banator* / *ez ba'nator* / *ez baldin banator...* 'si no vengo'. Baina aspaldion bi modutara bakarrik idatzi izan da gehienetan:

1) Baiezko esaldi soiletan eta baldintzazko (baiezko nahiz ezezko) esaldietan erabili ohi den *ba* aditzarekin batera (apostroforik gabe) eta *ez* banan. Adibidez: «*Badoa, badoa tren*», «*Zu ez bazoaz, neu joango naiz*», «*Banoa, han ikusiko nauzu*» etab.

2) Baiezko eta ezezko esaldi soiletan *ba* eta *ez* beti aparte (marratorik gabe) eta baldintzazko (baiezko nahiz ezezko) esaldietan loturik beti *ba* (apostroforik gabe) eta *ez*, jakina, aparte. Irakurleentzat eta irakasleentzat egokiago dirudi berezuntza honek. Adibidez: «*Ba doa tren, ba doa*», «*Gure aita ere ba dator hona*», «*Ibili ba dabil*», «*Eramaten baduzu, hobeto*», «*Banoa, han ikusiko nauza*», «*Zu ez bazoaz, neu joango naiz*», «*Basiliok egiten ez badu, zeuk egin!*», «*Ekarri ezin baldin badu, utz dezala bertan*» etab.

Hala ere, esaera bezala esaldi baten azkenean erabiltzen den *ez da?* galdera *ezta?* ere idatzi ohi da: «*Ez zara joan, ezta?*» 'No has ido, ¿verdad?', «*Bilbotik zatoz, ezta?*» 'Vienes de Bilbao, ¿no?'.

bait-en idatz arauak

Loturik eta bereiz, bietara erabiltzen da *bait*. Baina «lotuta idatziez gero, fonetika aldakuntzak errespetatuz idatzi behar da: *baitaki* (ez *baidaki*), *baitziren* (ez *baiziren*), *baitlitzateke* (ez *baitlitzateke*) eta abar. Hona hemen hizki-elkarteetan gertatzen diren aldakuntzak:

<i>bait n-</i>	= <i>bain-</i>	(<i>bainaz, bainabil</i>)
<i>bait h-</i>	= <i>baih-</i>	(<i>baihaiz, baihator</i>)
<i>bait d-</i>	= <i>bait-</i>	(<i>baitira, baitaude</i>)
<i>bait g-</i>	= <i>baik-</i>	(<i>baikara, baikinen</i>)

bait z- = *baitz-* (*baitzen, baitzekiten*)
bait l- = *bail-* (*bailuan, bailirake*) (Larresoro, Euskara batua zertan den, Oinati, 1974, 65. orr.).

Adibide batzuk: «*Ez dut hori entzuterik nahi, milaka aldiz gauza berdina entzuten aspertua bai naiz*», «*Zegamara doa, anaia gaixotu bait zaio*», «*Zergatik diozu ezetz, zeuk baitakizu inok ondoen?*», «*Ez nuen ikusi, berandu heldu bainintzen*» etab.

bide-ren eta *gabe-ren* idatz arauak

Atzizki bezala erabiltzen direnean (*-bide* 'medio, procedimiento, causa' eta *-gabe* 'in-, des-, falta de') loturik idazten dira. Osterantzean (*bide* 'camino, eta *gabe* 'sin') banan. Adibidez: *ihespide* 'subterfugio' (hitzez hitz: 'procedimiento de huída'), *ikasbide* 'método' (hitzez hitz: 'medio de aprendizaje'), *atzerabide* 'impedimento, obstáculo' (hitzez hitz: 'causa de retraso'), *paregabe* 'incomparable', *axolagabe* 'despreocupado', *zentzugabe* 'falto de juicio', *Barakaldora bidea* 'camino de (hacia) Baracaldo', *elizara bidea* 'camino de (hacia) la iglesia', *lotsa(rik) gabe* 'sin vergüenza' (baina *lotsagabe* 'sinvergüenza'), *diru gabe* 'sin dinero', *beharrianik gabe* 'sin necesidad'.

-bako eta *barik* ere erabiltzen dira *-gabe* eta *gabe-ren* ordez: *ganorabako* 'insustancial', *diru barik* 'sin dinero'.

baitan, baitara, baitarik eta abarren idatz arauak.

«Deklinazio kasuak lourik jartzen dira. «*Baitan*» sail honek, ordea, exzepzioa egiten du. Sortaldeko euskalkietan «inesibo» kasua, pertsona izakiekin, «*Baitan*» horrekin egiten da gehienetan; eta hurrengoak «*Baitara*», «*Baitarik*»...; *-gan*, *-gana*, *-gandik* eta abarren ordaina da. Adibidez: «*Amarengan*» / «*Amaren baitan*»; «*amarengana*» / «*amaren baitara*»; «*amarengandik*» / «*amaren baitarik*». Sortaldekoek bereiz jarri dute beti *baita* delakoa. Hala izan da eta da ohitura, eta hala segitzeko erabakitzen da». (Euskaltzaindia, *Idatz arauak*, XVI. EUSKERAN (Separata), Bilbao, 1971, 17. orr.).

arazi / erazi-ren idatz arauak

«Hitz honekin gertatzen diren kasu bereziak kontuan hartuz, honako bide hauek proposatzen dira:

a) *Arazi* nahiz *erazi*-ren aurreko aditza osorik da goenean, orduan hobe da biak aparte jartzea. Adibidez: *iraun arazi (erazi)*, *eman arazi (erazi)*, *hil arazi (erazi)*.

b) *Arazi* nahiz *erazi*-ren aurreko aditza mozturik badago, eta, R letrarekin bukatuz, T bat hartzen ez badu, orduan hobe da biak aparte idaztea. Adibidez: *eror arazi (erazi)*, *har arazi (erazi)*, *isur arazi (erazi)*, *sar arazi (erazi)*, *sor arazi (erazi)*. Baina: *sortarazi*, *sorterazi*.

d) *Arazi*-ren aurreko aditza mozturik badago eta A bokalarekin bukatzen baldin bada, loturik idatziko da, A biekin bat eginik. Adibidez: *aldarazi*, *benedikarazi*, *jokarazi*, *koordinarazi*, *obligarazi*, *sozializarazi*, *trabailarazi*, *ukarazi*.

Berdin egingo da, aurreko aditza, A bokalarekin bukatu ez arren, laburra baldin bada edo T bat hartzen badu. Adibidez: *Adierazi*, *ezagutarazi*, *galazazi*, *geldiarazi*, *helarazi*. Baina: *nabarmen arazi*, *ihardets arazi*, *iharros arazi*.

e) *Erazi*-ren aurreko aditza mozturik badago eta laburra bada edo T bat hartzen badu, orduan biak loturik idatziko dira. Adibidez: *adierazi*, *aldaerazi*, *bukaerazi*, *ezaguterazi*, *galerazi*, *geldierazi*, *helerazi*, *jokaerazi*, *ukarazi*. Baina: *alda erazi*, *benedika erazi*, *koordina erazi*, *obliga erazi*, *publika erazi*, *sozializa erazi*, *trabaila erazi*. (Euskaltzaindia, *Idatz arauak*, XVI. EUSKERAN (Separara), Bilbao, 1971, 18. orr.).

eta-ren idatz arauak

a) -ik edo -rik atzizkien sentidu bera duenean, loturik idatziko da, TA eta DA formak hartuz. Adibidez: *nekatuta dago*, *hilda aurkitu nuen*, *ohean etzanda zegoen*.

b) BAIT partikularen sentidu bera edo antzekoa duenean, aparte idatziko da, eta behar denean koma bat ezarriko zaio ondotik. Adibidez: «*Hau nire gorputza da*

eta». «*Hau dela eta, pozik etorri naiz gaur Donostiaran*». *Eta* honek badu bariante arrunta: TA.

d) Oraindik bada beste hirugarren kasu bat: «eta abar»en ordeztu «ta» edo «eta» soilki jartzea. Adibidez: «Pedro ta, joan ziren» (= *Pedro eta abar*, *Pedro eta honen lagunak*, *Pedro eta gainerakoak* esan nahi du). TA / ETA horren ondoren, zerbait jartzekotan, koma bat jar ditzake, baina beti ez da beharrezkoa: «Pedrok eta guztiz ondo egingo lukete hau». «Pedrok eta egin dute hau». (Euskaltzaindia, *Idatz arauak*, XVI. EUSKERAN (Separata), Bilbao, 1971, 18. orr.).

edo-ren idatz arauak

«Bai sortaldeko eta bai sartaldeko euskaldunen artean ere maiz gertatzen dira honelako esaldiak: «Joa-kinetik edo esango zuen hori». «Entzun edo zerbait egin du harek». Kasu honetan ere, EDO horren ondoren, zerbait jartzekotan, koma jarriko da; baina gehienetan ez da beharrezkoa ezer jartzea». (Euskaltzaindia, *Idatz arauak*, XVI. EUSKERAN (Separata), Bilbao 1971, 19. orr.).

ahal, ote, omen eta abarren idatz arauak

Ahal, *ote* (*ete*), *omen*, *ei*, *bide*, *antza* etab. bereiz jarri ohi dira beti. Adibidez: «Egin ahal baleza!», «Ba ote daki berak nora doan?», «Lehen etorri omen da», «Ez ei du ezer entzun», «Egin bide du», «Egin ahal dezaket», «Ez ote doa?», «Bostetan izan da antza», «Zazpi ekarri ei ditu», «Etorri al da?» etab (3).

(3) «AL: (G) partícula interrog.; es muy posible que provenga de *ahal*, pero dado que en la actualidad tan sólo se utiliza en G. en la forma de *al*, hemos preferido esta forma para evitar engorrosas confusiones con *ahal* 'poder': *etorri al da?* '¿ha venido?'; *etorri ahal da?* '¿puede venir?'; *egin al duzu?* '¿lo has hecho?'; *egin ahal duzu?* '¿lo puedes hacer?'. (XAVIER KINTANA ETA JOSEBA TOBAR, *euskal hiztegi modernoa - diccionario moderno*, Bilbao, 1977, 63. orr.).

- 1) Ba noa..., baina ez dakit zertarako.
Banoa..., han ikusiko nauzu.
Jakin ba daki; ondo jakin ere.
Jakin badaki, esan dezala.
Saldu ezin baldin badu, bota dezala.
Ez noa, ez.
Eta ez badatorkizu, zer egingo duzu?
Ez nuen erosi, liburudenda zarraturik baitzegoen.
Txominek azalduko dizu, horrek asko baitaki.
Ez dakit hori, ez bai dut ikasi.
Nola ikusiko nuen, ba, han ez bait naiz egon?
Ba dihardu bere lanean.
Bere lanean badihardu, laster bukatuko du.
- 2) Ustekabean, zulora erori nintzen.
Deklinabidekera mugagabea edo zehaztugabea.
Etxera bidean galdu nuen dirua.
Burugabe bat da hori.
Ez diozu aurkibiderik jarri liburu honi.
Azpibide bat bat egin dute bidegurutze hortan.
Lotsagabe bat zara zu, horixe!
Lotsarik gabe egon behar da hemen.
Beharrizanik gabe erosi zuen.
Jauna zuen baitan.
Maria baitaraino izan naiz (Mariarenganaino).
Galerazi egin zioten.
Jakineztasun bat adierazten du.
- 3) Zer edanerazi dizu?
«Viva España» kantarazi zidan.
Iraun arazi egin behar zaio.
Zer dela ta egin dute hori?
Ez nintzen joan, berandu baitzen.

Berandu zen eta, ez nintzen joan.
Lurdes eta etorri zaizkigu lehen.
Hamar edo ekarri ditu.
Joan edo, ez dakit, ba, zer egin.
Apurtu edo egingo zuen.
Aberiatu edo egingo zitzaion kotxea.
Egin ahal dezakegu, bai.
Baionara joan da antza.
Ez omen daki ezer.
Egin al dozue hori?
Ahal dugunean egingo dugu.

4) —«NORTASUN! NORTASUN!! NORTASUN!!! Hiriburuko dendarik handiena, ederrena, onena. NORTASUN! NORTASUN!! NORTASUN!!! Ez zaitetz zenbakitu, makinatu baloitu... Izan zaitetz zeu, nortasundun zeu. Zatoz, erdu NORTASUN dendara; etorri NORTASUNera».

Oraintxe sartu dira Tximino ta Tximina NORTASUN dendara, nortasunez jazteko.

—«Ile luzea, bizar luzea: nortasunaren seinalea. Baina garbitu, orraztu, dotoretu, lehenengo ta behin, zuen buruak. Non?... NORTASUNen, NORTASUNgo apaingelan. Hona bazatoz, berehalaxe...».

Bere ile luze ta bizar luzearekin, apaingelara sartu da Tximino. Hona begira, hara begira ari da.

—«Ba zatoz?... Mila koloretako ilea, mila koloretako begiak: nortasunaren ezaugarriak. Ile gorria, horia, horia, berdea..., edozein koloretako ilea NORTASUNen, NORTASUNgo apaingelan».

Bere ile labur eta bekain laburrekin, apaingelera sartu da Tximina ere.

—«Zaindu begiak; zaindu NORTASUNgo betaurrekotegian. Antiju gorriak, beltzak, urdinak, handiak, txikiak... Ikus! Premiazkoak dituzu ondo ikusteko».

Betaurrekoak erosi dituzte Tximinok eta Tximinak. Kristal berdezko txiki batzuk erosi ditu Tximinok. Kristak gorrizko handi nabarmen batzuk, Tximinak.

—«Nora zoaz alkandora zahar horrekin? Nora marinera zahar horrekin? Ez ote dakizu gaur horrelakorik ez dela eramaten? Iñork ere ez du horrelakorik erabiltzen. Gaur nikiak erabiltzen dira. Jantzi zaitetz, ba, arin gaurko modara. Ikus NORTASUNgo nikidenda. Nikiak, nikiak, nikiak..., gaurko nikiak, nortasunezko nikiak NORTASUNen».

Niki gorri bat hartu du Tximinok, hori bat Tximinak. «Ni arra naiz» ipintzen du papar aldean Tximinoren nikiak letra zuriz; Tximinarenak, ordea, «Superneska».

—«Ez al duzu ikusi oraindik NORTASUNgo frakategia? Ez?... Zertan ari zara, ba? Zatoz eta ikus: neurri guztietako frakak, era guztietako frakak, nortasundunek eramaten dituzten frakak. Zure zain dago gure frakategia, zure alde dago, zure onerako dago, zure arduraz dago NORTASUNgo frakategia».

Fraka zabal kolorga batzuk jantzi ditu Tximinok; fraka estu marroi batzuk Tximinak. «Nortasun» ipintzen du Tximinoren fraken atzeko poltsikoan letra grisez. Tximinaren atzeko poltsikoan, ostera, «33» letra berdez.

—«Abarketarik eta abarkarik ez du jazten inork gaur. Zergatik zuk? NORTASUNgo oskitegian egon ez zarelako, oinetakoak ematen duten nortasuna zer den ez dakizulako. Baina nora joan gaur nortasunik gabe?... Inora ere ez. Nortasunduna, ostera, edozein lekutara. Nortasundu zaitetz, ba, NORTASUNgo oskitegian».

Takoi handidun zapata batzuk erosi ditu Tximinok. Kakanarru bat izanik, erraldoi bat ematen du. Takoi txikidun bota luze batzuk erosi ditu Tximinak ta andaluzen dantza bat egiten hasten da pozaren pozez.

—«Niki hutsean ez zaitetz joan inora badaezpadan. Jantzi ezazu kanguro arin bat edo trenka bero bat bes-

tela. Jantzi..., baina non? NORTASUNgo kangurotegia, jakina».

Tabardo bat hartu du Tximinok eta anorak bat Tximinak. Beltza bata, berdea bestea.

—«Jantziatarako kolonia, ilectarako txanpua, eskueatarako leungarria, oinetarako hautsa, besapeetarako usain gozoa..., zuk behar duzun guztia... eta gehiago: NORTASUNen. Etorri, ikusi... NORTASUN! NORTASUN!! NORTASUN!!!».

Aldaturik, berriturik, gaurkoturik atera dira kalera Tximino ta Tximina ta hor dabilta jende arterik jende arte...

ABREBIATURAK

Abrebiatura edo laburdura gutxi erabili izan ohi da euskaraz orain arte. Bibliaren itzulpenetan gehienbat: *Mt.* (Mateo), *Mk.* (Marcos), *Lk.* (Lukas), *Jn.* (Juan), *Jos.* (Josue), *Am.* (Amos), *Is.* (Isaias) etab. Baina gaur asko gehiago erabili ohi dira. Haugatik, ba, hona hemen gaur erabiltzen diren eta erabili daitezkeen abrebiatura edo laburduren zerrenda:

A (Arabako euskalkia)
abl. (ablatibo)
ad. (adiera)
adb. (adberbio)
adj. (adjetivo)
akus. (akusatibo)
al. (alemaniera)
alt. (altura, goratasun)
Anat. (Anatomia)
arab. (arabaera)
arg. (argot)
Aritm. (Aritmetika)
ark. (arkaiko)
Ark. (Arkeologia)
Arkit. (Arkitektura)
art. (artikulu)
Astron. (Astronomia)
B (Bizkaiko euskalkia)
Bibl. (Biblia)
bizk. (bizkaiera)

Bot. (Botanika)
D. (Don)
D.^a (Doña)
dat. (datibo)
dim. (diminutibo)
e. a. (eta abar, etcetera)
e. b. (esate baterako)
ed. (edizio)
erg. (ergatibo)
esp. (espainiera)
etab. (eta abar, eta beste)
etc. (etcetera)
eusk. (euskara)
exkl. (exklamazio)
ext. (extensio)
f. (franko)
fam. (familiariki)
fem. (femenino)
Filol. (Filologia)
Filos. (Filosofia)
Fis. (Fisika)
fol. (folio)
fr. (frantses)
Fr. (Frai)
fra. (faktura)
frakz. (frakzio)
g. (gramu)
G (Gipuzkoako euskalkia)
g. b. (goian bego, requiescat in pace)
gazt. (gaztelania)
gen. (genitibo)
ger. (gerundio)
Geogr. (Geografia)
Geol. (Geologia)
Geom. (Geometria)
giz. (gizalan)
gr. (gramu)
Gram. (Gramatika)
grek. (greko)
Hekt. (Hektarea)
H.^a (Historia)
h. d. (hau da)

h. c. (hitz elkartueratako)
h. h. (hitzez hitz)
hol. (holandes)
ibid. (ibidem, leku beratan)
id. (idem, berdin)
ik. (ikus)
ing. (ingles)
inp. (imperatibo)
inter. (interjekzio)
irud. (irudikorki, zentzu figuratu)
it. (italiera)
J. K. (Jesukristo)
J. K. a. (Jesukristoren aurretik)
k. (kilo)
K. a. (Kristoren aurretik)
kap. (kapitulu)
kat. (katalan)
kb. (kilobatio)
Kim. (Kimika)
km. (kilometro)
konj. (konjuntzio)
konp. (konpara(tu))
kos. (koseno)
l. (litro, lerro, luzera)
L. (Lapurdikoko euskalkia)
lap. (lapurdiera)
lat. (latin)
Lit. (Literatura)
Ling. (Linguistika)
lit. (literalki)
liz. (lizentziatu)
m. (metro, minutu)
mask. (maskulino)
Mat. (Matematika)
Med. (Medizina)
Mek. (Mekanika)
Metr. (Metrika)
mm. (milimetro)
mod. (modernoki)
Mus. (Musika)
n.^o (numero)
naf. (nafarrera)

NB (Nafarroa Behereko euskalkia)
 Nat. H.; (Natur Historia)
 NG (Nafarroa Garaiko euskalkia)
 nom. (nominatibo)
 orr. (orrialde)
 Pint. (Pintura)
 pl. (plural)
 plur. (plural)
 prob. (probintzia)
 pta. (pezeta)
 S. (San)
 sal. (salmo)
 sg. (singular)
 sing. (singular)
 sint. (sintetiko)
 Soziol. (Soziologia)
 sust. (sustantibo)
 t. (tomo)
 tit. (titulu)
 Z. (Zuberoako euskalkia)
 zenb. (zenbaki)
 zent. (zentimo)
 zm. (zentimetro)
 Zool. (Zoologia)
 zub. (zuberoera)

ARIKETAK ETA GOGAKETAK EGITEKO IPUIN BAT

Idatz eta Mintz

—Ei! Erranbidek bikiak izan ditu..., bikiak izan ditu. Gaur goizean izan ditu. Gaur goizean izan ditu..., ditu. Eta siamesak, soinkideak..., soinkideak. Eiii!! Erranbideren etxean bikoitzak jaino dira, bikoitzak eta soinkideak..., soinkideak. Txiau, txiau, txiau! Biki siamesak euki ditu Erranbideren emazteak..., emazteak. Bai, bai; gaur goizean izan da eta oso ondo daude..., oso ondo daude. Brrra, brrra, brrra! Purrra, purrra, purrra! Entzun! Biz, biz, biz! Potx, potx! Hau berri pozgarria! Hau poz berria! Biki soinkideak izan ditu goizean Erranbidek..., Erranbidek. Zoragarriak dira..., dira. Txitxi, txitxi, txitxi! Kutx, kutx, kutx! Biki soinkideak..., biki soinkideak. Erranbidek..., Erranbidek. Gaur jaiegun! Ospatu dezagun! Gora gu ta gutarrak..., gutarrak! Eiii!!!

Berri zabaltzailearen deiak eta deiadarrak, arbolarik arbola ibili ondoren, oihartzundu egin ziren trokarteko haitzetan eta deiez eta deiadarrez bete zen Eki-dazu guztia. Eta izadiaren orfeoi nabarmena Erranbideren bikien jaiotza ospatzen hasi zen mila abesti ezberdin bateratsu kantatuz eguzkiaren zuzendaritzapean.

Txori txirripitxiolarien bibolinen soinu koloretsuak zibuka zebiltzen txirritxirrien kirkir eguzkitsu etengabeetan. Erreka atsozahartuen txutxutxu zurrumurrutsuak ugaraihoen gitarra lakarrak gozatzen ari ziren. Hostoen

pirpir berdea haizearen txistu bizi eztitsuaeren altzoan dantzan...

Gertaera ospagarria izan zen, izan ere, Erranbi deren biki soinkideen jaiotza!

Erranbideren etxean bertan ere ba zen kantu ta algararik ugari. Telebisiokoak, irratikoak eta periodistak ere hantxe zeuden, orain hemen, gero han, geldi egon ezinik, dena jakin gurarik, dena ikusi nahirik, dena hartzeko gogoz.

—Lehenengo jaio denari *Hizjario* esango diogu eta *Hitzeder*, bigarren jaio denari —esan zuen, pozaren pozez, Erranbidek.

—Ez! Ez horixe! —erantzun zion berehalaxe emazteak.

—Ez?

—Ez!

—Zergatik, ba, laztan hori! —maitekiro ta samurkiro Erranbidek.

—Izen itsusiak direlako.

—Itsusiak? Oso politikak dira, nire ustez.

—Zera dira politikak! Izen kontuan zuk ez dakizu ezer.

—Zeintzuk ipiniko dizkiogu orduan?

—Lehenengo jaio denari *Mintz* jarriko diogu eta *Idatz*, bigarren jaio denari.

—Biak bat izanik, *Mintzidatz* deitzea ez ote litzateke hobe?— esan zuen albotik apalkiro periodista gazte batek.

—Ez. Horrela izatekotan ere, hobe *Idazmintz*, politagoa baita, gozoagoa ere bai belarrirako. Baina ez, ez; bat dira baina, bi ere ba dira, eta *Mintz* eta *Idatz* esango diogu, *Mintz* jaio da ta lehenengo. Edo... *Idatz* eta *Mintz*, bata zein bestea jaio lehenengo, berdin baita.

Idatz eta *Mintz*?... Bai; politago honela; politago, bai. *Idatz* eta *Mintz* esango diogu. Esateko ere errezago: *Idatz* eta *Mintz*. Ez duzue uste?

—Bai, bai, bai— erantzun zuten Erranbidek, telebisiokoek, irratikoek, periodistek eta gainerako guztiek.

Eta esan ta izan, horrela izan zen: Erranbideren biki siamesak *Idatz* eta *Mintz* izan ziren.

Egunak joan eta egunak etorri, titia edan eta titia edan; urteak joan eta urteak etorri, jan ta edan eta edan eta jan, handi egin ziren *Idatz* eta *Mintz*.

Idatz baino handiagoa ta zabalagoa zen *Mintz*. Bizkorragoa ere bai oinez ibiltzen. Zabar samarra bai, baina oso argia, alai ta herrikoa zen *Mintz*. *Idatz*, ordea, serioagoa zen eta oso neurtua ta zehatza. Irudimen onekoa ta ateralditsua zen *Mintz* eta behingo batean ikasten zituen exeko, hauzoko, herriko..., Ekidazu osoko esakerak, errefrauak, ipuinak, kantu zaharrak... Erranbidek hau jaiotzean esan zuenez, hitz jario bat zen, bertsolari jator bat. Adimen onekoa zen, ordea, *Idatz* eta jakintsu argia ta sakona. *Mintzen* berezko jakituria batu, mehaztu, zuzendu ta edertu egiten zuen eta idatzi. Olerkaria zen *Idatz*. *Berezko*, *Praktiku* ta *Konkretu* esaten zioten *Mintzi* herritarrek; *Abstraktu*, *Logiku* ta *Teoriku*, ostera, *Idatzi*. Ezberdinak izan arren, ondo konpontzen ziren biak. Bi izanik, bat zirudien.

Pozik zegoen Erranbide ere bikoitz soinkideon nahi ta nahi ezko elkartasuna anaitasunezko ta gogozko elkartasun bihurtu zela ikusirik. Eta maiz gogoratzen zuen haiek jaiotzean emaginak esandakoa:

—Haserre edo adiskide, soinkideok soinkide. Ez ahaztu, Erranbide, esaera zahar hau. Eta beste berri hau ere ez: *Idatz* eta *Mintz*, batean bi: luzaro ezin banan bizi. Hain zuzen ere, elkaturik, beti elkaturik bizi izateko jaiok dira. Baina begira: hobe izango zaiela loturarik gabe askatasunez bizitzea ta soinkideok banatzea gura izango duzue, beharbada, bihar-etzi, ahalbait arinen banatzea. Ez egin horrelakorik, Jainkoarren! Geldi, mesedez, Erranbide. Ez banatu inoiz soinkideok.

Ez! Izan ere, bizi izango badira, elkarrekin bizi beharra izango dute, bat eginik bizi beharra. Ez banatu, ba, inoiz Idatz eta Mintz. Entzun duzu?... Nahiz ete handiagoa hazi Mintz, nahiz eta haserretu Idatz, ez banatu sekula ere; bion hondamendia letorke bestela, bion hondamendia eta zeun hondamendia ere bai. Kontuz, Erranbide! Zuhur ibili ta gogotan hartu esan dizudana. Ez egin jaramonik sasi-jakitunen esanari. Zaharren esacrak, guztiak jazoerak. Asko daki zaharrak; erakutsi beharrak.

Pozik zegoen Erranbide bere soinkideekin. Eta ego-tekoa zen. Baina, hala, ere, zirikatu egiten zuten Hiriburuko bere adiskideek, zirikatu, behin eta berriro Idatz eta Mintz banatzeko eskatuz.

—Inoiz ere ez banatzeko esan zidan emaginak—
erantzuten zien behin eta berriro Erranbidek.

—Emaginak? Nor zen hura, ba? Zer zekian atso zahar...

—Ba zekian!

—Sasi-medikuen zerak; besterik ez. Hara, Erranbide: Hiriburuko osagile jakintsuek esan digute; bai, sarri askotan esan digute kaltegarri zaiela Idatzi ta Mintzi beti elkarrekin egon edo ibili behar hori. Gainera, kaltegarri zaizula zeuri ere.

—Bai? Asko dakite, gero!

—Hobeto ibiliko liratekeela banan esaten dutenez gero...

—Ez dut uste.

—Baietz, ba, Erranbide! Mintzen berezkotasun etorritsua ito ainean darabil Idatzek. Tamalgarria benetan! Beste alde batetik, Idatzen zehaztasun jakintsu ta apaina nahasteborrastetu egiten du Mintzek.

—Hori bai, baina...

—Banatu ta askatu egin behar dituzu, hainbat lasterren egin ere, bakoitza bakoitzago izan dadin, bakoitzaren nortasuna sendoagotu dadin. Zer diozu?

—Ez dakit, ba!...

—Ezbaian zaude?

—Ezbaian edo... Zuok diozuen egia izango da, beharbada; baina emaginak esana ere...

—Egiak bide bat baino ez du, Erranbide. Ez al duzu konfiantzarik guregan? Ez al zaitugu adiskide?

—Bai, bai; baina beldur naiz.

—Beldur? Ez zaitetz kokoloa izan. Zatoz gurekin Hiriburura. Hantxe duzu etxe bat soinkideak banatzeko, beren-beregi horretarakoxe egina. Eraman hara Idatz eta Mintz! Eraman eta behingo batean banatuko dizkizute han hango banatzaile entzutetsuek. Goazen, Erranbide. Ez zaitetz beldurtu. Ikusiko duzu nola poz-tuko zaren gero. Goazen! Bazatuz?...

—Joan joango nintzateke; eramanez eramango nituzke Idatz eta Mintz. Baina...

—Bai ala ez?

—Ta gero?

—Gero... hotz ez dena, bero! Ea! Goazen arin!

Ekin eta ekin, ekina okerra baita, azkenean baietza eman zien Erranbidek beronen adiskide tematiei.

Esan ta egin, Hiriburuko banatzaile ospatsuengana eramanez zituen Idatz eta Mintz Erranbidek. Adiskideen kotxe zuri dotore batean eramanez zituen.

Besarka ta musuka, ezezka ta aieneka joan ziren Idatz eta Mintz klinikara, mozkorti bi legez, bi zoro bezala, gaixo biren entzera. Ez zuten banatzerik nahi; ezeratik ere ez.

Erranbidek berak ere ez zuen nahi bere soinkide kutunak banatzerik baina..., ez zuen nahi baina, adiskideen bultzakada ta aupada ta ekinak zorabiatu egin zuten gixaxoa.

Iluntzea zen Idatz eta Mintz banatzaileengana heldu zirenean; iluntze larria. Kalerik-kale ta etxerik-etxe,

arineketan zetorren gau beltza eta berehalaxe sabeleratu zuen Hiribururu. Bere sabel erdimintsura sartu zuen gau beltzak Hiribururu, hurrengo goizeko egunsenti argitan berriz jaio zedin.

Indizio bana eman zieten, lehenengo ta behin, banatzaileek Idatzi ta Mintzi, nahi ta nahi ezko indizio mingarri bana. Eta derrigorrezko lotara joan ziren bat-batean.

Ametseta asko egin zuen Mintzek: «Bakarrik zegoen gela argitsu batean, baina ez zuen ia ezer ikusten. Itsutu egin ote zen, bada? Ez zekian non zegoen...; kantu hotsa zen: «XX. mende, jende, jende...». Banatzaile mordo bat agertu zen bere aurrean mozarroz jantzirik, kutxiloeekin..., kutxiloeekin? Behi zahar bat ere han zegoen, murrusaka, eta haragi zatiak zintzilik odoletan... Ene! Telebisioan balet bat! Kantu hotsa berriz ere: «*Hona hemen batean, aurrean, bi euskaldun; batasuna = askatasuna; lehenbailehen banatu ditzagun!*». Behia murrusaka, haragiak dindilzika odoletan... Haragitegiren batean ote zegoen, ba?... Joan nahi zuen nonbaitera, ihes egin handik, alde banatzaile doilor haiengandik. Ahal izan balu bai, baina ezin ezertara ere. Ezin ikusi, ezin ibili, ezin arnasarik hartu... Hura zen estuaren estua ta larriaren larria! Eta banatzaileak beragana zetozen, beragana ganorabako keinuak eginez, beragana zuzen eta irribarre maltzurrez, eskuetan kutxiloak zituztelarik, beragana... Ai! Belarriak eta sudurra moztu egin zizkioten... («*Hart'i'p'au; hua'rtzak...*», esan zuen lehenengo banatzaileak). Bihotza eta begiak atera zizkioten... («*Alaba, alabea, alabia, alabe, alabi*»..., esan zuen bigarren banatzaileak). Atzamarrak ebaki zizkioten hurrengo... («*Gizonei, gizonari, gizonai, gizoner...*», esan zuen hirugarren banatzaileak). Eskuak eta hankak kendu... («*Aitak esan nau...; noa Donostiara.... aitari ikusi dut Bilbon...*», esan zuen laugarren banatzaileak), Zati-zati egin zuten azkenean. Baina bizirik zegoen. Bizirik?... Norena zen orduan han kirofanoaren gainean luze zegoen gorpua? Berea zen; berea, bai. Berea? Nola baina? Gorpua osorik zegoen eta bera zati-zati eginda. Zati-zati eginda eta bizirik bera eta gorpua gorpua. Idatzen gorpua ote zen? Ez, bera zen. Eta Idatz? Ez zegoen han. Non ote zegoen? Norekin? Nola? Bizirik ala hilik? Hi-

lerrian?... Ene bada ta ni! Bera ere Ekidazuko hillerrian zegoen orain, banatzailerik gabe, hautsez beterik, hotzak hilik, lotan...».

Goizaldera arte egin zuten lo Idatzek eta Mintzek. Banaturik zeuden itzartu zirenean eta oso ondo, antza.

Telebisiokoak, irratikoak eta periodistak ere hantxe zeuden heuren ondotoxoan, zain.

Euria zen kanpoan, zarra-zarra. Hotz eta ilun. Neguko goizaldea.

—Zorionak, Erranbide, zorionak!!!

—Eskerrik asko, mila esker, esker mila! Esker mila, mila esker, eskerrik asko!— erantzun zien Erranbidek banatzaileei, adiskideei, telebisiokoei, irratikoei, periodistei eta Idatzi ta Mintzi, pozaren pozez.

Emagina etorri zitzaion burura bat-batean Erranbideri, emagina eta behinola emaginak esandakoa.

—Ba! Jakina! Emaginaren jakituria ta esanak eta ahuntzaren gauerdiko eztula, berdin samarrak. Jakina! Eta hainbeste urtetan euki ditut loturik Idatz eta Mintz..., atso zahar bategatik! —esan zuen bere artean Erranbidek irribarre gozatsuz.

Idatzen eta Mintzen banatze hori zela ta, ba, pozik zeuden denak. Denak edo... Hain zuzen ere, urduri zeuden banatzaile batzuk. Isilik, baina urduri, artega, ezinegenez. Zergatik? Idatz zurbildu egin zelako. Gerripetako lore bat zirudian, margul-margul.

Erranbide bera ere konturatu zen.

—Zer?— galdatau zien banatzaileei.

—Ez, ez da ezer. Egon lasai, Erranbide!

Mintz ere ubeldu, berdoztu, morantzatu egin zen.

—Zer?— galdetu zuen berriz ere Erranbidek.

—Ez, ez da ezer, ez da ezer. Zaude trankil!!

Zerbait ba zen, arnasarik gabe gelditu bai zen gerotxoago Idatz. Mintz ere bai.

Hara ta hona, estu ta larri zeuden banatzaileak. Hara ta hona, arineketa, izerditan, eztitan zeuden te-lebisiokoak, irratikoak eta periodistak.

—Ez da ezer, Erranbide. Ikusiko duzu —esaten zioten adiskideek Erranbideri.

Arnasa artifizialki hartzen jarri zituzten Idatz eta Mintz. Gero, indizioz bete, igurtziz...

—Banatu dituzuelako izango ote da? —geroago ta urduriago ta larriago Erranbidek.

—Bai zera! Ez, ez, ez.

Geroago ta zurbilago egin zen Idatz eta gogortu. Geroago ta ubelago, ostera, Mintz; ubelago ta bigunago.

Orduak, egunak, hilak, urteak joan eta etorri, Idatz momia bihurtu zen eta Mintz usteldu ta desegin.

Lurperatu egin zuten Mintz Ekidazuko (Zezenlarruko) hilerrian. Idatz, ordea, museo batera eramán zuten eta hango bitrina eder batean sartu. Eta Erranbideren adiskideek hauxe idatzi zuten bitrinaren barrenean urrezko letraz:

IZANKIZUN IZAN ZENAREN IZANA

Erranbide mututu egin zen ta gaixotu ta hil handik lasterrera.

Izadiaren orfeoi nabarmena ere mututu egin zen.

AURKIBIDEA

BI MAISUREN IRITZIAK	7
SARRERA	11
ALFABETOA	15
BOKALEN IDATZ ARAUAK	17
-a itsatsia edo organikoa	17
i-ren idatz arauak	22
Bokalen arteko alternantzia batzuk	23
Diptongoak	26
Esanera idazteko ariketak	27
KONTSONANTE BAKUNEN IDATZ ARAUAK	31
b-ren idatz arauak	31
f-ren idatz arauak	32
g-ren idatz arauak	32
h-ren idatz arauak	33
j-ren idatz arauak	39
k-ren idatz arauak	40
l-ren idatz arauak	41
m-ren idatz arauak	43
n-ren idatz arauak	43
ñ-ren idatz arauak	44
r-ren idatz arauak	44
s-ren idatz arauak	45
x-ren idatz arauak	51
z-ren idatz arauak	51
Esanera idazteko ariketak	53
KONTSONANTE BIKUNEN IDATZ ARAUAK	61
dd-ren idatz arauak	61
ll-ren idatz arauak	61
rr-ren idatz arauak	61
ts-ren idatz arauak	62
tt-ren idatz arauak	63
tx-ren idatz arauak	63

tz-ren idatz arauak	65
Esanera idazteko ariketak	67
MAIUSKULEN IDATZ ARAUAK	73
Esanera idazteko ariketak	75
PUNTUAZIO MARKAK	77
Komaren idatz arauak	77
Puntu ta komaren idatz arauak	79
Puntuaren idatz arauak	79
Bi puntuaren idatz arauak	81
Etendura puntuen idatz arauak	83
Harridura eta galdera marken idatz arauak	84
Parentesisaren idatz arauak	85
Komatxoaren idatz arauak	86
Arraia edo marraren idatz arauak	88
Gioi edo marratxoaren idatz arauak	89
Kortxeteen idatz arauak	93
Barraren idatz arauak	94
Apostrofoaren idatz arauak	94
Azpimarraren idatz arauak	95
Esanera idazteko ariketak	96
ZENBAKIEN IDATZ ARAUAK	101
Fetxa idazteko arauak	102
Esanera idazteko ariketak	102
LOTURIK ETA BEREIZ (BANAN) IDATZI OHI DIREN	
HITZAK	105
ba-ren eta ez-en idatz arauak	105
bait-en idatz arauak	106
bide-ren eta gabe-ren idatz arauak	107
<i>baitan, baitara, baitarik</i> eta abarren idatz arauak	107
arazi / erezi-ren idatz arauak	108
eta-ren idatz arauak	108
edo-ren idatz arauak	109
ahal, ote, omen eta abarren idatz arauak	109
Esanera idazteko ariketak	110
ABREBIATURAK	115
ARIKETAK ETA GOGAKETAK EGITEKO IPUIN BAT	119
Idatz eta Mintz	119

